



ttipi-ttapa



OIHANGINTZA / 23



BERTAKOA KONTSUMITUZ LEHENBIZIKO SEKTOREA BIZIBERRITU NAHIAN

Lehenbiziko sektorea indartzeko eta tokiko produktuen kontsumoa sustatzeko, elikadura dinamizatzailerak kontratatu dute Bertizaranako, Bortzirietako eta Malerreka hamasei udalek. Argazkian, Mikel Leiza Etxeberria aranztarra ageri da, baratze lanetan. / 12

Osasun zerbitzu duinaren alde

Bortzirietako ehunka herritarrek osasun zerbitzu duina eskatu dute. Hilabetero elkarretaratzeak egiten segitzeko asmoa dute. / 17

SINADURAK



'Sorginkeriarena gurean' liburua argitaratu du Juainas Paul Arzakek / 8



Iñaki Sanzberro Goñi Erratzuko alkatearekin kontu kontari / 48

Inauterien lekukoa herriz herri ibiliko da aste honetan eta hurrengoan / 31

Etxebizitza espekulazioak arrangura sortu du Saran / 56



ZOZKETA / 68

ikastola

zu?



Aurrematrikulazioa martxoaren hasieran



948 63 01 72



948 63 73 08



948 45 24 48



ikastolenekartea





NIRE TXANDA

JOSEBIÑE AGIRRE SOTO

Usaimenaren alde

Gaur egungo zenbait pentsalarik diote gure gizarte modernoan, higieña usain ezaren sinonimo dela: usainik ez duen hori omen da sana. Baina pentsa usainik gabeko mundu batean biziko bagina. Ezin jakin nola usaintzen zaituen bertzeak ez hark zer darion, ezin jakin inguruan zerbait erretzen ari den, hozkailuan egun batzuk daramatzen plater hori jangarria den, ezin pertsona maiteen presentzia arnasarekin laztandu, ezin itsasoaren gaziak sudurra kitzikatu, ezin udaberriko ernaltzea biriketan nabaritu, ezin hainbertze gauza. Zer litzateke bada usainik gabeko gastronomia? Eta natura? Eta izerdia bera, zer litzateke? Egoera deserosoa, mundu usaintsua inguruan duzula jakinagatik ez zenukeelako sumatuko: ezin bizi, hutsik sentituz partekatzen den usainen mundu sekretu eta intentsoa. Bizitzeko beharrezkoa den arnasketari estuki lotua den zentzumena desagertuta, ez tut uste osasuntsuagoak ginatekeenik. Lehenik eta behin, poesia faltan genukeelako: hau ez al da ba, Baudelairek zioen gisan, usainen lengoia?

«PENTSA USAINIK GABEKO MUNDU BATEAN BIZIKO BAGINA»



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Zergatik, zergatik, zergatik...?!

Errutina astintzeko, ganbarako trapu zaharrei hautsa kentzeko, lagunartean giro ederrean bazkaltzeko (afaltzeko, gosaltzeko...), eguneroko arazo ttiki nahiz handiei irri egiteko, lotsa galdu eta erraten ausartuko ez zinatekeen hori errateko, izan nahi zenukeenaz edo inoiz izan nahi ez zenukeenaz mozorrotzeko... Zergatik negar egin?!

NABARMENTZEKOAK

NIKO
MINDEGIA

ESKUBALOI JOKALARIA

ITSASO
ELIZAGOIEN
MUSIKARIA

Lesio larria izan zuen iazko maiatzean Niko Mindegia Doneztebeko eskubaloiz jokalaria. Ekainean egin zioten ebakuntza, eta berriki itzuli da pista lagun arteko partida batean.

Carlos Nuñez musikari galiziararekin zazpigarren bira osatu du Itsaso Elizagoien Etxalarko musikariak. Neguko bira bukatuta, udakoa prestatzen hasiko dira.

GIBELERA BEGIRA



2013-01-31 · TTPI-TTAPA · 583 zk.

Baztandarren Biltzarra solasgai

Berriki jakinarazi du Baztandarren Biltzarra Elkarteak izen bereko bestaren antolaketa uztea erabaki duela. Ba, duela hamar urteko aldizkarian ere antzeko gaia izan zuen hizpide Mikel Iriarte elkarte kide eta bestaren antolatzaileak. 50 urte bete zituen orduan bestak, ospakizun borobila, eta ordua arte iraun bazuen «jendearen erreleboagatik» izan zela kontatu zuen Iriartek. Etorrizuna, ordea, kezka bizi zuela azaldu zion TTPI-TTAPARI: «Krisi ekonomikoak baino gehiago kezkatzen nau erreleborik ez egoteak. Hori ez gertatzeko berrantolaketa bat beharrezkoa da. 50 urtez iraun dugu eta orain elkarteari zer eskatzen diogun planteatu beharko litza-tekeela uste dut».



erran.

TOKIKOM



Argitaratzailea

Ttapi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea

Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantxa Agirre

Berriemaileak

Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantxa Etxeberria, Iraia Jaurena,
Irene Elizagoien, Maider Petrarena,

Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea,
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,
Maitane Maritorea, Arantxa
Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione
Aritzegi, Jaione Zabalo, Nerea
Mortalena, Jean Louis Bessonart,
Ganex Etxeberriagarai, Maialen
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier
Zulaika.

Fundazioaren Presidentea

Paskual Rekalde

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko
udalak, Malerreko Zerbizuen
Mankomunitatea.

2023ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi	
eta Malerreka	45€
Leitza	36€
Hego Euskal Herria	50€
Ipar Euskal Herria, Europa	100€
Amerika eta Australia	152€



KOLABORAZIOAK

FERNANDO ANBUSTEGI GOÑI

Dirua galgarri

Euskal Nobela Beltzaren Astearen bertze edizio arrakastatsu bat iragan berri den honetan, Mariano Izeta zenaren *Dirua Galgarri* liburuaren izenburua aukeratu dut atal honetarako. Sei hamarkada baino gehiago dira Izetak euskal nobela beltzaren aitzindarietako bat argitaratu zuenetik, eta hamarren bat pasako ziren (H)ilbeltza elkartearen ekimenez Baztango Udalak liburuaren edizio berri bat plazaratu zuenetik.

Aspaldikoa da nobela beltza, aspaldikoa Izetaren lana, eta are aspaldikoagoa da dirua beti galgarri denaren sentipena, beharbada dirua existitzen denetik. Segur aski dirua edo aberastasun monetarioa jendartearen maila, beti ekonomikoa, neurtzeko erabiltzen zen ondasun ekonomikoen balantzea egiteko erabiltzen zen izendapena asmatu zenetik.

Euskal Nobela Beltzaren Astea, bertze behin ere arrakastatsua suertatu da, anitza eta aberatsa. Ekimen honen aberastasuna ezin da ezbaian jarri, beti ere, ekonomiaz gaindi ulertua. Aberatsa baita auzolanean, aniztasunean, maitasunean edota elkartasunean, bertzeak bertze. Ezin liteke (H)ilbeltza ekonomian oinarrituta ulertu. Halere, Euskal Nobela Beltzaren Astea aberatsa da, erabat. Baina orduan, zer da aberastasuna?

Aunitzetan erraten da euskara aski hizkuntza aberatsa dela,

**«AITOR DITZAGUN
PERTSONEN
GAITASUNAK
ABERASTASUN»**

hitzek berek erakusten dutelako beren erranhia hiztegira joan behar izan gabe. *Aberats* hitza, beraz, euskara ikasketarik ez dugunok abereekin lotzera garamatza, beharbada garai batean abere aunitz zituen aberatsa izan

zitekeela pentsatzera eraman gaitzake hitzak, bere horretan.

Euskaltzaindiaren hiztegira jotzen badugu, *aberats* hitzak bi adiera ditu. Lehenbiziko definizioan hau irakur daiteke: «ondasun handien jabe dena, diru asko duena». Bada bigarren adiera bat ere: «on edo baliozko den zerbait ugari duena».

Gaur den egunean, argi dago, jendartearen lehenbiziko adiera erabiltzen da soilik. Ez dago zalantzarik. Aberatsa ondasun edo diru aunitz duena da, inolaz ere ez dirua alde batera utzita bertzelako gauza onak edo baliozkoak dituen.

Zoritarrez, hala da, dirua da gure jainkoa eta diruak galbidera garamatza, beti. Jakina da gaur egun bizitzeko dirua behar dugula, eta jendarteak hala bulkatuta diru gehiago eta gehiago pilatu eta xahutzera garamatzala. Gutti duenak, diruarekin amesten du, halabeharrez kasik, bizitzeko nahikoa ez duelako. Bizitzeko nahikoa duenak ere diru gehiagorekin amesten du, nahikoa izanagatik, gehiago izan eta gehiago xahutzeko, hala baitio sistemak. Eta dirua soberan duenak ere gero eta gehiago nahi du, zertarako? Auskalo.

Baina, zergatik baztertu dugu Euskaltzaindiaren hiztegian ageri den bigarren adiera?

Aitor ditzagun pertsonen gaitasunak aberastasun gisa, onberatasuna, errespetua, konpromisoa, elkartasuna edota bertzelako *tasunak*. Izan ere, dirua galgarri den honetan, aberats eta pobre gara aldi berean.



MIKEL TABERNA IRAZOKI KAPI

Entendimentuz jauntziak

Alde egiteko tenorean, despeditzeko eta jendeari adio errateko, *Agur jaunak* kantatzeko ohitura dugu aspalditik zabaldua gure artean. Makina bat urte eman ditugu bista txar samarrarekin, noizbait ere antiojoak paratu ditugun arte. Orduz geroztik, «Agur jaunak eta andreak» erraten dugu, melodia berarekin, kanta pixka bat egokituz. Oraindik ez dute hala egiten talde guziek, baina frankok bai. Eguberrietako bertze kanta batekin ere gauza bertsua gertatzen da: «Hator mutil etxera» erraten dugu; eta etxean neskarik falta bada, hor konpon. Kostata, baina ohartu naiz zenbait tokitan hasia dela jendea «...eragion neska aurreko danbolin horri» ere kantatzen. Hala ere, zenbaitek uste du horrela traizioa egiten zaiola tradiziozko kantari. Niri ez zait hala iruditzen; uste dut ez dela batere hondatzen hitzen mezua eta kantek ez dutela euren funtsaren pizarrik ere galtzen. Alegia, konforme naiz moldaketa horiekin.

Ordea, bertzelako aldaketa batzuek ez didate halako grazia egiten. Mutiko koxkorra nintzen denboran, haurrak etxez etxe eskean ibiltzeko eguna izaten zen inauterietako ortzegun gizona. «Eup!» oihu egin edo atean kax-kax! jo, eta honela kantatzen genuen: «Pelegrino, pelegrino! Una limosnita por amor de dios! Zingar arraultze, zingar arraultze!

**«DUDARIK EZ DA,
BAKOITZA GEURE
ARRAZOIAREN
JABE GARA»**

Bat ez bada bertze, bertze!». Usadio horrek segitzen du, eta orain ere haurrak dira karnabaletako lehenbiziko ortzegunean atez ate ibiltzen direnak, gu ibiltzen ginen gisara. Baina haien ahotik ez dira solas berberak

ateratzen: «Zingar arraultze...» hasten dira. Ez dakit nola galdu ote den falta den puska. Erdaraz delakoz kendu ote dute? Hala baldin bada, hutsegite handia iruditzen zait. Nire iduriko, noizbait norbaitek hori hala erabaki bazuen, ez zuen entenditu hitz horiek zuten funtzioa, inauterien martxan bete-betea sartzen zena: parodia egitea (denbora bateko erromesena), antzerkia, umorea.

Eta, soka beretik tiraka, harritu nauen bertze aldaketa kontu bat ere irakurri dut berriki prentsan: norbaitek proposatu du haurrei ez erakustea Olentzero kantaren betiko hitzak, eta kantatik kentzea «pipa hortzean duela», «botila ardoakin», «hamar arroako zahagia», «urde tripa handia»..., horiek etsenplu txarra ematen bide dutelakoz (alkohola, tabakoa, eta ez dakit zer gehiago). Zer nahi duzue erratea? Hori ere ez dut konprenitzen.

Dudarik ez da, bakoitza geure arrazoiaren jabe gara, baina zurea eta nirea diferente. Denak olentzero samarrak baikara, entendimentuz ongi jauntziak.

11 GALDERA LABUR

EGOITZ ZUBIRI GAZTELMENDI GOIZUETAKO GURASOA

«Umeekin askoz lasaiago bizitzen dira inauteriak»

Inauterietarako gogotsu daude goizuetarrak. Aurten otsailaren 19tik 25era ospatuko dituzte (egitaraua osorik 42. orrian) eta gazte zein heldu, festaz gozatze-ko prest daude denak. Nola definituko zenuke zeure burua?

Goizuetan bizitzea asko maite duen herritar bat.

Zein dira zure zaletasunak?

Mendia, ehiza eta familia eta lagunekin egotea gustatzen zait.

Zer dira zuretzako Goizuetako inauteriak?

Gure arbasoen bizimodua erakusteko ekintza polit bat. Zahar eta gazteak elkartu, baserritarrak bisitatu eta mozorroez disfrutatzeko egunak, eta mozorroetan ateraz gero, urteko jairik hoberenak!

Zein da herriko inauterietatik duzun lehendabiziko oroitzapena?

Zahagi dantzarenak, zahagitik eskapo!

Zein izaten da zure jarduera gustukoena?

Orain, mozorroetan atera gabe, zahagi dantza ikustea. Lehenago astelehena izaten zen; baserriz baserri ibiltzea, urtean gutxi ikusten dituzun baserritarrekin egotea, lagun artean eguna mendian pasatzea, zahatetik trago batzuk egitea...

Zein da gogoratzen duzun mozorrorik dibertigarriena?

Kuadrillako mordoska juntatzen gineneko edozein, berdin zuen mozorroa!

Orain gurasoa zarela, beste modu batera bizi dituzu inauteriak?



Bai, dudarik gabe, askoz ere lasaiago: umeekin egun pasa ibili, trago pare bat hartu eta inbidia haundia pasatu mozorroak astelehenean herri-ara ailegatzen direnean [barrez].

Guraso elkarteetan zaude. Haurrentzako ekitaldiak antolatzen dituzue?

Bai, inauterietako astelehenean umeentzako ekitaldiak gurasook antolatzen ditugu; mozorro festa, bazkaria, txokolatada...

Lan handia izaten da dena antolatzea?

Ez, talde polita osatua dugu guraso elkarteetan eta lanak banatuz ederki aritzen gara. Gainera, urteroko egitaraua segitzen dugu gutxi gorabehera.

Zein dira zure asmoak epe motzera?

Nire familiarekin, lagunekin eta zaletasunekin disfrutatzeko.

Eta epe luzera?

Ahal den hobekien bizitzea!



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Auzolana, trukea eta ordea

GERMAN GORRAIZ

Auzolana erakunde tradizional bat da, Nafarroan *auzalan* edo *artelan* deitzen dena eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean jasota dagoena. Herriaren bizitzan beti izan dira oso garrantzitsuak auzoarekiko harremanak; zalantzarik gabe, tratua hirietan baino biziagoa izan da eta da. Horrela, auzotar hurbilena senidetzat hartzen zen, eta ohikoa zen etxeko nagusia gaixotzen zenean bizilagunek landa-lanetan laguntzea, eta gauza bera gertatzen zen heriotzetan, jaiotzetan, abere-galeretan, eta hori ez egitea giza kalitate eskasaren sinonimotzat hartzen zen.

*Ekonomiasolidaria.org*en arabera, trukea ekonomia alternatiboko esperientzia bat da, eta, besteak beste, beste mota bateko harreman ekonomikoak sortu nahi ditu pertsonen artean, lankidetzan eta kontsumo-premiak modu kontzienteagoan, kritikoagoan eta positiboagoan asetzeari oinarrituta.

Herrietan, auzotasun-harremanari esker, gaur

egun ere elkartruke materialeko harremanak berez sustatzen dira komunitateko kideen artean, baina neurri txikiagoan eta batez ere sektore zaharrenen eta sistema horretan parte hartzen duen pertsonaren artean, alde batera utz dezakeen zerbait ematen da, eta, horren truke, une horretan beharrezkoagoa zaion beste zerbait jasotzen du.

Trukeak abantaila asko ditu: ez dira gauza berriak ekoizten, beraz, energia eta lehengaiak aurrezten dira eta ez da kutsatzen. Gainera, ez du diru ordainketarik behar, bizitza berria ematen die objektuei, erabiltzaileak askeago egiten ditu eta kontsumitzaile gisa duten paperaz jabetzen da, lotura komunitarioak indartzen ditu eta irtenbide sortzaile eta lokalak eskaintzen dizkie krisi ekonomikoaren moduko arazoei.

Nafarroan, euskaratik datorren *ordea* hitzaren berezitasuna dugu, eta kontentsazio edo objektu gisa itzuliko litzateke, espezie bereko edo baliokide bereko beste baten kontraprestazio gisa ematen dena, eta Mendian eta Erdialdeko leku batzuetan maileguan edo trukaketan erabiltzeko

BOTA BERTSOA

PATXI CASTILLO GRAZIARENA
BERAKO BERTSOLARIA

Shakira vs Piqué?

Doinua: Goizean altxatu eta /
Mexico lindo



*Izkina guztitan dagon
kantuak zenbat entzute
Gerard Piqué ta Shakira
ze bi pertsonai ilustre.
hasieran elkarrekin
bizitako hainbat urte,
orain beraien arteko
liskarra saldu digute.
gerra honetan galtzaile
argi batek behar luke
baina dena denez show bat
diru ta ospean truke
elkarri mokoka hasiz
biek irabazi dute.*

*Kantuan kolpeak eusten
ditu Piquéren bizkarrak
nahiz ta bere kontra jarri
Shakira eta Bizarrap
badaki lehenago ere
nola orraztu bizarrak
marka batzuekin sinatu
ditu kontratu izarak
billeteekin idortzen
dituzte haien negarrak
baina Ogasunarekin
dauzkatenez une txarrak
gu gara haien partetik
ordaintzen dugun bakarrik.*

erabili ohi zena, batez ere elikagaiekin.

Inflazioak eta soldata-igoera txikiek langileen erosteko ahalmena galtzeak eta etxeko aurrezkiaren kulturarik ez izateak barne-kontsumoaren uzkurdura larria eta aurreko hamarkadan nagusi zen kontsumismo konpulsiboaren kitapena eragingo dute, eta horrek

kutsu autarkiko nabarmena duen ekonomia batera itzultzea ekarriko du. Testuinguru horretan, auzolan, ordea eta trukea bezalako terminoak datozen eredu ekonomiko berriaren protagonista izango dira berriro.

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

Zaindu maite duzun hori...

Nola erran?

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

Zer da *lekutu*?

Lekutu hitzak *urrundu*, *baztertu*, *desagertu* adiera du, ez bertzerik.

-Handik *lekutu* eta bere herrira bueltatu zen.

Ez da *kokatu*, *jarri* edo *ezarri*ren sinonimo.

-**Bertsolaritza bere testuinguruan lekutzea da helburua*

> *Bertsolaritza bere testuinguruan kokatzea da helburua.*

Lekutuk du/da erregimenak onartzen ditu.

Kalko ustelak

*'Siesta bota' ala 'Siesta egin'?

Kalko semantiko desagokiak egiten dira bota aditzarekin. Horietako bat da *siestarekin* egindakoa. **Siesta bota* gaztelaniazko 'echar la siesta' esamoldearen kalkoa da, baina euskaraz *siesta egin* jatorragoa da.

-**Siesta ederra bota dugu arratsaldean*

> *Siesta ederra egin dugu arratsaldean.*

Lo kuluxka ere erabilia da. Eta kasu horretan ere *lo kuluxka egin da* zuzena.

-Bazkalondoko *lo kuluxka egin dut.*

Hieroglifikoa

Zero azpiko tenperaturekin ikusi ditugu....



Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak...
Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

«Zurrumuruek eromen kolektibora eramaten gaituzte»

JUAINAS PAUL ARZAK HISTORIALARIA

'Sorginkeriarena gurean' liburua kaleratu du Juainas Paul Arzak historialariak. Sorginkeriaren inguruko mito, errealtate eta sinismenak bildu ditu, dokumentazio lan sakona eginez

A. LARRETXE A ZUBIETA

Kasualitatez. Halaxe sortu zitzaion sorginkeriari buruzko interesa Juainas Paul Arzak historialariari. Lagun batek aipatutako kontakizun bat izan zen lehenik, eta ondotik eragina izan zuen Berako Toki Ona Insitututuan irakasle zela aurkitutako giroak eta hainbat harremanek. «Koro Irazoki, Bidasoa Ikerketa Zentroa...». Hasieran interes soila zena, ordea «serio-serio» ikertzen hasi zen jubilatutik aitzinean. Orain, 20 urtez ikertutakoa bildu du Pamielak argitaratu duen *Sorginkeriarena gurean* liburuan.

Ikerketa lan sakon baten emaitza da liburua, orduak eta orduak eman baititu garaiko kronika eta dokumentazioa biltzen, garaiaren erretratu ahalik eta fidelena lortzeko. Egindako lanaren ondotik, ondorio nagusi bat atera du: «Inkiszioak gurean jende aunitz salbatu zuela eta akelarrea gezur hutsa izan zela». Liburuaren nondik norakoak kontatzeko bere etxean elkartu da TTIPI-TTAPArekin.

Nola hasi zinen sorginkeria ikertzen?

Idatzita zegoena irakurritz hasi nintzen. Caro Barojarenak, Henningsenak, F. Idoaterenak... Batez ere Gipuzkoan argitaratutako gauzak begiratzeko, poliki-poliki. Gero, lan handia eman dit artxibo desberdinetako dokumentuak aztertzeak, Nafarroakoak bereziki.

Bisita aunitz egin dituzu bertara?

Bada jendea egunero joaten dena, ni hainbertze ez, baina, askotan joan naiz. Gaur egun oso ongi dago, eta arreta ikaragarri ona ematen dizute.

Orain, ikertutako dena 'Sorginkeriarena gurean' liburuan kaleratu duzu. Nolako izan da liburua idazteko prozesua?

Kontent artxiboan dokumentazio asko dagoelako eta Nafarroako Artxiboan gorde direlako prozesu horiek. Baina, beste alde batetik hainbeste dokumentu izanda erabaki nuen dena ezin nuela zehatz-mehatz aztertu. Pentsa, dokumentazioan bakarrik milaka orri daude eta egin dudana da ikusi zer gauzatan diren berdinak, non dauden kontraesanak eta hori jorratu. Joskera horrek lan eta denbora ugari eskatu dizkit, baina, gustura aritu naiz.

Sorginkeria mintzo garelarik, zein erranen zenuke dela hasiera? Noiz aipatzen da lehenengoz sorgin hitza?

Sorgintza tradizionala eta talde sorginkeria desberdinak behar dira lehenik. Sorgintza tradizionala betidanik egon dela suposatzen da, jendeak ulertzen ez zituen zenbait gauza sorginei leporatzen baitzizkien: uzta txarra, ekaitza, haurdunaldian galdutako umea... Baina gerora eliza kristaua deabruari gero eta pisu handiagoa ematen hasi zen. Deabrua figura zentrala bihurtzen da eta orduan sorginei lepo-

ratzen hasten dira ordura arte judutarrei eta herejeei leporatzen zizkieten gauzak: haurrak akatzea, bikoteak lotzea harreman sexualik ez egoteko, deabrua gurtzea... Eta hor sortzen da talde sorginkeriarena. Korronte hori Europatik ailegatu zen, eta batez ere Nafarroa Garaian indartu zen XVI. mende hasieran. Sekulako astakeriak egin zituzten, eskualde ugartan: Zaraitzu, Erroibar... Beraiei talde sorginkeria leporatu zieten; suposatzen da deabrua gurtzera elkartzen zirela adin desberdinetako emakumeak eta gizonak toki konkretuetan.

Sorginkeriaren uholdeak daude la aipatzen duzu liburuan. Nola banatzen dituzu zuk?

Nik hiru bolada banatzen ditut. Lehen uholdea 1525etik 1540ra doa. Bi eremutan izan zen sorginen jazarpena: urtarrietik abuztura Nafarroako ekialdean eta abuztutik aitzina

«SORGINKERIAREN HIRU UHOLDE BEREIZTEN DITUT LIBURUAN»

«INKISIZIOA BAINO GOGORRAGOAK ZIREN EPAILE ZIBILAK»

nera hemen inguruan. 1525ean jendeak bazuen sorginen zurrumurua, baina, oraindik ez zuten talde sorginkeriaren sinistena. Baina, gaur egun bezala, zurrumuruek eromen kolektibora eramaten gaituzte. Bigarren uholdea, Anozibarren eman zen 50 urte beranduago, uzta ikaragarri txarrak izan zirelako. Anozibartik Ultzamara eta leku aunitzetara zabaldu zen, zurrumuruek lortzen dutelako astakeria egia bihurtzea. Bigarren uholdearen bukaera eta hirugarrenaren hasiera Aritz bailaran hasi zen, eta handik hona zabaldu zen, Urtubia-Altzateko jaunak eta Fray Leon de Aranibar Urdazubiko apaizak sustatuta. Aranibarren familiak sekulako indarra zuen eta presentzia zuen Arizkun, Arantzan, Lesakan, Oiartzunen... Kasu guztietan nahastu ziren sorginkeriaren sinismena eta erabilpen interesatua eta horren barrenean baita politika, muga eta interes sozialak ere. Askotan elkarren arteko haserreen ondotik sortzen ziren sorginkeriaren akusazioak.

1608. urtetik aitzinera, ordea, bertze dimentsio bat hartu zuen Bordeleko juje zibila ikertzen hasi zelako Iparraldean eta Espainiako Inkiszioa Hegoaldean. Zer gertatu zen orduan mugaren bi aldeetan ikerketa abiatzeko?

Mugak indar handia izan zuen. Nolabait, mugaren bi aldeetan interes desberdin eta kontrajarriak zeuden. Enrike II. enak Frantziako erregetza lortu zuen, eta Bordeletik jujeak bidali zituen herritarrek, urtubiatarrek eskatuta.

Zergatik?

Urtubiatarrek konturatu ziren beren menpekoak euren kontra altxatzen ari zirela eta horiek baretzeko modu bat zen sorginkeriarena ibiltzea. Urtubiatarrek, hegoaldean Altzate ziren. Bi aldean arteko harremana bazen, Hualde Beraiko apaizak Lancre Bordeletik etorritako jujearen itzultzaile papera egin zuen, eta auskalo zer kontaktu zuen, hori ez bai-

tago jakiterik. Jauntxoak borrokan aritzen ziren elkarren artean eta menpekoekin zer esanik ez. Elizak ziren borroka-aren eszenatoki: nork zuen lehentasuna ospakizunetan, nork zuen hilobia bertan, hamarrena nork hartu eta nork ordaindu... Borroka izugarria zegoen eta nabarmendu nahia. Hori pixkanaka handituz joan zen, eta Logroño-ko auziak indar handia, ikaragarria eman zion horri.

Nolakoa izan zen Logroño-ko auzia?

Logroñon fede auto bat antolatatu zuten. Hiriak momentu hartan 10.000 biztanle zituen, eta 30.000 lagun elkartu ziren hura ikustera bertan. Bertara agertu zen Bizkaiko, Burgosko eta leku guztietako jendea. Gertatutakoa biltzen duten bi kronika daude eta kopletan ere bildu zen bertan gertatutakoa eta herriz herri hedatu zituzten. Sekulako indarra izan zuen. Hain haindia izan zen ezinezkoa bihurtu zela epaitzen ari zirena benetan gertatu izana, are gutxiago gero zabaldu zen eromen kolektiboaren ondoren. Hori bai, kontuan hartu behar da botere zibilak zuen tresna: tortura.

Tortura erabiltzen zuten?

Gordetako dokumentazioan askotan agertzen da hori. Ondoren akusatutakoei beren lekukotzak irakurtzean dena ukatzen zuten. Baina zuri tortura egiten badizute... Askotan agertzen da akusatuen arteko harremanetan aholkuak ematen zizkiotela elkarri, eta akusazioei baietz errateko erraten zutela torturatuak ez izateko. **Sorginen kontra tortura ibiltzen zutela erran duzu. Baina, beraiek sutan erre aitzinetik sorginak zirela ukatzen zuten.**

Aukera eman behar zieten solastatzeko. Zenbait kasutan aukera eman baino lehen hiltzen ziren. Kasu gutxitan hobearen sorginak zirela onartuz hiltzea, bertzela etxea kenduko zirelako. Ukapenak ugariak izan ziren, eta funtzionatu zuten inkisizioaren aurrean



20 urte baino gehiagoko lanaren emaitza da 'Sorginkeriarena gurean' liburua. TTPI-TTAPA

izan baziren. Iruñeko kartzelan, esaterako, pila bat hil ziren, beste karteletan bezala, Logroño-koan adibidez.

Zer oihartzun izan zuen Logroño-ko?

Fede autoak oihartzuna 1610ean eta batez ere gerora izan zuen, handik mende batzuetara. Magastonek bertan idatzitako kronika berrargitaratu zuten inkisizioaren kontra irri egiteko, eta alderantzizko efektua izan zuen. Are gehiago, orduan indartu zen Logroño-ko auziaren ondorio bat: Akelarre hitzaren erabilpena.

Justuki Akelarrearen kontzeptua ere aztertu duzu liburuan, eta gezurra dela diozu.

1525 inguruko prozesuan Iturrengo mutiko batek akerlarrea

deitzen duten paraje bat da-goela dio, antza denez ahuntzendako aproposa dena, ez ardientzat. Beranduago, Orokietan eta Araitzen agertu zen toponimo berbera. Eta Pirinioetan ezaguna zen tokiko hizkuntzetan: *lande du bouc*, *landa da boc*... aurkitu daitezke. Gero, Aranibarrek hitz hori erabili eta hedatzen da kontzeptua. Liburuko azken kapituluan ere aipatzen dut, oraindik orain izugarritzko jenio txarrean jartzen naiz hitza erabiltzen dutenean.

Logroño-ko auziaren ondotik, Espainiako Inkisizioak hainbat bisita egin zituen errealtatea beren begietan ikusten, eta hiru inkisidoreen arteko desadostasunak nabaritzen dira. Alde batetik,

sorgin-keiaren sinisten zuten Juan del Valle eta Alonso Becerra zeuden, eta eszeptikoagoa zen Alonso Salazar y Frias bertzetik. Zer gertatu zen?

Bai. Bi haientzako nahiko urrutiko gauza zen eta Valle Urdazubira ailegatzen denean nabaritzen da harrera prestatua ziotela. Nik Urdazubiko Aranibar abadeari leporatzen diot sorgin-keiaren ideia berari buruan sartu izana. Logroño-ra bueltatu baino lehen Araitzera joan behar zuen, bertan bertze prozesu bat martxan zutelako, baina, ez da joaten ere. Ez dakit zein punturaino ez zuen sinisten, ez zuen sinistu nahi edo ez zuen kontraesanik nahi. Kontua da Logroño-ira itzuli zenean →

dena zela egia eta fedea, eta sorginak bazirela esan zuela. Fede autoa egin baino lehen, inkisidoreen arteko borroka zegoen, baina prozesua mar-txan jarria zuten eta ez zuten gelditzerik. Vallek eta Becerrak espero zuten inkisidore oro-korrak beraien aldekoiei eman-nen ziela bisita agindua, baina, honek Salazar y Friasi eman zion, eta hau akusazioak arra-zionaltasunez aztertzen hasi zen: «Zazpi urteko haur batek erraten duena sinistu behar da? Kontraesanak ez dira onar-tu behar?». Horretan ibili zen. **Zein izan zen oro har elizaren papera?**

Kontraesankorra. Baziren sor-ginkerian sinisten ez zutenak, Etxalarkoa adibidez, eta Igan-tzikoa, hasieran sinisten zue-na, eta gero atzera egin zuena. Beste batzuk, adibidez, sor-ginkeria egiten zela, talde sor-ginkeria existitzen dela eta deabrua gurtzen dutela sinis-ten zuten, Aranibarrek bezala. Urdazubiko monasterioak beste eliza batzuk kontrolatzen zituen: Arraiozkoa, Elizondo-koa... Sekulako astakeriak egon ziren eta epaiketa oso gogorrak. Behin iritzi horiek kutsatzen hasten direnean gainera ero-menak gora egiten du. Asta-keriak egin zituzten Zubietan, Elgorriagan, Arraiozen... Eta eskerrak gelditu zutela. Hor bai eskualdeko populazio erdia erori zitekeen susmoetan.

Azkenean afera 1614an baretu zen isiltasunaren ediktuarekin. Zer izan zen hori?

Poliki-poliki desagertzen hasi zen talde sorginkeria. Man-tendu zen sorginkeriaren si-nismena, baina, sorginkeria tradizionalera bueltatu zen. **Inkiszioak herritar aunitz salba-tu zituela diozu liburuan.**

Bai, azken finean inkiszioak salbatu zituen sorginkeriaren kasuan. Baina, bertze kasu batzuetan astoa baino astoa-goak ziren, eta tortura ez zuten erabiltzen baina onartzen zu-ten. Eta gainera jendea erretzea normala iruditu zitzairen. Sor-ginkereiaren kasuan, ordea,



Gertatukoaz ikastea garrantzitsua iruditzen zaio berriz ez errepikatzeko.

salbatu zituen. Horrelako kli-txea edo hedatu delako man-tentzen da oraindik ere sor-ginkeriaren kontra egin zuela, baina salbatu zuen. Askoz gogorragoak ziren kasu horre-tan epaile zibilak, Lancreren gisan, inkisidoreak baino. **Sorginkeriaz mintzo garelarik aunitzetan pentsatzen da 1608an Zugarramurdin eta inguruan abia-tutako prozesua izan zela lehena, baina liburuan argi gelditzen da ez dela lehenengoa. Zergatik ez dira ezagutarazi orain arte aitzineko denak?**

Zugarramurdikoa oso gogorra izan zen, baina batez ere ospe handia hartu zuen Logroño-ko epaiketarekin. Baina, epaike-taren ondotik, benetan eskerrak Salazar y Frias inkisidoreak frogatu zuela akusatuei lepo-ratzen zietenak ez zuela zen-tzurik, bertzela gure eskual-dean, Baztan-Bidasoan mila-ka pertsona zeuden akusatuak. Eta berak esan zuen hori ez zela posible. Donamarian, adibidez herritarren %60 har-

tzen zituzten sorgintzat. Hori ez da inongo burutan sar-tzen. Zortea izan zen garai hartan inkisizio-ko burua, lehen Iruñeko apezpikua izandakoa zela, Rojas, eta garaiko apez-pikua Venegas y Figueroa. Ez zuten sinistu, eta Venegasek bere kabuz ikerketa abiatu zuen. Gainera, hagitx pertsona interesgarria zen eta euska-razko kultur lehiaketak anto-latu baitzituen.

Zer gezur gehiago zabaldu dira garai horren inguruan?

Adibidez sorgin guztiak ema-kumeak, adinekoak, itsusiak ahal bada eta erratz gainean ibiltzen ziren irudia, nahiz eta erratzena hemen oso gutxi aipatzen den. Paperak azter-tuta ikusten da akusatutako bi heren emakumeak zirela eta heren bat gizasemeak, eta adinean askoz gehiago zirela gazteak zaharrak baino. Txi-miniarena ere oso kuriosoa da. Gure inguruko baserrieta-ra tximinia oso berandu iritsi zen, Larramendik dienez

XVIII. mendean oraindik ere etxe gutxi batzuek zuten, eta kea ganbaran barna joaten zen. Eta zabaldu den gezurre-tako bat da sorginak tximinia-tik ateratzen zirela. European tximiniak lehenagotik zabaldu ziren, eta horregatik.

Emakumeak izan ziren sorginke-riaz akusatutako gehienak. Zer paper edo parte hartze zuten horretan gizonek? Misoginiarik bazegoen garaian?

Elizaren aldetik beharbada. Apaizek amorranteak zituzten ordura arte, baina Trentoko garaian, XVI. mendean hasi zen eliza katolikoa harremanak debekatzen. Horrek ez du esan nahi betetzen dutenik. Horre-tarako emakumearen papera gero eta itsusiago bihurtzen hasi ziren, amabirjina bakarrik salbatuz. Emakumeak usaia zutela, adinarekin gaitz guztiak hedatzen zituztela... hori erra-ten zuten.

Hainbertze urtez auzia ikertu ondotik, zergatik uste duzu hasi zirela sorginen kontrako salake-tak?

Toki bakoitzean motibo des-berdinak zeuden, baina gehie-nak ziren elkarren arteko ezi-nikusia, bizilagunen artekoa, jauntxo eta menpekoen arte-koa, eta politika. Arrazoi sozial, politikoak eta eguneroko kon-tuak zeuden. Baina batez ere hedatu zelako posibilitate bat, eredu bat. Astakeriak sinisteko gaitasun ikaragarria dugu. Horrek nolabait esateko sorgin gupil bat sortzen du: horrek zerbait esan dit, gaizki begira-tu dit... eta martxan paratzen da.

Gaur egun nola oroitu beharko genuke garaian gertatutakoa?

Astakeria baino gehiago izan zen. Ikaragarria da zer gaita-suna dugun ergelkerietan si-nisteko, eta astakerietan ero-tzeko. Sorginkeriaz mintzo gara, baina juduekin gertatu zen gerora. Astakeriatan eror-tzeko sekulako gaitasuna dugu. Sorginkeriaren astakeria uka-tu beharko genuke, eta adibi-de gisa erabili berriz errepika-tu ez dadin.

**«POLIKI-POLIKI
DESAGARTZEN
HASI ZEN TALDE
SORGINKERIA»**

**«AUZIAN ELIZAREN
PAPERA
KONTRAESANKORRA
IZAN ZEN»**



Kutxa honen edukiak
bizitza aldatuko dizu

Irisingarritasuna denon eskura!

Nafarroako Gobernuak hainbat gailu erosteko dirulaguntzak emango ditu adineko, ezindu edo mendetasun-egoeran dauden pertsonentzat.

Autonomia eta zaintza pertsonalerako, segurtasunerako eta partaidetza eta gizarteratze sozial eta komunitariorako produktuak.

Informa zaitez

laguntzaproduktuak.nafarroa.eus

848 42 69 00

AUTONOMIA ETA SEGURTASUNERAKO PRODUKTUAK



Financiado por la Unión Europea
Europako Batasunak Finantzatua
NextGenerationEU



Plan de Recuperación,
Transformación
y Resiliencia

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



Tokiko kontsumoa eta lehen sektorea jomugan

Bortzirietako, Bertizaranako eta Malerreko hamasei udalek elikadura dinamizatzailea kontratatu dute. Lehenbiziko sektorea eta tokiko produktuen kontsumoa indartzea izanen dira bere egiteko nagusiak, baina elikadura sektorearekin lotutako bertzetik ere bidelagun izan nahi du

G. PIKABEA

Lehenbiziko sektorea indartzeko eta tokiko produktuen kontsumoa sustatzeko bidea hasi dute Bortzirietan, Malerrekan eta Bertizaranan. Zehazki 2020an abiatu zuten Malerrekan eta Bertizaranan, Malerreko Mankomunitateak bideratutako dirulaguntza bati esker elikadura sistemaren diagnostikoa egin zutenean; eta 2021ean gauza bera egin zuten Bortzirietan Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatearen eskutik. Horrekin ekintza plan baten zirriborroa aurkeztu zuten azterketaren egileek eta 2021eko azaroan herritarrekin lansaio batzuk egin zituzten.

Saio horietan lehentasunak zehaztu eta elikadura estrategia garatzeko gakoak bilduz dokumentu bat prestatu zuten. Eta hurrengo pausoa adostutako bide orria garatzeko elikadura dinamizatzailea kontratatzea izan da. Bortzirietako, Bertizaranako eta Malerreko hamasei udalek hitzarmena sinatu dute Cederna Garalur elkartearekin eta dinamizatzailea hartu dute. Zehazki Bertizaranako Udalak, Malerrekan Beintza-Labaien, Doneztebe, Elgorriaga, Ituren, Zubieta, Urroz, Oiz, Donamaria, Sunbilla eta Ezkurako udalek eta Bortzirietan Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakako udalek. Itsasne Mendiberri Jaurena da joan den irail hondarraz geroztik lan horretan ari dena. Ezaguna du gaia, bera izan baitzen lehenbiziko Malerrekan eta Bertizaranan eta gero Bortzirietan egin zituzten elikadura sistemaren diagnostikoen egileetako bat.

Hasteko antolatza

Lanean hasi denetik udal ordezkariekin, ekoizleekin eta jantoki kolektiboetako ordezkariekin, hau da, zahar etxeetako eta ikastetxeetako jantokitakoekin, bildu da Mendiberri eta «oraindik emaitzak

ikusteko goizegi bada ere, orain artekoaz balorazio positiboa» egin du. Lehenbiziko lana «antolatzea» izanen dela gaineratu du: «eskualde honetan ekoizle aunitzeke dute elkar ezagutzen, ez dute egitura formalik elkartzeko, eta lehenbiziko lana



Hitzarmena sinatu duten udaletako ordezkari batzuk azaroan egindako bileran.



Irail hondarrean hasi zen Itsasne Mendiberri elikadura dinamizatzaile lanetan.

«ALDE GUZIEN INPLIKAZIOA ARRAS INPORTANTEA DA»

ITSASNE MENDIBERRI, DINAMIZATZAILEA

«ELIKADURA GURE OINARRIA DELA ATZENDU ZAIGU»

ITSASNE MENDIBERRI, DINAMIZATZAILEA

pixka bat antolatzea izanen da». Horrekin batera, ekoizleen bilduma egiten ari da, «eskualdean zein produktu ekoizten dituzten bilduz katalogazio lana egiten ari naiz, bai zuzeneko salmentaren bidez lortzen ahal diren produktuen, baita merkatu-ratzeko bide laburrak erabiliz inguruan eros daitezkeen produktuen ere. Izan ere, hemen inguruan badira eredu estentsiboan lan egiten duten abeltzain aunitz, baina merkaturatze bide luzeagoak erabiltzen dituzte, eta gisa horretan gehienetan produktua ez da eskualdean gelditzen».

Bidelagun

Lehenbiziko sektorea indartzea eta bertako kontsumoaren alde egitea izanen dira Mendiberriren egiteko nagusiak, baina «elikadura sektorearekin lotuta sortzen ahal diren dinamiketan bidelagun» izan nahi du. «Ekintza plana sortua da, baina horiekin lanean ari garen bitartean, bertzetik proposamenak sortzen badira, horietan lagundu nahi nuke». Horietako bat izan daiteke ekoizle batek martxan jarri duen hezkuntza eta baserria uztartzeko proiektua. Horretan ari da ekoizlearekin, eta «espero dut halako proposamen gehiago sortzea. Oraindik lau hilabete baino ez ditut lanean, jendeak ez nau ezagutzen eta ez dakite beraiei proiektuak indartzeko nagoela. Arlo honetan behar dutenerako hemen nagoela jakitea nahi nuke».

Jantoki kolektiboekin ere lehenbiziko hartu-emanak izan ditu dinamizatzaileak eta «ekoizleak eta jantoki kolektiboak elkartzeko gune bat sortu» nahi duela aitortu du. «Eskolako jantoki batzuek gaiaren inguruan lanketa polita egin dute, baina badira nahi eta hasi ez direnak. Horiei laguntza eman nahi diet. Badaude bi zahar etxe ere, eta hango jantokitik ere zerbait egin daiteke. Ez da erraza, baina prestutasuna baldin bada, gauzak egin daitezke».

Bertzetik, epe luzera begira, «lurraren eskuragarritasunaren

«Helburua elikadura sistemak ongi funtzionatzeko sarea indartzea da»

JUANKAR UNANUA NAVARRO IGANTZIKO ALKATEA

«Landu gabe» ikusten du Bortzirietako, Malerrekako eta Bertizaranako elikadura sistema Juankar Unanua Igantziko alkateak; «ekoizleak bakarrik, bakoitza bere lanean, eta kontsumitzaileak aunitzetan nora joan jakin gabe». Hain zuzen, «hutsune eta behar» horri erantzuteko erabaki zuten lehenbiziko diagnostikoa egitea eta orain dinamizatzailerak kontratatzea. «Egoera hobetzeko ilusioarekin» ari direla aipatu du, eta bakoitza bere aldetik ibili beharrean «dena antolatzearen garrantziaz» aritu da; «behar nagusia sarea indartzea eta garatzea da, elikadura sistemak ahalik eta hobekien funtziona dezan».



OSKAR TXOPERENA

Izan ere, «ekoizleak babesik gabe» eta «zailtasun handiekin» daudela iruditzen zaio. «Lan aunitz egin behar dute beraien lekua egiteko, eta zaila da hortik bizitzea». Kontsumitzaileen artean, berriz, «bertze alorretan bezala, batzuk kontzientziatuak eta bertze batzuk halakorik planteatu gabe» sumatzen ditu. Baina hartu duten bidearekin «mugimendu honek gero eta indar gehiago» izanen duelakoan dago; «elikadura dinamizatzailerak kontratatu izana abiapuntua baino ez da eta honi esker gaia gero eta jende gehiagorengana ailegatuko da». Lehen sektoreak egiten duen ekarpena ere nabarmendu nahi izan du: «Bertako komertzioak eta ekoizleak indartzen baditugu, denontzat hobe izanen da, ez bakarrik sare hau sendotzeko, baita arlo guzietan gure herriak bizirik mantentzeko ere». Horretarako, orde, herritarren inplikazioa eskatu du: «Instituzioek babesa eman behar dute, baina elikadura sistemak herritarren parte hartzea ere eskatzen du». Bere hitzetan, «emaitza ez dugu egun batetik bertara ikusiko, baina poliki-poliki eraikitzen joanen gara eta ea noraino ailegatzen garen. Ongi funtzionatzen badu, luzera begira elikadura teknikari bat izanen dugu».

gaia edota lehenbiziko sektorean kolpean ez sartzeko finka esperimental bat egiteko aukera» aztertzea gustatuko litzaioke.

Lehenbiziko sektorearen egoera
Bertizaranako, Bortzirietako eta Malerrekako lehenbiziko sektorearen egoera mahai gainean paratu du elikadura dinamizatzailerak: «Baserri dezente daude, baina profesionalki horretan ari direnak ez dira aunitz. Gehientsuenek jarduera osa-

garritzat dute, hau da, bertze ogibide bat dute eta horren osagarri, normaliki abeltzaintza dute. Frutagintza eta baratze-zaintzako proiektu aunitzik ez dago». Hala ere, «lehenbiziko sektorearen aldeko apustua egiten duen jendea badela» nabarmendu du: «badira instalazio berriak eta hori pozgarria eta interesgarria da». Baina gaineratu duenez, «erretiroa hartzearen dauden baserriarren kopurua hasten direnena baino

«Gero eta baserri gutxiago ditugu eta hori denondako galera handia da»

ERNESTO DOMINGUEZ OLEA ZUBIETAKO ALKATEA

Ernesto Dominguez Zubietako alkateari «behar-beharrezkoa» iruditzen zaio elikadura sistema lantzea, eta hala, «oso positibotzat» jo du Bortzirietako, Bertizaranako eta Malerrekako 18 udalen artean 16k hitzarmena sinatutakoa: «Baditugu ekoizleak, eta ekoizten duten guzia hemen gelditzea izanen litzaiteke hoberena. Hori dena denon artean koordinatu eta antolatu behar dugu eta halako proiektu bat abiatu izana pauso handia da». Hau «hasiera» dela dio, baina «aukera onak» sor daitezkeelakoan dago. «Gure ekoizle asko tikiak eta askotan ezezagunak dira, ez dakigu zein diren hemen eskura ditugun produktuak. Gainera, askotan bertan kontsumitzen dugu, baina zoaz jakitera erosten duguna nondik heldu den. Gauza bat da hemen kontsumitzea, eta bestea kontsumitzen duguna bertakoa izatea». Argi utzi nahi izan du «kontsumoa denon eskuetan» dagoela. Eta horren aurrean «bertako produktuen mapa egitea proposatu du, «eskualdean ekoizten dena ezagutzarazteko. Herritarrek horren berri baldin badute, poliki-poliki gero eta gehiago kontsumituko dute bertako produktua».



TTIPI-TTAPA

Lehen sektorea ez du egoera onean ikusten eta «arazorik handiena errelebo falta» da bere hitzetan: «Gero eta baserri gutxiago ditugu eta hori denondako galera handia da». Arrazoia «ekonomikoa» izan daitekeela aipatu du, «lan handia eta lotura izugarria da, eta horrez gain, ez da behar bezala baloratua». Horregatik egin du lehenbiziko sektorean ari direnak «zaintzeko» deia: «ez gara ohartzen lehenbiziko sektorerik gabe jatekorik ez dugula izanen. Hemen bizi gara, eta ahal den neurrian bertan eta bertakoa erosten badugu, zentzu guzietan lagunduko dugu: bertan lan egiten duenari lagunduko diogu, baita bertan ekoizten duenari, ingurumenari...». Helburu horrekin hasi dute bidea; «proiektu indartsu da eta ea lortzen dugun behar bezala aurrera eramatea».

haundiagoa da. Hor desoreka sumatzen da».

Gainerakoan, eremu batetik bertara «diferentzia tiki batzuk» sumatu ditu. Konparazio batera, «Bortzirietan badira kontsumoari lotutako hainbat ekimen martxan, eskolako jan-tokietan adibidez. Edo Bidazi elkarteak sortu izana elikaduraren inguruan sentsibilizazioa baden seinale da. Malerrekako eta Bertizaranako, berriz, ekoizle abeltzain gehiago daude.

Baina orokorrean, egoera nahiko igualtsua da».

«Denen ardura»

2020an eta 2021ean elikadura diagnostikoak egin zituztenean, egungo kontsumo ohiturak elikagai merkeetan oinarritzen direla, eta elikadura osasungarri, tokiko, ekologiko eta kalitatezkoen inguruan ez dagoela kontzientziarik ondorioztatu zuten; baita herritarren gehiengoaren erosketak ohiturak —>

«Orokorrean gizartearen lehentasunak bertze nonbait daudela iduri du»

HAIZEA BELARRA ENETERREAGA BERAKO ERLANKI EZTIAK

Izatez sukaldaria da Haizea Belarra; doneztebarra da sortzez eta Bera du bizileku. Gaztetatik ostalaritzan aritu ondotik, sukaldaritzan eta gozogintzan irakasle ibili zen, «amatasuna ailegatu zen arte. Haurren zaintzan zentratzea erabaki nuen eta etxean gelditu nintzen». Orduan bihurtu zen bere bikoitekideak erlezaintzarekin duen afizioa bere ofizio. «Erlezaina izateko ikasten» ari dela dio, «baina poliki-poliki gero eta gehiago gustatzen ari zait». Erronka «luzea eta zabala» izaten ari dela aitortu du, «baina argi pixka bat ikusten hasi gara». Hori bai, laguntza eskertu nahi izan du: «Hau ezinezkoa izanzen litzateke familia ondoan izanzen ez bagenu: Mikelen osaba Kote, nire izeba Inma eta gurasoak... Eta batez ere Mikelen gurasoen etengabeko laguntzarik gabe ez genuke deus egiterik izanen».

Lehenbiziko sektorea «hagitz egoera zailean» ikusten du: «Batetik, haundiak ttikia irentsi zuen, ezin baitzuen lehiatu, eta bertalde, industria sartu zenean, baserri aunitz alde batera gelditu ziren». Egoera horretan poztekoa iruditzen zaio «gazte batzuk animatu» izana; «beharrezkoa da mundu aldrebes honi buelta ematen hasteko».

Ekoirolek dituzten zailtasunak eta gabeziek ere aritu da. Hasteko, «lehen sektoretik bizitzea zaila» dela onartu du: «kapitalismoan erabat murgilduak gaude eta hau gure kontra doa». Horrez gain, «ez dago normalizatu nekazaritzako eta abeltzaintzako ikasketak egitea eta ez dago nahiko formazio». Eta gobernuari ere mezua luzatu dio: «nekazari eta abeltzain xumeentzat laguntza gehiago bideratzea falta da, laguntza gehienak haundienentzako dira».



UTZITAKO ARGAZKIA

Herritarrek kontzientziatzeko beharra «izugarria» dela ere gaineratu du: «Gizarte kapitalistak bulkatu gaituen egoera honetan kasik ezinezkoa da kontzientziak gidatzen gaituenari kasu egitea, bizimodua izugarri garestitu delako eta soldatek ez dutelako hori tapatzeko aukerarik ematen; baina bertetik, orokorrean, gizartearen lehentasunak bertze nonbait daudela iruditzen zait». Are gehiago: «gizartearen barrenetik zaintzen baino zentratuagoa dago kanpotik zaintzen. Garrantzi gehiago ematen diogu zer jantzi edo zer telefono erabili, bertako produktuekin eta osasuntsuekin elikatzeari baino».

«Osasuntsua eta hurbilekoa kontsumitzeari lehentasuna emateko lan handia» egin behar dela dio, eta aldi berean, Beran lehenbiziko sektorea indartzeko «aurrerapausoak» txalotu ditu: «mendi batzordea sortu zen abeltzainei begira, eta hila-betero Lesakan eta Beran egiten dituzten azokak herritarrengana hurbiltzeko aukera ona dira». Halere, «gure produktuak plazaratzeko eta Bortzirietako kultura bultzatzeko erakusleho baten falta» sumatzen du. Baita «Iparraldearekin elkarlan gehiago» ere; «bizilagunak ditugu eta bertako produktuen kontsumoa aunitzez normalizatuagoa dute. Badugu zer ikasi».

hurbileko sektorea indartzeko norabidearekin bat ez datoze-la ere. Mendiberriren arabera, horren aitzinean, «herritarrok badugu ardura indibidual bat. Guk erabakitzen dugu non erosi eta zer kontsumitu, erabiltzen ez dugun lur bat lehen sektorean hasi nahi duenari utzi edo ez...». Baina ez zaio bidezkoa iruditzen ardura guzia «herritar indibidualarengan bakarrik uztea. Arras garrantzitsua da eragile guzaien inplikazioa, eta tartean administrazioarena. Administrazio publikoak erabakitzen du zein nekazaritza eredu sustatu edo zein kontsumo eredu bulkatu. Araudiak egiten dituzte, eta beraien esku dago zer lagundu eta zer oztopatu erabakitzea».

Argi du guzaien inplikazioarekin «lehenbiziko sektoreak duin bizitzeko aukera» izanzen lukeela. Baina horretarako elikadura sistemari bere tokia aitortzea nahitaezkoa iruditzen zaio: «Elikadura sistema gizartearen oinarri-oinarrian dagoen zerbait da, baina ez diogu beharko lukeen garrantzirik eman. Bertze esparru batzuei begira egon gara eta iduri du atzendu zaigula bizitzaren oinarria den elikadurarekin zeregiten arigaren».

Egoera horretan, positibotzat jo du Bertizaranan, Bortzirietan eta Malerrekan tokiko administrazioa iraunkortasunaren ikuspegi honetatik elikadura sistemarekin lanean hasi izana, «diagnosi bat egin, ekintza plan batzuk zehaztu eta horiek ai-

tzinera ateratzeko dinamizatzailerak kontratatu izana pauso bat da». Tokiko elikagaiak kontsumitzeko bidea hartu duten Bidazi elkartearen eta hainbat jantokiren bidea ere txalotu du: «Ekoirolei nolabaiteko egonkortasuna ematen ahal diete eta saltzeko tokia izanda, akaso norbait animatzen ahal dugu mundu horretan sartzerako». Kontsumitzaileekin sortzen den harremana ere azpimarratu du «badakigu produktuak nondik

heldu diren, nork egin duen, nola... Horretaz gain, gehiengotik janari osasungarria da, garraioaren ondorioz sortutako kutsadura murrizten da... Pertsonak eta orokorrean ingurumena errespetatzen da». Baina hortik haratago, konbentzitu dago «badela oraindik gehiago eragiteko potentzialtasuna». Bere hitzetan, «ez gara ohartzen elikadura sistemak zenbat arlo ukitzen dituen: osasuna, ingurugiroa, harremanak, tokiko ekonomia...».

Herritarren kontzientzia mailaren harira, bertze pare bat kontu ere argitu nahi izan ditu. «Aunitzetan aipatzen dugu herritarrek ez gaudela kontzientziatuak. Baliteke hori izatea, baina aldi berean, kontzien-

«ELIKADURA LEHEN PLANORA EKARRI NAHI NUKE»

ITSASNE MENDIBERRI, DINAMIZATZAILERA

«Lehenbiziko sektorea erakargarri egiteko zerbait egin behar da»

ARKAITZ VICENTE URKIJÓ SUNBILLAKO LIZUN GAZTANDEGIA

Betikik izan du artzaintzatik bizitzeko ametsa, eta duela hamar-hamabortz urte eman zuen pausoa Sunbillako Lizun gaztandegiko Arkaitz Vicente Urkijok: «Hori zen nahi nuena, betitik amestu izan dudana eta erabakia hartzea ez zen zaila izan». Geroztik horixe du ogibide, eta maite du egiten duena.

Eskualdean lehenbiziko sektoreaz zer dioten galdetuta, ordea, ez du egoera onean ikusten, eta bereziki, «errelebo faltak» kezkatzen du: «jende aunitz ari da lehenbiziko sektorea uzten, bai hortik bizi izan dena, baita hortik bizi ez arren beti aziendak izan dituen ere. Jendeak zahartu ahala utzi egiten du eta gazteek ez dute segitu nahi». Horren giblean hainbat arrazoi egon daitezkeela uste du sunbieldarrak. Alde batetik, erakargarritasun falta ikusten du: «Gaur egungo bizi-

modutik begiratuta, ez da erakargarria. Hortik bizitzeko aunitz gustatu behar zaizu. Lan lotua da, nahiz eta zuk nahi duzun bezala antolatzeak askatasuna ematen dizun». Eta bertetik, alderdi ekonomikoan dagoen hutsunea aipatu du: «Ordu aunitz sartzen dituzu, baina horren arabera ateratzen duzun etekina ez da haundia, ez da bate-re errentagarria». Berak argi du: «Ez da lanbide bat, bizitzeko modu bat baizik. Hori dena kontuan hartuta, garbi dago mundu hau hobetzeko eta jendearendako, eta batez ere gazteendako, erakargarri egiteko aunitz egin behar dela».

Bertakoaren garrantzia

Herritarren kontzientziazioaz ere aritu da Vicente: «Bertakoa kontsumitzeko gero eta kontzientzia gehiago sumatzen da. Pandemia garaian bertakoa



UTZITAKO ARGAZKIA

gehiago kontsumitzen hasi ginen, baina oraindik ere gehixeago behar da». Horren harira, Ipar Euskal Herriko ereduak ekarri du mahai gainera: «Iparraldean jendeak aunitzez ere kontzientzia gehiago du bertakoa kontsumitzeak duen garrantziarekin. Hemen ekonomiari edo merkeago izateari gehiago begiratzen zaio, produktua nondik heldu den edo zein baldintzatan ekoiztea izan den begiratu gabe».

Bertakoa kontsumitzeak egiten duen ekarpena ere nabarmendu nahi izan du. «Bertakoa kontsumitzea hagitx inportatzea da. Hurbileko produktu bat jaten ari zara, segurtasuna

ematen dizu badakizulako gutti goiti-beheiti nola sortua den, eta horrekin batera, jendeari bertan gelditzen laguntzen diozu, bertako ekonomiari laguntzen diozu». Laburbilduz, «bertakoa kontsumituta zure eskualdea dinamizatzen ari zara».

Begi onez hartu du eskualdeko udalek lehenbiziko sektorea indartzeko hartu duten ekimena: «Ezagutu dugun bizi klase bat pixkanaka-pixkanaka desagertzen ari da. Hola segituz gero, lehenbiziko sektorea desagertu egiten da, eta horri buelta emateko interesgarriak dira holako ekimenak. Ea denon artean zerbait egiten ahal dugun».

tziazioaz ari garelarik iruditzen zait azalean ibiltzen garela. Denok dakigu bertako produktuak erostea hobe dela, baina igual ez dakigu hortik haratago gure kontsumo ohiturekin zer eragiten ari garen». Horren harira, «deskonexioaz» ere aritu da: «Lehen maiz aipatzen zen landa eta hiri eremuen arteko deskonexioa, baina gaur egun landa eremuan bertan, ekoizten eta kontsumitzen denaren artean ere bada deskonexioa».

Bere ustez, «informazio zehatza eman behar da eta ekoizleak lanean hasi nahi badu baliabideak eta babesak behar ditu. Inbertsio guztiak egiteko ardurak ekoizlearen gain uzten badugu, hori berreskuratzeko zailtasun haundiak izanzen ditu.

Baliabideak ez badira jartzen, zaila izanzen da kontsumo ohiturak aldatzea». Baina aldi berean «ez da ezinezkoa» bere ustez. «Agroindustria muntroaren aitzinean gaude, baina kalte egiten duena identifikatu eta aldatu behar dugu, bai herritarrok kontsumitzaileak garelako, baita ekoizleek ere. Gisa horretara denontzat onuragarria den elikadura sistema sortuko dugu».

«Erronka haundia»

Badaki emaitzak ez direla egun batetik bertara etorriko; eta onartu du «erronka haundia» eta «zailtasun ez betetako bidea» izanzen dela. Baina bertetik, «aukera aunitz» ikusten ditu: «Ohitura eta dinamika aunitzi

buelta ematea zaila izaten ahal da, baina ohartu behar dugu zer ari garen galtzen. Eskualde honetan indar haundia izan duen lehenbiziko sektorea arriskuan egon daiteke». Akaso «urte luzez ohikoa izan den familiako nekazaritza ereduaz gain, bertzelako ereduak pentsatzeko ordua izan daiteke: familiatik kanpoko proiektu kolektiboak, erreleboa etxetik kanpoko norbaitek hartzea... Zerbait egin beharko dugu galdu nahi ez badugu».

Bide horretan handik eta hementik eraginez «elikadura sistema lehenbiziko planora» eramanez nahi du Mendiberrik, eta hala, erabaki guztietan presente edukitzea gustatuko litzaioke. «Adibidez, hirigintza plan

bat egiterakoan, nekazaritzako lurra kontuan hartzea, hirigintza ez baitago elikadura sistematik aparte». Udal ordezkariarekin, ekoizleekin, jantokiekin, merkataritza eta turismo alorreko ordezkariarekin eta orokorrean herritarrekin lanean segituko duela gaineratu du, eta «dagoeneko martxan diren dinamikekin elikaduraren gaia sartzen saiatu» nahi du, «euskara taldeetan, gazte taldeetan, kultur elkarteetan... Guztiek «gaia landu» nahi du, baita «gauza praktikoak egin» ere. «Konparazio batera, herri bazkari batean zergatik ez ditugu bertako produktuak kontsumituko?». Argi du aitzinera egiteko «elikadura sistemaren garrantzia barneratzea» gakoa izanzen dela.

Aurtengo mendiko lanen adjudikazioa egin du udalak

90.000 eurotik gora bideratuko ditu aurtun udalak mendiko lanak egiteko herriko hainbat lur komunaletan

A. LARRETXE

Herriko mendi komunaletan egin beharreko lanak esleitu ditu Berako Udalak. Bi lotetan banatu dituzte. Lehenengoan Arregiko lehen eremuan, Intzolan, Zamarneko bordan eta Bordatxuri parajeetan baso berri eta Arregi, Komiziarra-ko bigarren eremuan, Sarrallan, Errekaundin, Gazteun, Santa Barbaran, Intzolan, Kondendiagan eta Bordatxurin baso-berritzeak mantendu beharko dituzte. Bigarrenengana, aldiz, mendiko lanak esleitu dituzte: Bordako errekan soiltzea, sas-

trakak kentzea Komiziarra eta Uxanen eta itxiturak kentzea Komiziarra, Errekaundiko hiru eremutan eta Armalan.

Lanak egiteko 90.000 eurotik gora bideratuko ditu udalak. Epeei dagokionez, lehenengo loteko lanak ekainaren erdialdetik irailaren erdialdera egin beharko dira, eta irailaren 30erako erabat bukatu beharko dituzte. Bigarren loteari dagokionez, obraren akta hasierari oinarri hartuta bi hilabete izanen dituzte, eta beranduenez irailaren 30erako egin beharko dira.

Inauterietarako prestatzen ari dira herritarrak

Astebete eskas falta da inauterietarako, eta ziur aski herritar aunitz dagoeneko moztaraz prestatzen hasiak izanen dira. Egitarauaren xehetasunak eta entseguen ordutegia 40. orrialdean ageri dira.



Gure Txokoa Elkartek mus txapelketa antolatu du hilaren 18an

A. LARRETXE

Urte batzuez egin gabe egon ondok, Gure Txokoa Elkartek mus txapelketa azkarra antolatu du otsailaren 18rako. Denentzako txapelketa irekia antolatu dute, baita elkarte-ko bazkide ez direnentzako ere.

Otsailaren 18an egingen dute, larunbatean, 1amotenean 16:00etan hasita. Izen ematea egunean bertan egin beharko da txapelketa baino ordu bete lehenago, eta bikoteko 15 euro ordaindu beharko dituzte parte hartzeko.

Sari ederrak

Txapelketako lehenengo lau sailkatuentzat sari ederrak izanen dira. Lehenengo bikoteak 250 euro eta ardo lotea lortuko ditu, 2. postua lortzen dutenek bi afari Zubiondo ostatuan eta ardo lotea, hirugarren bikoteak bi afari Zalain jatetxean eta ardo lotea eta laugarren postua lortzen dutenek Martikoko bi kaxa eta ardo lotea. Gainera, bazkide bikote onenak ere sari berezia izanen du: bi afari Errekalden eta ardo lotea.



TTIPI-TTAPA

58 txirrindulari Azkena ziklo-krosean

Urtarrilaren 22an egitekoa zuten, baina, azkenean astebete beranduago, 29an egin zuten bigarrenaz Azkena ziklo-kros proba. 58 parte hartzaile izan ziren zazpi kategoriatan, eta tartean open mailako proban Joseba Lasartek hirugarren postua lortu zuen.

Astebetezko ortziraletan:
07:15etik aitzinera
LABE ZAR
Larunbata eta igandaz:
08:00etatik aitzinera
948 631 076 • BERA

Arturo
arropa-denda
etxeko osagarriak | lentzeria
Aitzate, 30 BERA T. 948 630 136

Argitze, errehabilitazio neurologikorako zentroa

iktus, traumatismo, epilepsia, Parkinson, Alzheimer eta bertzeko dementsia eta eritasun neurodegeneratiboen ebaluazioa eta esku hartzea. Lanketa kognitiboa eta motorra. Neuropsikologia eta fisioterapia neurologikoa.

ARGITZE
LABORIO DE REHABILITACION

Santiago kalea 51 beheheskuri
20303 IRIUN (Gipuzkoa)
+34 943 051 227

www.argitzeirunestimulacion.com
argitze.irun@gmail.com
[@argitze_irun](https://twitter.com/argitze_irun)

Kalitatezko osasun publikoaren alde karrikara

Ehunka herritar atera ziren karrikara urtarilaren 26an Bortzirietako bortz herrietan «osasun zerbitzu duina» eskatzeko. Hilabetero elkartuko dira hemendik aitzinera

TTIPI-TTAPA

«Osasun zerbitzu duina nahi dugu» lelopean, ehunka lagun atera ziren karrikara urtarilaren 26an Bortzirietako bortz herrietan. Nafarroako Osasun Plataformak deitu zituen kontzentrazioak eta Osasun Bidasoa plataformak ere bat egin zuen deialdiarekin.

«Medikuek artatuak izateko eskubidea herritarguztiok dugu, herri guztiek behar dute osasun sistema duina, hiri handiek nahiz herri txikiak», nabarmendu zuten bortz herrietan irakurritako testu berean. Egun egoeraren berri eman zuten: «Lesakako osasun zentroan zentralizatua dago medikuen zerbitzua. Zazpi mediku beharrean lau mediku daude jardunaldi osoz eta bertze bat erdian. Pediatrarik gabe gaude, haurren harrera ere familia medikuek egin behar dute, eta zoritxarrez ez da epe motzeko soluziorik ikusten, partxeak jartzeko saiakerak bakarrik».

Egoerak «soluzioa baduela» uste dute, «borondate politikoa» egonez gero. Horretarako bi eskaera egin dituzte: osasun arloko profesional gehiago jartzea zerbitzu duin bat jartzeko, eta osasun azpiegiturak hobetzea eta egokitzea behar diren zerbitzuak eman ahal izateko. Horretarako, Lesakako osasun zentroa haunditzea plana garatzea eskatu dute.

Hemendik aitzinera hilabetezko azken ortzegunean elkartzeko deia egin dute, eta hurrengo kontzentrazioa otsailaren 24an egingen dute Lesakako osasun zentroaren parean, 18:30ean.



Jende aunitzek parte hartu zuen kontzentrazioetan. TTIPI-TTAPA

ATE IREKIAK
Unibertsitate
Graduak

INGENIARITZA

- Goierrri-Ordizia MARTXOAK 25
- Bilbao AS Fabrik OTSAILAK 25 / APIRILAK 22
- Arrasate OTSAILAK 25 / APIRILAK 22
- Galarreta EKO Campus-Hernani OTSAILAK 25 / APIRILAK 22
- ONLINE MAIATZAK 23 - 24

ENPRESA KUDEAKETA

- Oñati MARTXOAK 4 / APIRILAK 29 / MAIATZAK 11
- Bidasoa-Irun MARTXOAK 11 / APIRILAK 29 / MAIATZAK 11
- Bilbao As Fabrik OTSAILAK 25 / MARTXOAK 4 - 25 / APIRILAK 29 / MAIATZAK 11 - 13

EKINTZAILETZA

- Bilbao BBF OTSAILAK 23 / MARTXOAK 18 / APIRILAK 27
- Bidasoa-Irun OTSAILAK 25 / MARTXOAK 16 / APIRILAK 29
- Oñati OTSAILAK 25 / MARTXOAK 16 / APIRILAK 20

HEZKUNTZA

- Bilbao As Fabrik OTSAILAK 25 / APIRILAK 22
- Eskoriatza OTSAILAK 25 / MARTXOAK 18 / MAIATZAK 20

KOMUNIKAZIOA

- Aretxabaleta OTSAILAK 25 / MARTXOAK 18 / MAIATZAK 20

HUMANITATEAK

- Bilbao As Fabrik OTSAILAK 25 / MARTXOAK 18 / MAIATZAK 20

GASTRONOMIA

- Basque Culinary Center
- Donostia MARTXOAK 4 / MAIATZAK 6

Learning from reality

Eman izena! www.mondragon.edu/ate-irekiak-graduak

Herri hezitzaile baterako bidean lehen urratsak

Oinherri elkartearekin elkarlan hitzarmena sinatu du udalak eta Euskal Herriko Herri Hezitzaileen Sareko kide da orain Lesaka

AITOR AROTZENA

Oinherriarekin elkarlanean, Euskal Herriko Herri Hezitzaileen sarean sartuko da udala. Hori dela eta, hurrengo hilabeteetan Lesaka hezitzaile baterako oinarria adostu eta, estrategia partekatu bat erakitzen hasi nahi du udalak, «hezkuntza modu integral batean lantzeko, ikastetxeetat aparte herri batek haurrak hezi ditzakeelako. Lesakako hezkuntza komunitatea sartzeko eta herri moduan, hezkuntzarako estrategia bat adosteko». Horretarako, ideia honetan lagundu dezaketen eragileekin diagnosi partekatu bat egiteko asmoa dute eta trebakuntza tailerrak egiten hasi dira.

Lehenengo saioa **otsailaren 6an** egitekoa zuten *Diagnosi partekatua (non gaude?)* goiburupean. Herriko hezkuntza arloaren argazki bat egitea zen saio honen helburua, indarguneak eta ahulguneak identifikatuz, erronkak definitzeko.

Bigarren saioa **martxoaren 6an** izanen da, *Hezkuntzarako herri estrategia (nora joan nahi dugu?)* goiburupean. Herri he-

zitzailearen filosofiak, hezkuntzatik herri estrategia aberas-teko ematen dituen aukerak mahai gaineratuko dituzte. Herri bezala, ipar konpartitu bat eraikiko dute. Horretara heltzeko elkarrekin dituzten erronkak definitu eta lehen-tasunak adostuko dituzte.

Hirugarren saioa, azkenik, **apirilaren 17an** egingen dute, *Plangitza partekatua (nola joanen gara?)* goiburupean. Lesakako hezkuntza elkargunea ezaugarrituko dute azken saioan. Aurreko saioan definitutako ipar partekaturantz joateko, guztien elkarlanerako gunea diseinatuko dute. Hezkuntza elkargune hau sustatuko duen talde eragilea osatu eta ezaugarrituko dute, 2023-24 ikasturtean martxan hasteko plangintza partekatua definituz.

Tailer guztiak 18:00etan izanen dira udaletxean eta zaintza zerbitzua izanen da. Parte hartzea konfirmatzeko eta zaintza zerbitzua behar den adierazteko 692 18 62 52 telefonora deitu edo whatsapp mezua bidaltzea eskertuko dute.

Nerea Ordokik eraman du elkartasun saskia

Herriko merkatariek eta ostalariek emandako produktuekin osatutako saski ederra zozketatu dute Lesakako Etxeraino elkartasun zozketan. 1.767 zenbakia izan da saritua eta horren jabea Nerea Ordoki.



Zantzonea jatetxeko ostalariak eta bezeroak garaipena ospatzen. UTZITAKOIA

ETB-2ko 'Trío de ases' saioan irabazle suertatu da Zantzonea jatetxea

A. AROTZENA

ETB-2ko *Trío de Ases* telebis-tako lehiaketa gastronomikoan garaile suertatu da Yolanda Yecorak eta Dabid Urrak kudeatzen duten Zantzonea jatetxea. Gorlizko Jubis jatetxeak eta Aretxabaletako Mugi taberna izan zituen arerio Zantzoneak saio horretan eta garaile suertatu zen. Moldaketa lanak egiteko 3.000 euro eta txapela lortu zuten saritzat. Yolanda Yecora kontent dago sariarekin, «ostatu-jatetxea hartu genuenetik borts hila-bete bertzerik ez ziren pasatu programa grabatu genuenean

eta ezagutzera emateko bultzada handia da eta esperientzia hagitza polita izan da». Halere, «estres eta urduritasun handiko egunak» izan zirela ere gogoan du, «kamerak ostatuangrabitzen, orain hemen, gero han, gero finala grabatzera joan... baina emaitzak balio du». Ostatu-jatetxea ez ezik, «gure herri polit hau ere gehiago ezagutarazteko» baliagarria izanen dela uste du Yecorak.

Berriki eman dute saioa telebistan, baina nahi duenak, internet bidez, EITBko *Nahieran* ikus dezake.



UTZITAKOIA

San Antongo ibilaldi arautua

72 mendizalek parte hartu zuten Beti Gaztek antolatutako San Antongo ibilaldi arautuan. Markel Erkizia, Jon Ander Ruiz eta Aritz Aranberrik lortu zuen lehen saria eta Ninbe Urtzegik eta Lide Igoak bigarrena. Orain, Arbolaren Eguna antolatu du Beti Gaztek otsailaren 11n eta 23an.



Patxi Iñigok irakurri zuen Pello Apezetxearen hilberri-txostena. CASTILLO SUAREZ

Pello Apezetxea omendu du Euskaltzaindiak

Herriko apeza eta Ttipi-Ttapa Fundazioko presidenteaz gain, iaz hildako bertze sei euskaltzain gogoratu dituzte

IRUNE ELIZAGOIEN

Urtero, Euskaltzaindiak gorazarre egiten die aitzineko urtean hildako euskaltzainei, izan oso, emeritu, ohorezko edo urgazle. Ohiturari jarraituz, iaz zendutakoak omendu zituen Akademiak urtarrilaren 27an, Donostiako Luis Villasante Euskararen Ikergunean. Pello Apezetxea ohorezko euskaltzainaren biografia laburra Patxi Iñigo euskaltzain urgazleak irakurri zuen.

Aurrekuaren ondotik banan-banan irakurri zituzten iaz hildako zazpi euskaltzainen hilberri-txostenak.

Pello Apezetxea etnografo, idazle eta ohorezko euskaltzainaren profila Patxi Iñigo euskaltzain urgazleak irakurri zuen. TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAren burua izan zen Apezetxea, eta Herria 2000 Eliza erakundeko kide ere bai. Euskal kultura eta etnografiari buruzko liburu ugari idatzi zituen, eta 2004ko azaroaren 26an ohorezko euskaltzain izendatu zuen Euskaltzaindiak.

Pello Zabala, Iñaki Segurola, Miren Jone Azurza, Eustasio Etxezarreta, Pedro Sancristóvak eta Txomin Peillen ere gogoratu zituzten.



ITSASO ELIZAGOIEN

Osasun zerbitzu duinaren alde

Bortzirietako bertze herrietan bezala, Etxalarren ere dozenaka lagun elkartu ziren urtarrilaren 26an, 18:30ean herriko plazan, osasun zerbitzu duinaren aldeko aldarria egiteko, «aunitz luzatzen den eta denborarekin okerrera doan arazo bat salatzeko».



SERGI PARAMÉS

Itsaso Elizagoienek zazpigarren bira

Carlos Nuñez gaita-jotzaile galiziarren taldean jotzen hasi zen 2016an eta, geroztik, urtero kontzertuak ematen ari da trikitilari etxalartarra. 2022ko azaro, abendu eta urtarrila Estatu mailan kontzertuak ematen aritu ondotik, zazpigarren bira itxi du. Laister udako birarekin hasiko dira.

Ortzegun Gizenarekin hasi eta astearte inaute egunean bukatuko dira inauteriak

I. ELIZAGOIEN

Otsailaren 16an, Ortzegun gizenarekin hasiko dituzte inauteriak herriarrek. Egitarauaren berri zehatza aldizkari honetako 43. orrialdean duzue, baina igandeko Zaldun Inaute egunean kinto bestak ospatuko dira, astelehenean

inaute-inaute eguna eta asteartean moztorra eta karrozen eguna izanen dira.

Asteleheneko gosarira, edo astearteko bazkarira joan nahi duenak izena eman beharko du Elutsa Ostatuan dagoen zerrendan otsailaren 15a baino lehen.

LINDDURRENBORDA SAGARDOTEGIA

Txotx denboraldia irekia!
Ortzegunetik igandera irekita,
eguerditik aitzinera.

Egin erreserba!!

NABAZ AUZOA LESAKA (NAFARROA) · TEL. 948 63 72 12

Asteburu honetan inauteriak ospatzeko prest

Larunbatean eta igandean etxez etxe ibiliko dira mozorroak eta guraso elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu

ANA ETA ITZIAR

Asteburu honetan egingen dituzte beraien harat-honatak mozorroek inauterietan.

Ortziralea, otsailak 10

10:00etan abiatuta, egunguzian mozorroak etxez etxe ibiliko dira eskean eta dantza, musika eta umorearekin herriko txokoak alaitzen. Arratsean afaria izanen dute Biltokin, eguna Berrizaun, Frain eta Sarrola auzoetan eta herrian pasatu ondotik. Arratsaldean, guraso elkarteak antolatuta, haurrentzat jokoak eta ondo-

tik merienda izanen da frontoian.

Larunbata, otsailak 11

Mozorroak 08:00etan abiatu eta eskean ibiliko dira herriko etxe eta baserrietan, trikitixa eta pandero soinuak etxez etxe hedatuz. Afaria Biltokin izanen dute. Guraso elkarteak antolatuta, haur eta helduentzat bazkaria izanen da Biltokin. Bazkaria irekia izanen da eta txartelak ohiko tokietan izanen dira salgai. Ondotik, hau ere guraso elkarteak antolatuta, DJ Endara izanen da frontoian.

Aldaketak egin dituzte Biltoki elkartearen zuzendaritza batzordean

ANA ETA ITZIAR

Igantziako Biltoki elkarteak urteko batzarra egin zuen ilbeltzaren 28an eta zenbait aldaketa egin ditu zuzendaritza batzordean. Xabi Aranguren izanen da lehendakariorde, Jose Mari Iantzioren orde; Itziar Mitxelena idazkari, Ja-

nire Loinazen orde eta Lurdes Larzabal diruzain, Maider Etxeberriaren orde. Jokin Mitxeo, Dani Taberna eta Virtudes Iguzkiagirre dira bokal berriak, Eneko Mitxelena, Juan Jesus Telletxea eta Juanjo Urtzegiren orde. Anjel Urtzegik segituko du lehendakari.



ANA ETA ITZIAR

Medikua herrian izatea eskatuz

Medikua jubilatuta zenetik zerbitzu eskasa dugu herrian eta zenbait ekintza egin dira. Sinadura bilketa egin zen bere garaian eta ilbeltzaren 26an, Bortzirietako bertze herrietan bezala, jendetza bildu zen, hain beharrezkoa den zerbitzu hau behar bezala eman diezaguten.



UTZITAKO ARGAZKIA

Herriko abeslariak 'Bidaia' proiektuan

Euskal Herri osoko 200 musikari eta kantari elkartu dira René Zugarramurdik zuzendutako *Bidaia* proiektuan eta emanaldiak eskaini dituzte Hendaian, Hondarribian eta Baionan. Argazkian ageri diren hamar igantziar horiek ere parte hartu dute proiektuan.



CASA PUNTOS
SINCE 1885
ARMA-DENDA ETA TIRO GALERIA

www.casapuntos.com | armeriacasapuntos | 618 68 98 55
Pol. Ind. Cordovilla Parcela 3, Nave 4. 31191 - Cordovilla - Nafarroa



Manterola
Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA - GASA
KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602



744 484 361
ttipi-ttapa



F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

Mendi lasterketa apirilaren 23an izanen da

Aurtengoa laugarren edizioa izanen da eta lasterkariak 20 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute

NEREA ALZURI

Zuzenbidean bi urtetik behin izaten da Arantzako Mendi Lasterketa, mendi itzuliarekin txandakatuz, baina 2021ean ezin izan zuten egin. Aurten, ordea, prest dira eta Arantzako IV. Mendi Lasterketak badu data: apirilaren 23an egingen

da. Herritarrez gain, mendi lasterkari eta zaletuek borobildu beharreko eguna izanen da!

Dagoeneko Ekaitza Elkartea antolaketa lanetan hasia da eta aitzineko aldietako ibilbidea izanen dela jakinarazi du: plazaatik abiatu (275m), eta handik herriko mendirik altuenera

joan beharko dute lasterkariak: lehenbizi Zepurun barna (715m) Illurdira (1.072 m), eta ondotik Ekaitzatik (1.040 m) eta Ibintzatik (1.032m) pasatu beharko dute. Handik Ollargatarako (660m) bidea hartu beharko dute, eta Arruzpira jaitsi ondotik berriz goiti egin beharko dute herriko plazara ailegatu aitzinetik. Hala osatuko dute 20 kilometroko luzera eta 1.300 metroko malda dituen mendi lasterketa.

Lerro hauek idazterakoan antolatzaileek ez zuten izena emateko epea irekia, baina laster zabalduko dutela errana dute.

Mendi itzulia, berriz, heldu den urtean izanen da.

Mus txapelketako kanporaketa otsailaren 25ean

Orain dela aste batzuk hasi zen Euskal Herriko XIV. Mus Txapelketa eta geroztik herri herri kanporaketak jokatzeko ari dira. Ekaitza Elkartek Arantzako ere antolatu du eta otsailaren 25ean izanen da, 18:00etan. Bikote sailkatuek martxoaren 11n Iruñean jokatuko den herrialde mailako kanporaketarako txartela lortuko dute eta Euskal Herri mailako finala martxoaren 25ean Bizkaian izanen da, Zornotzan. Aurten ere sari ederrak prestatu dituzte antolatzaileek.



TTPI-TTAPA

Osasun zerbitzu duina aldarrikatu dute herritarrek

Ilbeltzaren 26an, Bortzirietako bertze lau herrietan bezala, herritar azkarki bildu zen plazan osasun zerbitzu duina eskatzeko. Osasun zerbitzu duinaren alde eta medikuarengana joateko eskubidearen alde, aldarrikapenak hilabeteko hondarreko ortzegunetan segituko dute. Hurrengo otsailaren 23an 18:30ean Lesakako osasun zentroaren atarian izanen da.

Meditazio kontzertua antolatu du udalak otsailaren 18an

NEREA ALZURI

Ortziraleroko, herritar talde bati, yoga saioa ematen dio Marina Pintosek. Eta, otsailaren 18an, berriz, meditazio kontzertua emanen du. Udalak antolatu du eta gong, monokorde, danborra, kashi, ontzi tibetar eta ahotsez egindako soinu ma-

sajea izanen da. 17:00etan eskolako gimnasioan egin dute hitzordua.

Udalak plaza mugatuak izanen direla jakinarazi du eta horregatik, parte hartzeko izena eman beharko da. Intereza dutenek Leire Mitxelena-ri erran beharko diote.



Guillermo LARRAÑAGA doktorea
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFOLOGIA

- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuekin
- Tratamendu estetikoak, armiarma eta malformazioak
- Ekografia kardiobaskular diagnostikoa-Ekointerbenzionismoa
- Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak



Centro Médico Bera
San Esteban 17, Bera

Telefona: 610 549 507



Gazteek baserrietan egindako eskearekin abiatu ziren inauteriak. AINTZANE ARRETREA



Emakumeen afarian eta larunbatean mozarrotuta atera zen jendea. GORETI ANZIZAR

Umore eta giro onenarekin bueltatu dira inauteriak

Bi urteren ondotik berriro egin zen igandeko karrozen desfile ikusgarria ikustera jendetza hurbildu zen

MAIDER PETRIRENA

Igandeko karrozen desfilea-
rengatik ezagunak dira herri-
ko inauteriak, eskualdetik
kanpo batez ere, baina aitzini-
etik ere giro ederra izaten
dute, ortziraletik hasita.

Gazteek, ortziraletik goizean
inauteriei hasiera eman zioten
Aritzigain kanpinean gosari
eder batekin. Ondotik bi tal-
detan banatu eta Joxe Angel
eta Modesto akordeoilariekin
baserrietako ibilbidean abia-
tu ziren. Eguerdian, eskolako
ikasle eta irakasleek frontoian
emanaldi ikusgarria eskaini
zuten. Arratsaldean, haur eta

gaztetxoek txanda izan zen.
Frontoian DJ Iñakiren eskutik
tarte ederra pasatzeko aukera
izan zuten. Gauean emaku-
meen afaria egin zuten Uli-
beltzak elkarteak. Bertze ur-
teetan baino emakume gut-
tiago elkartu bazen ere, afari
eta giro ederraz gozatzeko
aukera izan zuten.

Larunbatean gazteek herrian
barna eskea egin zuten. Haur
eta gaztetxoek ere arratsalde
aparta izan zuten Ulibeltzak
elkartean, DJ J&J-ren eskutik.

Igandean, azkenik, desfile
ikusgarria, bazkaria eta zoz-
keta izan zuten. *Ikus erran.eus*



Igandeko karroza desfileak jendetza erakarri zuen herrira. ONDIKOL



Beti bezala, umorea izan zen desfileko ezaugarri nagusia. ONDIKOL

ola
SAGARDOTEGIA

www.olasagardotegia.eus
bileatu gure online dendak!

102 Meaka auzoa
20304 IRUN - T.943 623 130

- Bertako sagarrekin egindako sagardoa
- Euskal Sagardoa J.D. eta sagardo ekologikoa
- Asteartetik larunbatera afariak. Ostiralean eta larunbatean bazkariak ere.

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

Jarrai gaitzazu!

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

ORBELA
SENDOERDIA
BEINTZAKO OSTATUA

Idola - Mikol
Tel. 948 450 014 - BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

ANTZUZELA
S.L.

BERA • T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK

Oihangintza 2023



Baratzezaintza

Lorezaintza eta abeltzaintza

Albaitaritza produktuak

Maskotentzako osagarriak

Ehiza eta arrantza

ventabiok.com

ZELAI

«Pertsonak jartzen ditugu erdigunean»



PATXI URROZ TELLETXEA

Beharrea dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko helburuarekin sortutako mikrokooperatiba da Malerreka Common Zerbitzuak. Kooperatibako bazkidea eta sortzaileetako bat da Patxi Urroz, eta zuzendari lanak egiteaz gain, lorezaintzako lanez arduratzen da, bertzeak bertze.

ZERBITZU ANITZAK

Duela bi urte sortu zen kooperatiba: «lagun batzuk elkartu ginen eta eskualdean gizarteratze enpresarik ez zela eta beharra bazegoela ikusita, animatu ginen. Azken urteetako nire esperientziak baliatuz, lorezaintzako lanei heltzen ahal gieniela erabaki genuen».

ten dute lan batez ere, «baina Gipuzkoara, Iruñerrira eta Iparraldera ere joaten gara». Gaur egun, Lafitte enpresarekin elkarlanean ari dira Arraiozen dituzten mintegiak berreskuratzen, eta bertan dute egoitza.

«Bideak zabalduz aukerak sortuz» da kooperatibaren leloa: «pertsonak jartzen ditugu erdigunean». Aldi berean, «goi mailako profesionalen gidatuak eta bertze enprekin elkarlanean, lana ahalik eta hobekien egitea eta bezeroei behar bezala arreta ematea dugu helburu».



Garbiketak eta sasiak garbitzea
Kimaketak eta lorategiak
Bideak eta paretak
Instalazioak garbitzea (publikoak eta pribatuak)

San Pedro, 12 - Erreroa Etxea (Elgorriaga)
T. 676 53 95 30 • mcz@mcz.eus



C/ Santiago 85 | ELIZONDO
T 948 580 898
www.biokbat.com

Udaberrria dator, presta zaitez!

Aukera paregabea Landiflor lorendendan

Eskaintza zabala denboraldiko loreetan, landareetan.

Eta baita fruta-arboetan ere, loreontzi, lur ongarri eta lorategi osagarriak zuen esku.

Landiflor-en ere Venta Peio
fideltasun txartela
erabili daiteke.



Landiflor

Landiflor zure lorendenda egunero irekia: 9.00 - 12.30 / 13.30 - 19.00
Dantxarinea 31712 URDAZUBI / landiflor@ventapeio.com



Tolosako Don Bosco ikasketxean lehen iratze paper orriak egiten.

LARRETXEAK EGURRAK

Zuhaitzak erosi, bota eta ateri.
Piketeak eta sutarako egurra.



Pio Baroja, 15 | Bera | T. 617 981 427

GIZARATERATZEA ETA EKOLOGIA

Gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsonekin egiten dute lan; «gizarte zerbitzuak teknikaekin lan egiten dugu eta guk ere gizarte teknikari bat dugu». Lana eskaintzeaz gain, «bertze baliabideekin laguntzen diegu langileei; formakuntza, gizarteratzea eta batez ere bakoitzari bere beharretan laguntzen». Guttienez sei hilabete eta gehienez hiru urte egiten dute lan bertan: «epe horretan konpromiso batzuk hartzen dituzte, eta gu eskualdeko enprekin harremanetan gara bertze lan aukerak bilatzeko».

Gizarteaz gain, ingurumenaz ere arduratzen dira; «lurrak gaur egun probesten ez ditugun baliabideak ematen dizkigu. Iratzea, adibidez, gero eta guttiago erabiltzen dela ikusi genuen, eta hainbat erakunderekin elkarlanean, iratzearekin papera egiteko aukerak aztertzen ari gara». Gainera,

lore zaintza lanetatik ateratako hondakinak hobe kudeatzeko eta azpiproduktuak sortzeko aukerak aztertzen ari dira; «gizarteak hondakinak guttitzeko eta sortutakoa berrerabili edo birziklatzeko erronka geurea egiten dugu. Eskualdearekin eta trantsizio ekologikoarekin konprometituak gaude, bertze erakundeekin lan egiteko prest».

Izan ere, inguruko mendiak, basoak, bideak eta soroak zaintzea «beharrezkoa» ikusten dute; «modu jasangarrian kudeatzea geroz eta beharrezkoagoa da eta gure ekarpena egin nahi dugu». Honekin «lehen sektoreak egiten duen lana» baloreari jarri nahi dute.

Azkenik, «edozein gurekin harremanetan jar daiteke egin nahi duten lana ikusteko eta aurrekontua konpromisorik gabe prestatzeko».



Espezialistak eremu guztietan

profesionaletik profesionalera

STIHL

AGRICOLA BIDASOA

Lorezaintza eta nekazaritza makinaren salmenta eta konponketa
Auzolan, 16 - Irun - 943 627 331 - agribidasoa@gmail.com

**UDABERRIA
HELDU DA!**

JARDINERIE
ANIMALERIE **LAFITTE**

**Zuhaitzak eta
fruta-arbolak
landatzeko garaia da!**

Bertako barietateak, hemen ekoiztuak.
Loreak, tresnak, lore-ontziak,
kanpoko altzariak, maskotak...

0033 5 59 42 24 42
drive.lafitte.net
jardinerie@lafitte.net
1945eko maiatzaren 8ko
etorbidea, 84 - 64100 BAIONA

lafitte.
jardinerie

Lan egiteko manera aldatu behar izan dute osasun etxean

Langile falta dago osasun etxean, eta postu horiek betetzeko ezintasunagatik lan egiteko manera aldatu behar izan dute

TTIPI-TTAPA

Doneztebeko osasun etxeko zuzendaritzak jakinarazi duenez, langile falta tarteko lanerako funtzionamendua eta herritarrak artatzeko sistema aldatu behar izan dute.

Urtarrilaren 1etik aitzinera pediatriarik gabe daude, orain arte pediatria izandakoak arrazoi pertsonalengatik lana bere borondatez utzi duelako. Gainera, goizez lan egiten duen mediku bat bajaran dago, eta oraindik iazko opor egunak hartzeko dituzte hainbat langilek. Hutsune horiek betetzeko ezintasuna dutela nabarmendu dute, Nafarroa osoan dagoen langile falta dela eta.

Horren guztiaren ondorioz, hainbat aldaketa egin behar izan dituzte pazienteak artatzeko sistemak: osasun etxeko eta kontsultategietako arreta ordutegia 08:00etatik 15:00ak arte izanen da hitzordua dutenen kasuan. Ordutegi horretatik kanpo urgentziak artatzeko dituzte. Gainera, urgentzietako arreta ez da iriste ordenaren arabera izanen, baizik eta pazienteen larritasunaren arabera. Ordena hori zentroko profesionalek zehaztuko dute.

Mediku edo erizainarekin hitzordua hartzen den kasuan, hitzordua deitzen den egunean berean izatea nahi bada, egun horretako 08:00etatik 11:00etara deitu beharko da. Ordu tarte horretatik kanpo hartzen diren hitzorduak hurrengo egunerako emanen dituzte.

70 urtetik behera pazienteen prozesu akutu automugatu guztiak erizaindegian artatzeko dituzte lehenbizi, eta erizainak beharrezkotzat jotzen badu, medikuak ere bisitatuko du. Gainera, pediatriako zerbitzua pediatriako erizainak eta familiar dagokion medikuntza orokorreko medikuak emanen dute.

Bertzalde bi gomendio ere egin dituzte: alde batetik autotzaintzarekin hobetzen diren osasun arazo arinak daudela azaldu dute, eta horiek ez dituztela profesionalek ikusi beharrik, eta bertzetik larrialdi zerbitzuen erabilpen egokia eta arduratsua egiteko eskatu dute.

Bertzalde bi gomendio ere egin dituzte: alde batetik autotzaintzarekin hobetzen diren osasun arazo arinak daudela azaldu dute, eta horiek ez dituztela profesionalek ikusi beharrik, eta bertzetik larrialdi zerbitzuen erabilpen egokia eta arduratsua egiteko eskatu dute.

Errekako judokak Nafarroako Kirol Jokoetan lehiatzen hasi dira

TTIPI-TTAPA

Infantil, alebin eta kadete mailako judokak Nafarroako Kirol Jokoetan hasi dira. Kadete eta infantil mailakoak urtarilaren 22an hasi ziren, eta alebinak otsailaren 11n hasiko dira.

Kadeteetan Gaxuxa Zelaia eta Maialen Maritxalar lehenengo eta bigarren gelditu ziren beren kategorietan «izugarritzko maila» erakutsi ondotik. Infantiletan, Unai Irigoienek hiru borrokatan parte hartu zuen, eta bigarren aukeran *ipon* bat eginez irabazi zuen. Joanes Juanotenak zorte txarragoa izan zuen, eri zegola eta bigarren aukera eskaintzen zion borroka ez zuelako bukatu.



SPR WISLA PŁOCK

Niko Mindegia pistetara itzuli da zortzi hilabeteren ondotik

Iazko maiatzean lesio larria izan zuen Niko Mindegia. Eskuin belauneko lotailu gurutzatua eta meniskoa xehatu zituen, eta ekainean egin zioten ebakuntza. Lesioa izan eta 8 hilabeteren ondotik bueltatu da pista lagun arteko partida batean.

Mus txapelketako kanporaketa ortziralean

Ortziralean, otsailaren 10ean Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa jokatu dute 21:30ean hasita Shanti ostatuan. Irabazten duten bikoteek martxoaren 11n Iruñean izanen den herrialdeko kanporaketarako txartela lortuko dute.

Jon Maiarekin hitzordua otsailaren 16an liburutegian

Azken alean aipatu genuen bezala, otsailaren 16an Jon Maiarekin hitzordua antolatuko du Malerreka Irakurle Taldeak. Maiak idatziriko *Rio-mundo* liburua solastatzeko elkartzeko dira otsailaren 19:00etan, liburutegian. Liburuak eskuragarri daude jada.

Herencias y Gestión



Zuregandik hurbil gaude



Mugaz gaindiko herentzien onarpena



Gizarte segurantzaren pentsioen eskaera



Herentziari lotutako gatazketan bitartekaritza

Santiago 55, ELIZONDO ☎ 948 59 67 11 - 610 40 18 36

www.herenciasygestion.com • herenciasgestion@gmail.com



Aurtizko joaldunak puska biltzen. AINARA MINDEGIA



Joaldunak Iturengo plazan, Inauteri Astelehenean. ALICIA DEL CASTILLO

Joaldunak eta mozorroak harat honatean ibili dira

Inauteri Astelehenean ia ehun joaldun bildu ziren Iturenen eta biharamunean ere giro eta jendetza ederra izan zen Zubietan

TTIPI-TTAPA AURTITZ/ITUREN/ZUBIETA

Umore eta giro ederrean eta, eguraldiaren aldetik, aitzakia-rik gabe joan dira inauteriak Aurtitz, Ituren eta Zubietan aldean. Ohi bezala, herri bakoitzean beraien puxka biltzeak eta ibilalditxoak eginez hasi ziren joareak astintzen, astelehen eta astearteko egun handiak bitarte. Astelehenean, Iturengo plazan kasik ehun joaldun eta hainbat mozorro bildu ziren, inguruan elkartu zen jendetzaren gozamenerako. Bi urteren ondotik (2021ean ez ziren atera joaldunak, ofizialki bederen, eta iaz ezin izan zuen, arrazoi pertsonalengatik), berriz ere Lazaro Erregerenak gidatu zuen taldea. Mozorroetan, denetatik: *Inkisizioa Ittunan*, *Irulegiko eskua* euskarari erreferentzia eginez... Imajazioak lan handia egiten du egun hauetan eta naturak edo ganbarak ongi hornitzen ditu inauterizaleak.

Inauteri Asteartean, berriz, Zubietako plazan izan zuten hitzordua joaldunek eta alde-rantzizko bidea egin zuten, Iturendik eta Aurtiztik, Ezku-

rra errekan goiti. Bezperan baino guttixeago baldin baziren ere, joare burrunba ederra hedatu zuten bazterretan. Zubietan ere mozorroak gus-tura ibili ziren bereak eginez: pinu adarrez egindako heren-suge 'txinatar' luzea, ile apain-degi edo estetika zentro 'do-torea' eta beste hainbat.

Ettxekoak eta kontuak

Kanpotar gehien erakartzen dituzten egun horien ondotik, neguko bestak segida izan zuen etxekoentzat. Asteazkenean ere ibili ziren puska biltzen bakoitza bere herrian eta Zubietan kontuen eguna izan zuten.

Iturenen larunbatera arte esperatu zuten kontuak egiteko, baina egun handia izan zuten orduan ere: dantzak, herri kirolak, bazkaria Iker Zubeldia eta Miren Amuriza bertsolariekin eta Mikel Salaberri akordeoilariarekin eta gauean afaria. Aurtitzen zaharren bazkaria eta dantzaldia egitekoak zituzten larunbatean eta igandean kontuak, bazkariarekin, aurtien ere dotoreak izan diren inauteriak akitzeko.



Gutti behar da musika jotzeko eta ongi pasatzeko. AINARA MINDEGIA



Joaldunak Lasagako zubian elkartzen, Inauteri Astelehenean. UNAI BEROIZ



Mozorroek ere giro polita jarri zuten Iturenen eta Zubietan. UNAI BEROIZ



Joaldunak Zubietako plazara sartzen. IZASKUN ZUBIALDE



Jendetza bildu zen ikuskizunaz gozatzerara. IZASKUN ZUBIALDE



Mozorroek ere umore ederra paratu zuten. IZASKUN ZUBIALDE



LEIRE MARIEZKURRENA

Euskal Herriko mus txapelketa Zubietan

Lau bikotek parte hartu zuten urtarrilaren 21ean eta Isabel Elizalde eta Leire Mariezkurrena suertatu ziren garaile, finalean Fermin Etxekoloneari eta Ernesto Dominguezi irabazita. Irabazleak izanen dira Zubietako ordezkariak martxoaren 11n jokatu den Nafarroako finalean.



JAIONE ZABALO

Ezkurrako jubilotekan opariak

Astero elkarrekin biltzeaz eta zenbait ariketa, jarduera eta joko egiteaz gain, Ramoni Ordokik gidatzen duen Ezkurrako jubilotekako kideek opari artean hasi dute urtea. Erregeen etorrera ospatu zuten eta lagun ikusezinean parte hartuz, elkarren artean opariak banatu zituzten.

Ospatu zure jaunartze besta leku berezi batean. Jantoki pribatuak eta menu aukera zabala.

Errotaldea z/g 31744 ELGORRIAGA (Nafarroa) | T. 948.45.60.45 | www.balnearioelgorriaga.com



Urteko lehen irteeran parte hartu duten mendizaleak. UTZITAKOA

Donezteben egin dute urteko lehen irteera mendizaleek

Malerrekako txokoak ikusi zituzten mendizaleek lehen irteeran. Hurrengo Beran egingen dute, otsailaren 21ean

TTIPI-TTAPA

Urtarrilaren 17an Donezteben egin zuten urteko lehen hitzordua Arkupeak Elkarteko mendizaleek Teresitak eta Julianek antolatuta. 09:00etan atera ziren Doneztebeko Merkatu plazatik, eta San Miguel basilizan barrena Askingo antenetara joan ziren. Euria dela eta, ez zuten bista izugarririk izan, baina lainoak apartatu zirelako Elgorriaga eta Donamaria ikusteko aukera izan zuten.

Handik Bostorratzera joan ziren eta Jose Ignazio Telletxeak lurreko suarekin berotutako

Elgorriagako ehiztarien txabolara sartu ziren gosaltzera. Bertan, bakoitzak etxetik zer bait eramanda gosari ederra egin zuten. Atera zirelarik elur bustia eta haizea zen, baina pixka bat atertu zuenean Arantzak aldera doan pistatik Sunbillako Arretzeko bordara jaitsi ziren eta handik Sunbillara. Ondotik, bide berdetik Doneztebera itzuli ziren. Denora, hiru ordu eta erdiko bidea egin zuten oinez. Eguna bukatzeko, Santa Maria jatetxean bazkaldu zuten elkarrekin.

Hurrengo ateraldia otsailaren 21ean egingen dute Beran.

Elkarterako delegatu berria behar dute Arizkun

TTIPI-TTAPA

Orain arte Arizkongo delegatua izan den Inocencia Sukilbidek delegatua izateari utzi dio berriki. Delegatu izan den denbora egindako lan dena eskertu nahi dio elkarteak, eta bere hutsunea betetzeko bertze pertsona

bat beharko dela jakinarazi dute.

Arizkongo delegatua izan nahi duenak bere burua aurkeztu beharko du kargurako, elkartera telefonoz deituta edo Doneztebeko bulegora azalduta martxoaren 31 baino lehen.

Otsailaren 16rako egun pasa antolatu du elkarteak Malerrekan

TTIPI-TTAPA

Otsailaren 16rako, ortzeguna, egun pasa antolatu du elkarteak Malerrekan. Goizean, Elgorriagako Euskal Artzainak Ameriketako museoan bisita izanzen dute eta gero bazkaria eta ikuskizuna Doneztebeko Santa Maria jatetxean. Irteera ho-

rretaz gain, apirilaren Kantabriara joanen dira eta izena emateko epea otsailaren 13an eta 14an izanen dute.

Bertze ohar bat ere eman nahi du elkarteak. Buletineko ale batzuk gaizki grapatuta daude, eta berria nahi duenak bulegoan eskatu dezake.

Arantzán, Beran eta Elizondon egingen dituzte otsailean txapelketa eta otorduak

TTIPI-TTAPA

Aitzineko aldizkarian aipatu genuen bezala, herriz herriko bestak eta mus txapelketak egiten hasiak dira elkarteko bazkideak. Lehenengo txapelketak jokatuak dituzte eta egiten hurrengoak aranzarrak izanen dira. Aterpen egingen dute bazkideen bazkaria eta ondotik mus txapelketa otsailaren 12an, igandean.

Biharamunean, otsailaren 13an, astelehena, Irungo, Berako eta Ipar Euskal Herriko bazkideen txanda izanen

da. Zalain jatetxean elkartuko dira.

Elizondoko, Elbeteko, Lekarozko, Gartzaingo eta Irurita-ko elkarteko bazkideek mus txapelketa otsailaren 21ean, asteartea, egingen dute Saioa ostatuan, eta otordua berriz ortziralean, hilaren 24an.

Herriz herriko txapelketako lehenengo, bigarren eta hirugarren sailkatuak martxoaren 16an Donezteben jokatu den finalerako sailkatuko dira. Gainera, herriz herriko lehiaketan ere sari ederrak ere izanen dituzte.



UTZITAKOA

212 bazkide sagardotegiko irteeran

Urtarrilaren 26an egin zuten urteko lehen irteera bazkideek Urnietako Oianume sagardotegira. Denora 212 lagun joan ziren sagardotegira, eta sagardoa probatzeaz gain Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolarien jardunaz gozatzeko aukera ere izan zuten.

Inauteriak 2023

Agantzi



Agitaraua

Otsailak 10, ortziralea

10:00etatik aitzinera mozo-
roak etxez etxe eskean ibiliko dira
egun guzian, herriko txokoak eta Ber-
rizaun, Frain eta Sarrola auzoak dan-
tza, musika eta umorearekin alaitzen.
Arratsaldean haurrentzako jo-
koak eta merienda izanen dira, Gura-
so Elkarteak antolatua. **Arratsean**
eskean aritu direnak afaria izanen dute
Biltokin.

Otsailak 11, larunbata

08:00etan mozo-roak eskean abia-
tuko dira herriko etxe eta baserrieta-
ra, trikitixa eta panderoaz lagunduak.
Eguerdian haur eta helduentzako
bazkaria izanen da Biltokin, Guraso El-
karteak antolatua. **Ondotik** dantzal-
dia izanen da frontoian DJ Endararen
eskutik. **Arratsean** eskean aritu
direnak afaria izanen dute Biltokin.



OKILA

Zurgindegia

- tarimak, leihoak, ateak, eskailerak...
- obretako lanak orokorrean

Lander Seis

Ongi pasa inauteriak!

607 88 39 68 - lander@okila.eu
Piedadeko auzoa, 32 - IGANTZI



IGANTZIKO UDALAK
inauteri zoriontsuak
opa dizkizue igantziar
eta bisitari guztiei





ZUMARBEL
creaciones metálicas
Igantzi (Navarra)
948 63 74 11



Lehen A.T.M. S.A
Berrizaun 25,
31790-IGANTZI
T. 948 63 74 11
zumarbel@hotmail.com
www.zumarbel.es



**IZARRA
OKINDEGIA**

ongi pasa inauteriak!

PLAZA ZAHARRA 12-13 31770 LESAKA NAFARROA
TEL: 948 637 855

SAN FERMIN OSTATUA

ongi pasa
inauteriak!

Plater konbinatuak
Eguneko menua
Asteburuko menua



Beheko plaza, 9 Lesaka
948 62 75 12

ZANTZONEA JATETXEA

**Gosariak, bazkariak,
afariak, pintxoak,
bokatak, errazioak.**

ongi pasa
inauteriak!



Bittiria Kalea, 3 - Lesaka

KASINO

OSTATUA - RESTAURANTE



ongi pasa
inauteriak

Plaza Zaharra - 948 63 72 87
LESACA

Lesaka

Egitaraua



Otsailak 16, ortzeguna

Goizean haurrak Arraultze arraultze ibiliko dira.

Otsailak 17, ortziralea

16:30etik 18:00etara Plaza Zaharra apainduko dute eta aurpegi margoketa izanen da. **18:00etan** txokolatada. **Ondotik** karaokea eta **akitzeko** Zortziko erraldoia. Aurten mozorratuak joatera animatu dute.

Otsailak 19, igandea

Goizean goitarrak Auzoberri, Endarra, Zala, Katazpegi eta Nabazen barna baserriz baserri eskean. **17:00etan** zaku-zahar ttikien kalejira pilotalekutik

abiatuta Lesaka Trikitixa Taldearekin. **18:00etan** dantzaldia plazan Trikiti dantz taldearekin. **19:00etan** zaku-zaharrek herriko pilotalekutik abiatuko dira Lesakako Musika Bandarekin.

Otsailak 20, astelehena

Goizean fraindarrak Otsango eta Frainen barna baserriz baserri eskean. **Eguerdian** fraindarrak eta mo-zorroak herrian zehar. **18:00etan** dantzaldia Plaza Zaharrean Bada Giro taldearekin.

Otsailak 21, larunbata

Goizean fraindarrak Izotzaldean barna baserriz baserri eskean. **Arratsaldean** herrian zehar.

asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentzioarako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO 948 581 300 - F. 948 580 648
Ertegarra pasealekua, 22-1 31780 BERA 948 631 108
Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE 948 450 395 - F. 948 451 304
Eitzeta, 20 31770 Lesaka 948 638 077

«Neguko iluntasunetik udaberrira pasatzearen seinale dira inauteriak»

Mattane RODRIGUEZ ETXABIDE

Lesakako zinegotzi eta inauterizalea

«Gogotsu eta ilusioz» bizitzen ditu inauteriak Mattane Rodriguez Etxabidek. Izan ere, Lesakako udaleko kultura zinegotzi izateaz gain, inauterizalea dela ere erran daiteke. «Urteko bestarik politenak izaten dira inauteriak nerezako -dio-, negu gorriko iluntasunari aio erran eta udaberriko argia eta loratzea heldu diren seinalea direlako».

Inauterietako egun bakoitzean moztortzen da, «egun bakoitzak bere berezitasuna du. Azken urtetan zaku-zaharren inguruan ibiltzen naiz, mai-ru moztorroaz jantzita, zakuak josten, urratzen, behar denean laguntzen. Gustura egiten dugu hori baina lan handia izaten da. Jendeak zaku-zaharrez atera nahi izaten du baina horretarako zakuak josteko jendea behar izaten da. Zakuakin ez naiz sekulan moztortatu baina zeinek daki, akaso noizbait...», dio Mattanek.

Inauterietako bertze talde batekin ere ateratzeko ohitura izan du Mattanek: «Goitarrekin ere aterikatu naiz inauterietako igandean, eta beraiekin baserri egindako eske hori hagitz berezia izaten zen, baserri guzietan dantzatzeko delako, trikitixa, kastañuela eta kaskabel soinuekin, eta besta ere-



du ezberdin bat izaten delako. Ostuetan egiten dugun besta, urte guzian egiten ahal den zerbait da, eta, aldiz, bertzea ez. Etxe hoietara ere inauteria «eramaten» da horrela, eta bertako harrea hagitz ona izaten da».

Azken urtetan, ortziralean haurrentzako jarduerak sustatzen ari dira udaletik. «Ortzegun gizenean Arrautze-arrautze eskean ibiltzen dira umeak eta ortziralean beraientzat bertze zerbait antolatzea pentsatu genuen. Harrera hagitz ona izan du eta horregatik aurtengo ere antolatu dugu. Hau herriko gurasoen laguntzarekin egiten dugu». Bertze ekarpena kartel lehiaketarena izan da, «hiru urtez antolatu dugu eta lan original aunitz aurkeztu dira».

ARRANO
ostetua

Abileta 13, Lesaka. 948 637 597

KOKETAK, PINTXOAK, BOKATAK,
BINTSALAKAK, PLATERE KONBINTUAK
ha gure ibilbidea
PINTXO TA BINTSALAK ETXABIDE

IÑAKI JANARIDENDA

ONGI PASA INAUTERIAK

Arretxea, 12 • LESAKA • 948 638 287

LIDERA

HORTZ KLINIKA • ESTUDIO DENTAL

Iturrumazubiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA (Na)

Tel. 722 662 478 | lidera@hortzklínika.es

@liderahortzklínika



Antoiu

OSTATUA

07:00etatik
aitzinerira irekia.

PINTXOAK
BOKATAK
PLATERAK

Ongi pasa
Inauteriak!

Antoiu, 17-LESAKA | 948 63 73 93 - 631 02 79 50

2023KO
INAUTERIAK
LESAKAN



Lesakako Udala

LESAKA
gara

Ongi pasa inauteriak!

OTSAILAREN 16TIK 21ERA

XAGU
LIBURUDENDA

Tel. / Fax 948 638 232
Koskonteko bidea, 7
(osasu-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEROK GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USDUK EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK



Doneztebe

Egitaraua

Belarra jatetxea

ONGI PASA
INAUTERIAKI



Amezti zeharkarria, 3 - 31740 DONEZTEBE
T. 948 450 306 - www.restaurantebelarra.com

Arozena
ostatu · jatetxea

Gosariak
bazkariak
eta afariak
ongi pasa
inauteriak!

T. 948 450 443
Leitzako errep., 84 - Doneztebe



Amezti, 7 - Doneztebe - Tel. 948 450 271

GARMENDITX

TXIRRIDULEN SALMENTA, KONPONKETA ETA ALOKAIKIRIA.

Rosa Seminario, 13 eta eta Amezti zeharbidea 4. - DONEZTEBE
www.garmenditx.com - @garmenditx



MINIESKABAZIOAK

MINIESKABAZIO eta GARRAIO LANAK
enpresa eta partikularrentzat

Ezpelura, 1 - DONEZTEBE - T. 616 513 491

EDERKI tailerra



CITROËN
ZERBITZU OFIZIALA

'Latigillo' hidraulikoen moldaketa
PEUGEOT MARKAN ESPEZIALISTAK

24 ORDUZ GRUA ZERBITZUA

ongi pasa inauteriak!

Leitzako bidea - DONEZTEBE - 948 450 525



Otsailak 16,
ortzeguna

Gauean gazteen afaria.

Otsailak 17,
ortziralea

Egun osoan gazteak baserri
eta auzotean ibiliko dira eskean,
arratsaldean Elutxa txarangarekin.

11:00etan eskolako haurren des-
filea herritik barna, eskolan bukatuz.

16:30ean txokolatada, musika,
sorpresa, photocall... eskolako ater-
pean.

Otsailak 18,
larunbata

16:30ean mozerro eta karrozen
desfilea Aparanetik abiatuta.



«Ea gure adineko jende gehiago animatzen den inauterietan»

Patxi APEZETXEA

Doneztebeko inauterizalea

35 urte daramatza Patxi Apezetxea Apezetxeak Donezteben, bizi erdia baino gehiago. Hasieran «estudioengatik» utzi zuen sorteria, gero «lanarengatik», eta gaur egun bere emaztea dena ezagutu zuenean Donezteben segitu zuen bizitzan. Hantxe osatua du bere kabia, eta «dudarik gabe, doneztebarra» sentitzen dela aitortu du. Hala ere, ezin aipatu gabe utzi sorteria, berarekin solasean hasi orduko agerikoa baita sortzez goizuetarra dela.



«Langilea, lagunaren laguna eta festazalea» da Apezetxea, eta bereziki inauteriak maite ditu. «Herriko festak ederrak dira, baina inauteriak hobeak direla esanzen nuke, nahiz eta niretzat egun bat izan». Aurtengo Doneztebeko inauteriei begira ere hasia da eta segur aski larunbateko desfilerako karroza izanen du begiz joa. Hori baitu «inauterietatik gustukoena. Desfilean giro polita izaten da eta niretzat hori da egunik politena; larunbatean parranda txiki bat egin eta astelehenean lanera». Ilusioz hartzen ditu urtero inauteriak eta ilusioz aritzen da karroza prestatzen: «Hilabete bat lehenagotik hasten gara. Oker-okerrera zer egin erabakitzea izaten da». Gaineratu duenez, «karroza egiterakoan hiru lagun biltzen gara, baina gero 25 bat izaten gara. Lehen, umeekin ateratzen ginenean, gehiago biltzen ginen, kristoren kuadrilla. Gero umeak beraiek hasi ziren eta gu gelditu gara».

Karrozaren egitura egiteko «hiru lagun nahikoak» direla dio: «Lanetik etorri eta gauez aritzen gara, egunaren arabera ordu pare batez edo hiruz. Jendea laguntzeko prest izaten da, baina zenbat eta jende gehiago orduan eta nahiago, tertulia gubxiago egiten dugu eta gehiago aurreratzen dugu». Hala ere, «beste lanak izaten direla» azpimarratu du; «arropak, adibidez. Eta batzuetan margotzeko eta dekoratzeko jendeari etortzeko esaten diogu».

Ez ditu ahaztuak urteotan egindako karrozak: «Familia izan genuenean segitzea erabaki genuen, umeak gurekin etortzeko, eta haiekin egin genuen lehenbizikoa bikingoen barkua izan zen». Geroztik «lan asko» eginda, karroza dotoreak ateratu dituzte, eta horien artean «bapozeko tren» gogoan gelditua du: «Txispasek erlojuarekin eta trenak kea eta guzi ateratzeko kristoren lana egin zuen. Umeak beraien mailetekin ateratu ziren. Oso polita izan zen». Karroza hark herriatik kanpo ere ikusmina piztu zuen: «Tolosako inauterietara eraman nahi izan zuten, baina haundiegia zela eta, ezin izan zuten».

Aurtengo karrozarekin ari dira, baina zer izanen den ez du argitu; «nahiago dut sorpresa izatea». Ikusi nahi duenak otsailaren 18an izanen du aukera. Han izanen da Apezetxea tartean, lehenagotik lagunartean «presaka» bazkaldu eta 16:00etan desfilerako prest. «Gero 18:00-19:00 aldera karroza utzi eta pintxo batzuk janzte parrandan segituko dugu». Eta beraiekin bat egin nahi duenak ateak zabalik izanen ditu: «Ematen du inauteriak gazteentzat bakarrik direla, ba ez. Gure taldera edozein etortzen ahal da. Azken batean dantza pixka bat egiteko eta barre egiteko biltzen gara, eta ea gure adineko jende gehiago animatzen den, inauteriak ederrak dira eta».

erran.
eus

Mendaur Motor

Kotxe salmenta | Marka guztiak



Leitzako bidea • DONEZTEBE
Tfn: 948 450 333
www.mendaurmotor.com



INAUTERIAK, INAUTERIAK,
ARATUSTEAK, INOTEAK...
TXUKUNTASUNEZ ETA ERRESPETUZ
ELEGANTE PASATZEA OPA DIZUE
DONEZTEBEKO UDALAK
HERRITAR ETA BISITARI GUZTIEI





TXOKOTO
TABERNA

INTZA
TABERNA



T. 948 580 417

**BOKATAK
PINTXOAK
RAZIOAK**

Ongi
pasa
inauteriak!

Mendi
ostatua



Eguneko menua - Bokatak
Pintxoak - Razioak - Pizzak

Deitu eta egin erreserba!

Goizeko Betatik gauerdirarte
T. 948 580 313

Goizalde
ostatua



Ongi pasa
inauteriak!!

Pintxoak
Eguneko menua
Karta
Plater konbinatuak
Ogitariekokoak
Entsaladak
Hamburgesak
Errazioak



Salme Urrutia 8 • ELIZONDO • Tel.: +34 948 58 13 34 • goizaldeostatua.com



ANZABAL
Inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserrri, berrak, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...



Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Elizondo

Egitaraua

Otsailak 16,
ortzeguna

10:00etan kalejira Saskaitz plaza-
zatik abiatuta (Santiago karrika, adi-
nekoen egoitza, Jaime Urrutia karri-
ka). **11:00etan** jokoak plazan eta
frontoian. **13:00etan** bazkaria.
15:00etan oilar dantza Iriarte fron-
toian. **16:30ean** merienda frontoian.
17:00etan dantzaldia Joxe Angele-
kin frontoian.



Otsailak 17,
ortziralea

09:00etan puxka biltzea gazte-
tietatik abiatuta, Andrea eta Goiatzek
trikitixa eta panderetarekin alaitua.
16:00etan haurren desfilea ikasto-
lako parketik abiatuta. **17:00etan**
txokolatada plazan. **Ondotik**
dantzaldia Hauspolariekin plazan.
20:00etan danborrada Herriko
Etiketetik abiatuta.



Otsailak 18,
larunbata

11:30ean organ eta mozorroren des-
filea ikastolatik abiatuta. **18:00etan**
dantzaldia aizer DJarekin plazan, gaz-
teek eta ez hain gazteek irauin arte.



«Denbora luzean ikusi ez duzun jendearekin elkartzeko besta da»

Beñat VERDE MUGIRO
Elizondoko karguduna

21 urteko elizondoa gaztea da Beñat Verde Mugiro, «inplikaturia eta bestazalea, inguruko jendea zaindu eta maitatzen duena». Elizondo maite du eta «saltsa guzietan egotea eta inplikazio handiz erantzutea» du gustuko, hortaz, Besta Komisiona sartu zen joan den urtean, eta Elizondoko alkatetza taldean aurten. Azaldu duenez, «herri batek bizirik iraun eta aitzinera egiteko, ezinbertzekoa da herritarren parte-hartzea. Egia da Elizondo arras bizirik dagoela eta gazte gehienek laguntzen dutela, baina lan handiko datak hurbiltzean laguntza guziaz ongi etorria da».



Besta komisiona ardurak banatzen dituzte; «bakoitzak nori deitu eta gainerakoak denen artean eginez». Herriko taldean, berriz, «sare sozialak eramatea ditut, baina ez daukat bertze ardura zehatzik». Inauterien antolakuntza ari dira orain lanean, «baina herriko bestekin edo feriekon konparatuta, erran daiteke ez duela ia lanik suposatzen. Hala ere, dena bikain ateratzea nahi badugu, gauza txiki aunitz egin behar ditugu».

«Herri batek bizirik irauteko, ezinbertzekoa da herritarren parte-hartzea»

Antolatu ondotik, inauteriez gozatze-ko momentua izanen du: «48 orduko besta luze eta intentsoa da, denbora luzean ikusi ez duzun jendearekin elkartu eta tarte goxo bat partekatze».

Azken urteetan, Elizondoko gazteek puska biltzearen ohitura berrartu dute; «goizean goiz bakoitzak bere lagunekin gosaria egin ondotik, gaztetxean

biltzen gara denak, eta herriari buelta ematen diogu kantatuz, dantzatuz eta puxkak eskatuz, trikitixa eta pandere-tak alaiturik. Arras egun polita izaten da, adin guzietako gazteak elkarrekin ibiltzen baikara. Ibili izan naizen urteetan analitasun handia sentitu izan dut, eta horrek poz handia ematen du».

Honez gain, danborradan parte hartzen du Verdek, eta «nahiz eta azkeneko urteetan ezin izan dudan larunbateko desfilean atera, aurten bai. Ez gara aunitz izanen, batzuk kanpoan edo lanean egonen direlako, baina hala ere ateratzea erabaki dugu, eta egia erran arras gogotsu nago». Horretarako, lehenbizikoa dena prestatzea beharrezkoa da; «aurten Eguberriak pasatuta segidan hasi ginen orga prestatzen, baina gaia pentsatzen hilebate batzuk lehenago hasi ginen».

Azkenik, herritar guzietan eskaera egin die «egun hauek errespetuz bizitzeko, aunitzez gehiago disfrutatuko baitugu denok».

Ongi pasa inauteriak!

ESKISAROI

J A T E T X E A

Elizondo / T. 948 580 013 / www.eskisaroi.eus

ELBETEKO POSADA

Ongi pasa inauteriak!

- Eguneko menua aste tarteaz
- Karta zabala eta sasoiko plater bereziak
- Asteburuetan karla
- Slow Food eta KM 0

ELBETE • Karrikaundi • T. 948 581 519
info@posadaelbete.com • www.posadaelbete.com

Suteia-Zaldain

PROFESIONALAK
KALITATE-BERMEA
IRISGARRITASUNA
MANTENTZE LANAK

15 Urteko esperientzia

instalazioak
IGOGAILUAK

Santiago, 71 | ELIZONDO
T. 948 580 166 | M. 619 424 999
suteia@suteiazaldain.com

1 KANPOKO IGOGAILUAK

Kanpoko fatxadan guztiz integratuak, portal barrutik sarbidea, inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.

2 BARRUKO IGOGAILUAK

Eskailerako tartean integratuak. Sarbidea portal barrutik, inongo oztoporik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gurgil-aulkian daudenentzako egokitua.

3 IRISGARRITASUNA

Mugikortasun arazoak dituzten eta gurgil-aulkian daudenentzako portalerako sarbidea egokitzen dugu. Azkar egiten ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.

EZ ZAITEZTE KEZKATU! Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, diru-laguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatuz.



Pinturas
Iñaki Alzuyet
margoak

Tel: (0034) 659 862 417
31711 URDAZUBI (Na)

- ☐ Fatxaden zaharberritzea
- ☐ Barne-dekorazioa
- ☐ Isolamenduak pladurrean
- ☐ Pintura industriala
- ☐ Egurra eta altzarien lakatze eta berrizatzeta kabinan

pinturasalzuyet@gmail.com

Urdazubi

Egitaraua

Otsailak 19, igandea

09:00etan gazteen gosaria Gauñara elkartean, aurtengo moztorroen gaia: baserria. **Ondotik** Dantxarineko bentetan barna ibiliko dira musikarekin. **21:30ean** pintxoak eta musika Gauñaran, moztorrotuak etorri!



Otsailak 20, astelehena

09:00etan gazteak elkartu eta etxez etxe ibiliko dira musikarekin. **09:30ean** gaztetxoan etxez etxe abiatuko dira musikarekin. **21:30ean** pintxoak eta musika denontzat Gauñaran.

Otsailak 21, asteartea

09:30ean gaztetxoan elkartu eta etxez etxe abiatuko dira musikarekin. **12:00etan** gazteak etxez etxe abiatuko dira musikarekin. **21:30ean** pintxoak eta musika Gauñaran.



Urdazubiko Udalak
inauteri zorientsuak
opa dizkizue
urdazubiar eta
bisitari guztiei!



JOSENEA
ZONE AUTO

ZURE ZERBITZURA:

• Binketa- • Enbragea • Osoa aldatzea
• Buzketa- • Bolantak • Pneumatikoak
• aldatzea •

KALITATEKO MANTENTZE-LANAK
PREZIOZIK ONENEAN

Garbiketa-zerbitzua • Gasolindegia • Auto-garbitegiak • Talo mekanika
autoentzara

Hitzordua telefonoz
edo whatsapp bidez:
+34 608 791 971

+34 948 599 236 • www.josenea.es • centreauto@josenea.es

TALLERRAREN ORDUTEGIA: Astelehenetik ortziralerara : 08:00 - 13:00 eta 14:00 - 18:00

Gasolindegia ORDUTEGIA: 24ordu/24.

Josenea Zone Auto (Dantxarineko muga)
Ctra. N-121-B Km 72,5 Dantxarinea Nafarroa.



Montxo
JATETKEA • ERRETEGIA



Tradizioa, historia eta gastronomia

asadormontxo.com



Axular karrika, 12
31711 Urdazubi-Urdax (NAFARROA)
+34 848 85 00 21
info@asadormontxo.com

«Urteko bestarik berezienak dira, motzak baina intentsoak»

Iraia JAURENA ETXART
Urdazubiko gaztea



«Urdazubian bizi den eta herriko eta inguruko saltsetan inplikatzeko maite duen neska gaztea» da Iraia Jaurena Etxart. Bere zaletasunak «musikarekin lotuak» dira; euskal dantzetan aritzen da eta trikitixa jotzen du. Gainera, «mendia eta naturaz gozatzea» maite du, «lagun artean baldin bada, hobe». Eta hau guztia egiteko, aukera ezin hobe du inauteriak.

«Urtero izaten da norbait moztorro aski ona prestatu edo gaiari zukua ateratzen diona»

Baina besta egin aitzinetik, antolatu behar dira. Urtero aldatzen dute Urdazubiko Gazteen Komitea eta aurten Jaurena sartu da, «aurten herrian bizi naiz eta nire adin inguruko jendea dagoenez, animatu naiz». Hala ere, «gazte guzaien arteko bozketarekin hautatzen dugu nor sartuko den».

Bortz lagunek osatzen dute komisia, «23-27 urte artekoak». Inauteriak eta herriko bestak antolatzeaz arduratzen dira, baina «gazte guzaien ordezkariak» dira, eta «denen lana eta laguntza beharrezkoa da». Inauterien prestaketekin buru-belarri ari dira orain; «covid egoera normalizatu den bezala, lehenagoko hiru eguneko formatura itzuliko gara, hortaz, etxetara deitu, musikariekin harremanetan jarri, gaueko dantzaldia

antolatu... behar dugu». Hala ere, bestetako antolakuntzarekin konparatuta «lan handia ez dela» aitortu du; «inauteriak besta egiteko eta ongi pasatzeko aroberatzatzen ditugu».

Azken urteetan moztorrotzeko gaia paratu izan dute, «prestatzerakoan idelak errazago izateko, hala ere, guztiz libre da». Aurtengo gaia 'baserria' da.

«Urteko bestarik berezienak» dira inauteriak Jaurenarendako, «motzak baina intentsoak: hiru eguneko gazte guztiak elkartzen gara, etxetik etxetik ibili eta bertakoak agurtzen, giro ezin hobea». Jendearendako egun bereziak astelehena izaten dela dio, «baina nik egun guztiak maite ditut». Gainera, «urtero izaten da norbait moztorro aski ona prestatu edo gaiari zukua ateratzen diona, eta dibertigarria izaten da bakoitzak zer prestatu duen ikustea».

Inauterietako giroa mantentzea herri-tarren esku dagoela dio, «duela urte aunitzetako formatua segitzen dugu, baina egia da jende kopurua behe-ti doala». Hortaz, «herri-tar guztiak animatu nahiko nituzke hurbiltzera, denon artean inauteri ederrak pasatzeko!»

VENTA
ZUBIONDOA
Ostatua, supermerkatua, denda

Landibar, 7 Urdazubi • Tel. 948 599 041
www.zubiondo.com • zubiondoasa@gmail.com

SANTIAGO VILLARES S.L.
Ongi pasa inauteriak!



LUZERNA-PENTSU ETA FORRAJEAREN
SALMENTA ETA ESPORTAZIOA
LASTOA
LUZERNA

Móvil (Santiago Villares): 609 415 777
T. (0034) 948 59 91 34
Fax. 948 59 91 56

info@santiagovillares.com
www.santiagovillares.com

ARRET XEA
ESTANKOA



ZIGARRO
PURUEN CAVA



BUREAU DE TABAC



DANTXARINEA (Urdazubi) | T. 948 599 018 | F. 948 599 015 | estancoarrechea@yahoo.es

MARITX

INGENIARITZA ELEKTRIKOA • BOLETIN INDUSTRIA
PROIEKTU ELEKTRIKOAK • INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Ongi pasa inauteriak!

T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

3. Estankoa

Urruñ Plaza 1, behe
BERA • T. 948 63 16 37

Ainhua Altzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean • Herentziak
Alokairuak • Arazo administratiboak
Zerbitzua euskaraz ematen dut.
Deltu hiltzordua hartzeko

Legia 42, BERA • M. 630 97 21 89 •
ainhoaaltzuguren@gmail.com

ZUBIONDO

JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK...

T. 948 625 472
Alata karrika - BERA
zubiondojatetxea.com

Ansonea ostatu
jatetxea

Ongi pasa inauteriak!

T. 948 63 01 07 Foruen plaza, 1 - BERA

Jauzena

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak

Denda: 948 631 217
T. 630 135 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Ongi pasa inauteriak!

KATEA BIKE

Bizikleten
salmenta eta
konponketa.

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

LOGOVARO BH PINARELLO MARIPOSA
MOUSTACHE DERCAMONT SCOTT COLNER

Bera

Agitaraua

Otsailak 15, asteazkena

18:00etan Isidoro Fagoaga Udai
Musika Eskolako ikasleen inauterietako
kontzertua Kultur Etxean.

Otsailak 16, ortzeguna

Goizean haurren zingar arrautze
eskea herrian barna. **15:45ean** haurren
Inudeen eta Artzainen desfilea eta
karrozak suhiltzaileen parketik hasita
Eztegara pilotalekuraino. **Ondotik**
parte hartzaileentzako merienda Kultur
Etxean.

Otsailak 18, larunbata

19:00etan Kaldereroen desfilea ille-
kuetatik Herriko Etxeko plazara. Parte
hartzaileak ordu erdi lehenago egon
beharko dira prest illekuetan kalejira
hasteko. Eguraldi baxarra bada, Alza-
teko frontoian egingen dute zuzenean
ekitaldia.

*Entsegua otsailaren 14an,
asteartea, 20:00etan, Isidoro Fagoaga
Musika Eskolan.



Otsailak 19, igandea

10:00etatik aitzinera Inu-
deen eta Artzainen desfilea herrian
barna Eztegara pilotalekutik abiatuta.
18:00etan Inudeen eta Artzainen
desfilea Eztegara pasealekuan hasita.

*Entsegua otsailaren 14an, asteartea,
eta 17an, ortziralea, 19:30ean Toki Ona
Kiroldogan.

Otsailak 20, astelehena

Goizean zingar arrautze eskea
baserrietan. **Egunean zehar** ka-
rrozak herrian barna. **18:00etan**
hasita Bide batez taldea Toki-Onako
estalpean.

Alberto RETEGI

abokatua

948 630 763
Altzate, 17
BERA

zalain

JATETXEA - RESTAURANTE

Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
www.zalain.info

DESIN BERA

DESINSEKTAZIOAK
ARRATOI-HILTZEAK
EGUR TRATAMENDUAK
DESINFEKZIOAK
HEGAZTIEN KONTROLA

Ongi pasa inauteriak!

T. 948 625 597
Zalain, 42 B • BERA



Elixabet IRAZOKI ZELAIETA
Berako gaztea

«Ikusteak baino grazia gehiago dauka parte hartzeak»

Inudeen eta Artzainen desfilearen antolaketan buru belarri murgildua dago Elixabet Irazoki beratarra. Gure Txokoa Dantza Taldeko kidea da, eta dantza taldea izaten da desfilea antolatzeko arduraduna. Eguna antolatzeko kultur eragileekin elkar lanean aritzen direla kontatu du Irazokik: «eskaerak egin, entseguak antolatu, kartelak eta deialdiak zabaldu, bazkaria antolatu, arropa kudeatu...». Egiteko lan horiek izaten dituztela kontatu du.

Inauterietako igandea «egun berezia eta alaia» da beretzako. «Batzuk bestondoa ezin garraiatu ibiltzen dira, eta bertzeak aldiz goizean goiz gosalduta eta indarrarekin egoten dira, denetarik izaten da eta horrek du grazia; denek musika eta dantza karriketan zabalteak».

Gainera, herritarrak Inudeen eta Artzainen desfilean parte hartzera gonbidatu ditu: «Ikusteak baino grazia gehiago dauka parte hartzeak», dio. Horretarako, modu bat baino gehiago daudelaz azaldu du: «Badago gogo eta gustu diferenteetarako aukera: nahi bada musika joz, dantzatzu edo konpartisan ateriz parte hartzen ahal da». Bazkalondoa «giro hagitza polita» izaten dela kontatu du, eta gero bestak segitzen duela: «Arratsaldeko kalejiraren ondotik, eguna bakoitzak nahi bertze luatzten ahal du».

Igandearen ondotik, astelehenean, bestak segida izaten du Beran, eta «aunitz» gustatzen zaion eguna izaten dela dio: «Adin guztietako lagun talde dezente animatzen dira eta polita da herrian giro eta bizitza hori ikustea».

TXIMISTINDAR
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Zelai Ind., 42 Bera.
948 63 14 52 / 639 60 80 34 / 639 56 59 65

bortairudi
inprenta

mañe ibili eta
gozatu bestak!

Lu's Ibarra **Zurekin DISEINUAK**

SUKALDEAK, LURRAK, ARMAIPIAK, ATEAK, TEILATUAK, EGUR LANAK...

KANPO NAHIZ BARNE DISEINURAKO BEHAR DUZUNA GURE DENDA BERRIAN!

Kanttonberri, 3. BERA Tel: 722 52 14 71

E D A R I A K

Ongi pasa inauterietan!

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus



BERAKOUDALA

**BERAKO UDALAK
INAUTERI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE!**

Goizueta

Egitaraua

Oxeguarda ostatua

Ongi pasa inauteriak!

T. 948 514 019 • Nagusia, 34 • GOIZUETA



Pintxok
Razik
Bokatak
Platerak
Terraza
Fiesta
948 514 327
Goizueta

ZUBIMUXU aterpea
albergue de Goizueta

www.zubimuxu.com @ Herriko plazan 619 98 83 83
Sukalde ezabiltzerria - 30 plaza - 2, 6 eta 10 laguneko gelak - Litterak

IZKIÑA
jatetxea

Pintxoak,
barkariak eta
afariak

Etorri GOIZUETako fauna ezagutzera!!

Tel. 948 514 102 • GOIZUETA



OKINDEGIA
GOZOTEGIA

ONGI PASA INAUTERIAK!



K. Nagusia • GOIZUETA • 948 514 242

Otsailak 19, igandea

17:00etan gaztetxoaren zahagi dantza. **18:30etik 21:00etara** dantzaldia Garazi eta Gorkarekin ikastolan. **21:30ean** moztorroren afaria.

Otsailak 20, astelehena

08:00etan moztorroren irteera base-rrietara. **10:00etan** plaza apainketa (gaia: kaldereroak). **11:30ean** kale-jira herrian zehar. **13:00etan** salda eta txorizo egosia. **Ondoren** bazkaria. **16:30ean** haur eta gaztekoen-izat entretenimendua. **18:00etan** txokolatada. **18:30ean** dantzaldia Garazi eta Gorkarekin ikastolan. **Ilu-nabarrean** moztorroren etorrera dultzaineroekin. **22:00etan** moztorroren afaria.

Otsailak 21, asteartea

09:00etan moztorroren gosaria. **10:00etan** moztorroren irteera herriko etxetara dantzan. **14:30ean** moztorroren bazkaria. **17:30ean** zahagi dantza Motzanetik hasita. **18:30ean** dantzaldia Mallkogarriyak taldearekin ikastolan. **22:00etan** moztorroren afaria.



Otsailak 25, larunbata

13:00etan poteoa Igandea txarangarekin. **14:30ean** moztorroren bazkaria. **17:30ean** Igandea txaranga herrian zehar.



Egitaraua



Otsailak 16, ortzeguna

Golzean eskolako ikasleak eskean ibiliko dira. **14:30ean** eskolara joan dira eta herrian hainbat ekintza (antzerki, dantza, bertso...) egingen dituzte. **Arratsaldean** merienda.

Otsailak 19, igandea

Kinto bestak ospatuko dituzte.

Otsailak 20, astelehena

08:00etan gazteek gosaria egingen dute La Basque jatetxean. **Ondotik** baserrietan ibiliko dira eskean trikitilariak lagunduak.

Otsailak 21, asteartea

12:00etan mozerro eta karrozen desfilea herrian barna plazatik abiatuta. Herriko gazteek pintxoak banatuko dituzte. **Eguerdian** gazteen bazkaria La Basque jatetxean eta jubilatu bazkaria Laraburuan. **Arratsaldean** katuska eta abarka jaurtiketa plazan.

*Asteleheneko gosarian edota astearteko bazkarian izena-emea Elutsa ostatuan otsailaren 15era arte.







LA MASCARA

Inauterietako mozerroetan den-dena daukagu
Era guztietako osagarrien salmenta
Makillaje profesionala

www.lamascara.es
mascara@lamascara.es
Abejeras, 6 | IRUÑEA | T./F. 948 25 00 04



HERRIKO OKINDEGIA

Euskal Herriko gari mota zaharrak gure erroetan ehotuak

- / Espelta Handia
- / Espelta Txikia
- / Florencio Aurora
- / ARAGON 08
- / Lokaingo bizandua

06:00 - 13:00
EGUNERO IREKIA
TEL. 627 03 39 75



ELUTSA

O S T A I U A



948 635 191

ETXALAR



ETXALARKO UDALAK

*inauteri onak opa dizkizue
etxalartar eta bisitari guztiei*

Torraspapeleko 356 langileri eragiten die erregulazioak

Leitzako lantegian ilbeltzaren 16an sartu zen indarrean erregulazio espedienteak

TTPI-TTAPA

Leitzako Torrassapapel lantegiko 356 langileri eragiten dien enplegua aldi baterako erregulatzeko espedienteak indarrean sartua da; baita Torrassapapelek estatu mailan dituen beste bost lantegietan ere. Azaroaren 25ean hartu zuten erregulazio espedientearen jakinarazpen ofiziala. Ondoren, negoziazio aldia hasi zen, baina Hegoi Bengoetxea Azpirotz Leitzako Torrassapapel lantegiko enpresa batzordeko ordezkariaren hitzetan, ilbeltzaren 7an «akordiorik gabe» bukatu zen.

Horri lotuta «enpresaren borondate falta» salatu dute Torrassapapelek Leitzan (LAB eta ELA), Zaragozan, Motrilen, Almazanen eta Sant Joan Les Fontsen dituen lantegietako enpresa batzordeek. Bost lantegietako zortzi sindikatuek ohar bateratua kaleratu zuten duela egun batzuk, «enpresaren ordezkariak 1.452 langileoi eraginen digun neurriaren inguruan akordioa lortzeko jarra proaktiborik eta borondate-rik ez duela erakutsi» salatu zuten.

Bengoetxearen hitzetan, «negoziazio garaiko azken bilera egitera Bartzelonara joan ginen, zortzi sindikatu etako hamahiru kideak bildu ginen. Leitzako LABek eta ELAk garbi ginen ez genuela erregulazio espedienterik sinatuko. Baina beste sindikatu batzuk sinatzeko asmo garbiarekin joan ziren. Enpresaren borondate falta ikusita, ordea, ez zuten inork sinatu. Enpresari immobilismo dezentea ikusi genion».

Leitzako lantegian ilbeltzaren 16an sartu zen indarrean enplegu erregulazioa. «Leitzako


356 langileri eragiten digu eta momentuz, 60 joan gara etxera. Baina batek daki heldu den hilean 20 edo 90 izanen garen. Ez dakigu», dio Bengoetxeak. Hori da, hain zuzen, kritikatu duen beste puntua: «Hilean hilekoa egiten dute. Badakigu urtean, gehienez, 150 egunez joan daitekeela langile bat etxera, baina galdetuko bazenu bakoitzak zenbat eta noiz joan behar duen lanera, ez dakigu. Are gehiago, 24 orduko aurre-rapenarekin esan dezakete lanera etorri edo ez». Dena den, Leitzako lantegian «astean behin» eguneratzen omen dute. «Ostiralero deitzen digute heldu den astean zenbatek joan behar duten etxera esanez».

Horren harira, «egunak arbitrioki aplikatzeko eta langileak nahi bezala erabiltzeko asmoa» ikusten dute sindikatuek. Bengoetxearen arabera, «negoziazio mahaian eseri ginenean, gehienez pertsona berari hila-beteen 15 eguneko espedienteak aplikatu ahal izateko baldintza jarri genuen, langileria osoaren artean banatu nahi genuelako erregulazio espedientearen zama. Baina enpresak aurreneko momentutik garbi utzi zuen ezetz». Jarrera horrekin «enpresak, bertako langileek ABLE edo ETTko langileek duten malgutasuna izatea» nahi duela susmatzen du: «Gaur ez daukazu lanik, eta etxera zoaz».

Bestalde, zortzi sindikatuen arteko elkarlana ere azpimarratu du: «elkartasuna oso garrantzitsua izan zen negoziazio garaian, eta hemendik aurrera ere garrantzitsua izanen da. Kate bat gara eta denon artean atera behar dugu aurrera».



Ipuinaren azala eta kontrazala.



'Eskola bidean Tibur otsoarekin' ipuina eskolara oinez joateko

TTPI-TTAPA

Mugikortasunaren aldeko lanketan beste pauso bat eman du udalak, eta Erleta eskolako ikasleen eta Unai Ruiz guraso eta artistaren laguntzarekin, *Eskola bidean Tibur otsoarekin* ipuina argitaratu dute.

Haurrak eta gazteak eskolara oinez joatera bultzatzeko

asmoz sortu dute ipuina. Gisa honetara, haurrak eta gazteak eskolara oinez joatearen onuraz jabetzea nahi dute eta gurasoak eskola bidea bide segurua dela kontzientziatzea, seme-alabak horretara bidera ditzaten.

Ipuina www.leitza.eus atarian eskura daiteke.

Kultur hitzorduak eta gehiago hilabete honetan

TTPI-TTAPA

Askorentzat agendan ongi markatutako eguna izanen da larunbat hau, otsailaren 11, iragarri bezala, duela 25 urte estreinatu zuten *40 ordu* filma pantailaratuko baitute Herri Aretoan, 19:00etan. Igandean, berriz, *Lehendakari gaia* antzezlanak ikusteko aukera izanen da, 19:00etan Herri Aretoan.

Torturaren inguruko zikloa

Udalak eta Nafarroako Torturatuaren Sareak antolatuta, otsailaren 17an Nafarroako Torturatuaren Sareak aurkezpen hitzaldia egingen du Herri Aretoan, 19:00etan. Berriki torturen inguruko mozioa ere onartu du udalak. Batetik, «elkartasuna eta aitortza» adierazi nahi izan dizkie «torturaren eta tratatu txarren biktimak diren nafarrei, eta, bereziki, herritarrei» eta beste-

tik, bere konpromisoa agertu du «egiaren ezagutza eta egon litezkeen kasuen erreparazioan laguntzeko». «Tortura eta tratatu txarren praktika saihesteko eta ezabatatzeko» behar dena egiteko ere eskatu dio gobernari.

Horrez gain, otsailaren 18an eta 19an Ander Iriarte torturari buruz egindako *Karpeta Urdinak* filma ikusteko aukera izanen da, 19:00etan. Zuzendaria ere bertan izanen da.

Asteburu horretako zinema eskaintza *Grufaloo* pelikularekin borobilduko dute, 16:30ean.

Teatro en Vilo antzerki konpainia

Martxoaren 27a Nazioarteko Antzerkiaren Eguna dela gogoan, Teatro en vilo konpainiak *Hoy puede ser mi gran noche* antzezlan egingen du martxoaren 12an Herri Aretoan. Sarrerak leitza.eus atarian eros daitezke.



lazko inauterietan hartutako irudia. AINHOA ANSAK UTZITAKOA

Larunbat honetan inauteriak dituzte Aranon

Goizean, Izer eta Alabier trikitilari eta panderojolearekin puxka biltzen ibiliko dira zomorroak

TTIPI-TTAPA ARANO

Zomorro ttiki eta haundi, inauteriak ospatzeko gogotsu dau-de herritarrek, etxez etxe festa giroa zabaltzeko prest.

Larunbat honetan, otsailaren 11n, ospatuko dituzte. Ohi bezala, goizean, Izer eta Alabier trikitilariaren eta panderojolearen laguntzarekin, puxka

biltzea egingen dute zomorroek. Suro auzoan hasi eta herriraino ailegatu arte etxez etxe ibiliko dira. Eguerdian zomorroek bazkaria egingen dute eta zahagi dantzak ere ez du hutsik egingen. Lerro hauek idazterakoan gaueko egitaraua ez zen guztiz erabakia, baina okerrik ez bada, herri afaria egitekoa da.



Goizuetako, Leitzako, Aresoko eta Aranoko alkateak parlamentuko lansaioan.

Basozainen bulegoa itxi izana salatu dute alkateek Nafarroako Parlamentuan

TTIPI-TTAPA

Unai Miranda Goizuetako alkatea, Mikel Zabaleta Leitzako alkatea, Joxe Otermin Aresoko alkatea eta Joxan Ruiz Aranoko alkatea Nafarroako Parlamentuan egindako lansaioan izan ziren ilbeltzaren 24an, batetik, basozainen bulegoa itxi izana salatzen, eta bestetik, berri irekitzeko eta zerbitzua indartzeko eskatuz.

Lau herrietako alkateen ize-nean, Leitzakoak hartu zuen hitza eta, Leitzako Udaletxean «zerbitzuak beti duen garrantzia handia» nabarmendu zuen, «eta orain, gure mendien eta

basoen egoera kezagarria ikusita, are garrantzitsuagoa». Gobernuak bulegoa ixteko hartutako arrazoiak baztertu zituen, eta besteak beste, «landa eremuan zerbitzu publikoak mantentzeko eta indartzeko apustua egin gabe, despopulazioari aurre egitea ezinezkoa dela» aipatu zuen. Gehiago ere bai: «Nafarroan inoiz izan diren suterik larrienak izan ditugun urtean, basozaintza bulegoa eta zerbitzua indartu ordez ixteko erabakia hartzea, logikak eta zentzuak eskatzen dutenaren kontrako norabidean doa».



MIKEL ILLARREGI, PABLO FEO ETA LEITZAKO UDALA

Datorren urtera arte agur Leitzako 'ihoteei'

Hotzari aurre eginez, irudi koloretsuak utzi zituzten aurtengo inauteriek edo *ihoteek*. Giro eta umore ederra izan ziren nagusi. Eskolan egin zuten aurreneko seinale, eta hortik aurrera lehertu zen pesta. Etxez etxe eta baserri baserriko eskeak, jende asko erakarri zuen desfilea, umeen eta *atsaureen* kalejirak... Gaurgero 2024koen zain egonen dira herritarrek.

Etxebizitzari buruzko inkesta betetzeko deia egin du udalak

Medikuaren etxearen enkanteari eta ospitaleko eta eskola zaharreko proiektuei buruzko azalpenak eman ditu udalak

TTIPI-TTAPA

Etxebizitzaren alorrean udal eraikinen plangintza azaltzeko asmoz, herri batzarra egin zuen udalak urtarrilaren 28an ganbaran. 25 bat lagun bildu ziren udal ordezkariaren azalpenak aditzera eta herritarren erantzunaren harira, «balorazio positiboa» egin du Unai Mirandak alkateak.

Besteak beste, medikuaren etxearen enkantea eta eskola zaharreko etxebizitzaren eta ospitaleko proiektuak izan zituzten hizpide. Medikuari etxebizitzari dagokionez, «enkantera atera arren, lehenbiziko saiakerak ez zuela arrakastarik izan» aipatu zuen alkateak. Hala «etxea saltzeko bigarren saiakeraren eginen dugu». Hain zuzen, joan den asteko plenoan onartzekoa zuten eta dagoeneko egin ez badute, laster eginen dute deialdia.

Eskola zaharrean, berriz, bi etxebizitza egokitu nahi ditu udalak alokairu sozialerako. «Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin eta udalaren ekarpenarekin hiru logelako bi etxebizitza izanen dira». Itxura denez, «proiektua nahiko aurreratua» dute, eta «ea urte bukaeran edo datorren urte hasieran gauzatzen ahal dugun».

Alkatearen hitzetan, ospitaleko proiektua da «garestiena eta anbiziotsuena» eta horregatik ari dira Nasuvinsarekin elkarlanean. Bi logelako sei etxebizitza aurreikusi dituzte, baina horretarako hitzarmena sinatu nahi dute Nasuvinsarekin, «Navarra social housing planaren bidez eraikinak eraerritu eta etxebizitzak alokairuan jartzeko».



Urtarrilaren 28ko batzarra. FELIX LOIARTE

Zortzi etxebizitza alokairuan

Bateko eta besteko, «dena ongi aterako balitz, hau da, ospitalekoa aurrera aterako balitz eta eskolan egokituko diren bi etxebizitzekin, udalak herritarrentzako zortzi etxebizitza bideratuko lituzke alokairuan hartzeko». Dena den, aitortu du «eskaera zenbatekoa den ikusi beharko dela, ea jendeak bi logelakoak nahi dituen, hirukoak...».

Bestalde, batzarrean, Nasuvinsaren datu basean izena emateko argibideak ere eman zituzten. «Nafarroan babes ofizialeko etxe bat erosi edo alokatu nahi izatekotan, errolda horretan alta eman behar da. Izena emandako goizuetarrak oso gutxi zirela ikusita, alta emateko azalpenak eman genituen».

Inkesta

Nasuvinsak hala eskatuta, herritarren beharrak ezagutzeko inkesta ere zabaldu du udalak. Batzar egunean bildutakoan artean banatu zuten, eta gainerakoak joan den astean etxetik banatzekoak zituzten. Aste honetan bete eta udaletxean aurkeztu beharko da. Alkateak inkesta betetzearen «garrantzia» nabarmendu nahi izan du: «Horrekin datuak eguneratuak izanen ditugu».



Apezteatarrak ezkerrean eta Egiguren eskuinean urtarrilaren 28an. I. ELIZEGI

Larunbat honetan Espainiako txapelketako beste kanporaketa herrian

TTIPI-TTAPA

Berriz ere pilotazaleen bilgune izanen da herriko frontoia. Larunbat honetan, otsailaren 11n, Espainiako txapelketako kanporaketa bat jokatu dute Umore Onako pilotariek.

Larunbatean 18:00etan

Urtarrilaren 28an txapelketa horretako beste lehia bat jokatu zuten Umore Onakoek herrian. Lagunak taldeko pilotariak izan zituzten kontrario, eta etxekoek banakakoa irabazi eta binakakoa galdu zuten. Banaka Umore Onarekin Iker Egiguren azpeitiarra

ari da eta binaka, berriz, Beñat Apeztexea eta Antton Apeztexea herritarrek. Asteburu honetan, larunbatean zehazki, Errioxako Calceatense izanen du kontrario Umore Onak, eta 18:00etan hasiko dira partidak. Egiguren eta apeztexeatarrak aurretik ere arituak dira Calceatenseko pilotarien aurka, eta bai banaka, baita binaka ere, irabazi egin zuten Errioxan jokatuak partidetan.

Otsaileko azken asteburuan berriz Lagunak-en kontra ariko dira Umore Onakoak, baina kasu horretan etxetik kanpo jokatu beharko dute.

Mus txapelketako kanporaketa larunbatean

Euskal Herriko XIV. Mus Txapelketako kanporaketak jokatzen ari dira aste hauetan herriz herri, eta Goizuetan larunbat honetan, otsailaren 11n, antolatu dute. 16:00etan Umore Ona elkartean egin dute hitzordua. Irabazten duten bikoteek martxoaren 11n Iruñean izanen den herrialdeko kanporaketarako txartela lortuko dute. Euskal Herriko finala, berriz, martxoaren 25ean Zornotzan (Bizkaia) eginen dute. Urtero bezala, sari ederrak prestatu dituzte.

Helduentzako antzezlanaren harrera ona

34 lagun bildu ziren urtarrilaren 27an udaletxeko ganbaran, Gize Zerbiztuen Mankomunitateak antolatutako *Parti gaua* helduentzako antzezlanaz gozatzen. «Emanaldiak harrera ona izan zuela» aipatu du Amaia Paz berdintasun teknikaria eta gaiaz hitz egiten ere aritu ziren.



Bertako emagin zerbitzua erabiltzeko deia

Zerbitzuak gero eta erabiltzaile gutxiago dituela jakinarazi du udalak, eta zerbitzurik gabe ez gelditzeko, erabiltzeko eskatu du

ENERITZ IRAOLA

Duela hamar bat urte jarri zuten Areson emagin zerbitzua, eta udalak ohar bidez gogoratu duenez, «tokiko erakundeen eta osasun langileen ahalegin handiaren ondorioa izan zen». Geroztik zerbitzua bertatik bertara izateko aukera dute herriarrek eta ingurukoek. Gaur egun Aresoko Udaletxearen azpiko aldean izaten da zerbitzua, lehenagoko medikuaren kontsultategian.

Hilabetearen egun batez ematen dute emagin zerbitzua, baina «zerbitzuak gero eta erabiltzaile gutxiago» dituela ohartarazi du udalak. Egoerarekin kezkatuta agertu da, eta berdin egin du Leitzako Udalak ere, bata kezka besteak oharra kaleratu baitute. Argi utzi nahi izan dute «landa eremuetako biztanleok zerbitzu askotan murrizketak jasan edo maiz hirigunera jotzera behartuta gauden garai hauetan, bertatik bertara eta hirian ohikoak diren itxaron zerrenda luzeak jasan beharrik gabe, gure beharretara egokitu daitekeen emagina dugula eskura, euskaraz artatu gaitzakeena gainera».

Etzarrira bideratu

Udalak ohar bidez adierazi duenez, «txanda eskatzen dugunean, lehenbailehen Etzarrira bideratzen gaituzte, presazkoak ez diren hitzordueta-rako Areson artatzeko aukera eman ordez». Horrez gain, «inguru honetako emakumezko askok Iruñera joateko joera» dutela onartu du; «askotan bertan lan egin edo erosketak egiteko bidaia aprobetxatzen dugula argudiatuz». Horrek,

ordea, zerbitzurik gabe uzteko arriskua sor dezakeela azpimarratu du: «Areson arreta jasotzeko eskatzen ez badugu eta egoerari buelta ematen ez badugu, zerbitzua etetea izango da hurrengo ondorio zuzena».

«Beste zentroetako emaginen funtzio guztiak»

Hala, «bertako emagin zerbitzua erabiltzeko eta defendatzeko» deia egin du udalak; eta gisa honetara, «gainerako Emakumearen Arretarako Zentroetako emaginek eskaintzen dituzten zerbitzu guzti-guztiak gure eremuan jasotzen jarraitzeko dugun aukerari tinko eusteko» eskatu du. Horren harira, zerbitzu horiek zein diren ere gogoratu du udalak: «umetokiaren lepoko minbiziaren prebentziorako hiru urtean behin egiten diren 25-65 urte arteko emakumezkoen azterketak; haurdunaldien jarraipenak; ama izan berri direnei arreta zuzena eta prestakuntza; sexualitateari lotutako kontsultak; adineko emakumeen klimaterioa eta menopausiari arreta; gazteei arreta zuzena eta kontsultak (garapen afektibo-sexuala, antisorgailuak...)».

Gaiaren inguruan «hausnartzeko» mezua luzatu du udalak eta «eskaera igoko balitz hurbileko arreta hau maiztasun handiagoarekin jaso genezakeela» gaineratu du.

**ZERBITZURIK GABE
GELDITZEKO
ARRISKUA IKUSTEN
DU UDALAK**



UTZITAKO ARGAZKIAK

Bi egunez inauteri giroa nagusi

Urtarrilaren 27an eta 28an ospatu zituzten herriarrek inauteriak. Ostiral goizean piratek abordatu zuten herria. Arratsaldean trikitilariak saioa eskaini zuten eta gazteek herriko eskea egin eta Pake tokin afaldu zuten. Larunbatean herri guztia bildu zen moztzorro festara eta gauean 130 lagun elkartu ziren afaritarako.

Aldaketekin dator ekainaren 3an egingen den Euskal Herria Mendi Erronka

TTIPI-TTAPA

Ekainaren 3a begiz jota, Euskal Herria Mendi Erronka prestatzen buru-belarri ari dira antolatzaileak. Otsailaren 1ean, izena emateko epea zabaldu zuten, baita zenbait aldaketa iragarri ere. 67 kilometroko lasterketa osatzeko 500 dortsal banatuko

dituzte, eta erreleboka edo bikoteka 60 dortsal. Horrez gain, seniorrak eta beteranoak bateratu eta kategoria bakarrazizanen da. Klub maila kendu dute eta errelebo lasterketan eskualdeko bikotearantzako saria ematen dute. Informazio gehiago ehmendierronka.eus atarian.

«Gogo pixka bat paratuta, edozeinek balio du alkate izateko»

IÑAKI SANZBERRO GOÑI ERRATZUKO ALKATEA

Agintaldia hasi berria, Erratzun orain arte egindakoaz eta aurtengo erronkez aritu da Iñaki Sanzberro alkate berria TTPI-TTAPArekin

R. OSKARIZ ERRATZU

Kargu-berritze prozesua izan dugu aurten Baztanen, eta hainbat herritan herritar berriak aurkeztu dira alkatetzara. Erratzun ez zuten hautagairik izan lehenbiziko batzarraren, baina bigarrenaren Iñaki Sanzberro Goñi aurkeztu zen alkategai. Orain, herriaren behar eta kezkei begira hasi da lantaldearekin batera.

Nola animatu zinen herriko alkate aurkeztera?

Erratzu herri ttikia da, baina zorionez azken urteetan lantalde bat izan dugu, zortzi bat lagun gaztek osatzen dutena, eta denak nire ingurukoak dira. Haiek aldizkatuz joan dira, bi urtetik behin alkatea aldatzeko, baina aurten tokatzen zitzaionari afera konplikatu zaio, eta ezin izan du kargua hartu. Alkatetza burutan nuen zerbait zen, eta momentua ailegatuta aurkeztu nintzen.

Gogotsu hartu duzu kargua?

Bai. Herri ttiki hauetan, ez badugu herritarrok aitzinerat egiten, gauzak ez dira ateratzen. Erratzun azken 12 urteetan izandako sistema herri gehienetan segitu beharko litzatekeela uste dut; lantalde bat egin eta herritar batzuk ateratzean bertze batzuk sartzea, alkatetza txandakatzeke.

Zein dira alkatearen ardurak?

Oraindik ez dakizkit ongi, baina azken finean herritarren kezkak biltzea eta Baztango



Hurrengo bi urteetarako alkatea izanen da Sanzberro Erratzun. UTZITAKOA

Udalera eramatea da ardura nagusia. Horrez gain, herrian ikusten ditugun beharrak asetzen saiatzen gara. Pena da herri bezala ez dugula hainbertzeko botererik, eta gauza gehienak udalera eraman behar ditugula.

Zuretzako erraza da aurpegia ematea?

Baietz uste dut, eta neurri batean horregatik animatu naiz. Lehenagotik bertze saltsetan ibili izan naiz eta ohi-

turatu nago jendearen aitzinean egotera.

Nortzuk dituzu kargudunak?

Miguel Etxandi, Juanjo eta Intza Bidart, Markos Aizpurua, Kaiet eta Joxe Itoitz, Xabier eta Leire Irigoien, Xabi Uriarte, Iban Dufurrena... talde polita gara. Eta inguruko jendea ere, alkatetza taldean egon gabe, laguntzeko prest egoten da.

Bilkurarik egin duzue?

Urtarrilaren 25ean egin genuen lehenbiziko bilera. Lehe-

nagotik ere solastatu ginen, herria zein egoeratan zegoen ikusteko, baina orain lan ildoak zehaztu ditugu, aitzineko urtetik egitekoak gelditu ziren gauzak berrartzeko eta geroz zer asmo ditugun erabakitzeke.

Nola egingen duzue lan?

Oraindik ez dugu dena ongi zehaztu. Beharren arabera eta laneko txandak uzten ditenaren arabera bilduko gara. Asmoa hiru astetik behin elkartzeko da, baina egiteko haundirik ez dugun asteak ere izanen ditugu. Taldean zazpi-zortzi lagun izanda, lanak denon artean banatuko ditugu, eta gero bileretan bakoitzak egindakoaz solastatuko gara.

Alkate izateak egunerokoan aunitz eragiten dizu?

Bai, beti ordu batzuk eskaini beharko dizkiot alkatetzari. Beharbada ez egunero, baina seguru aski buruhaustea izanen ditugu. Baina hau egin beharreko gauza bat da, eta bi urte hauetan niri egokitu ko zait lan hori egitea. Alde horretatik, jende gehiago animatu beharko litzatekeela uste dut. Aunitzetan aditzen dira 'zuk gauza horietarako balio duzu' bezalako komentarioak, baina gogo pixka bat paratuta, edozeinek balio du alkate izateko. Gainera, interesgarria da Baztango bailaren funtzionamendua eza gutzea eta Batzar Nagusia barnetik ikustea.

Eta azken urtean Erdizko meategiaren harira alkateek izandako arazoak ez zaituzte belurtu?

Ez. Duela 20 urte mendi taldeko juntakidea naiz, eta Erdizko istorioa hurbiletik bizitzea tokatu izan zait hasmentatik. Bere garaian Erdiz Bizirik plataforma sortu genuen, eta nahiz eta azken urteetan saltsa horretan ez egon, mugitu izan naiz eta badakit zer den hor egotea. Mendizale izanda, ez zaizkit sobera gustatzen horrelako proiektuak.

Herriari dagokionez, zein hobekuntza egin dira azken urteetan?

Saneamenduan, adibidez. Urarekin arazo aunitz izan dituen herria da Erratzu, eta duela urte batzuk depositu berria egin zen. Ur-ihesak izaten ditugu urtero, baina gehienak konpondu dira eta orain aise hobe gaude. Honez gain, berriki herriko plaza berritu da.

Eta zein behar ikusten dituzu gaur egun Erratzun?

Orain dugun kezka haundiena herriko ostatua da. Bertze herri aunitzetan bezala, bere garaian Erratzun herriko ostatua genuen, herriko etxe gehienena zena, portzionistena. Etxea arront egoera txarrean zegoen, eta duela urte batzuk jabe guzien artean herriari ematea erabaki zuten, zesio baten bidez. Herriaren esku egonda, duela zortzi bat urte obra haundi bat egin zen, gehienbat teilatua eta kanpoko aldea mantentzeko. Orain, gure erronkarik haundiena etxe horrekin zer egin asmatzea da.

Beraz, hori izanen da zuen aurtengo helburu nagusia?

Bai, berez aspaldiko urteetako helburua da. Kanpotik forma eman ondotik, orain etxearekin zer egin pentsatzen ari gara. Horrelako lanetan, dirua izaten da arazorik larriena; herriak ez du hainbertzeko dirurik. Bere egunean bagenuena gastatu genuen, eta orain proiektatuari buelta bat eman nahi diogu, dirua nondik lortzen ahal dugun ikusteko.



Herriko sarreran turistendako aparkalekua eraiki zuten udan. UTZITAKOAK

tuari buelta bat eman nahi diogu, dirua nondik lortzen ahal dugun ikusteko.

Turismoa da azken aldiari herria kezkatu duen bertze kontu bat. Nola kudeatu da?

Azken urtean egindako berrikuntzen artean, aparkaleku berria dugu, udan herriko sarreran egin zena turismoarekin genuen arazoa konpontzeko. Xorroxin ur-jauzia turistendako nahiko erakarria da, eta urtero bisitari

aunitz izaten ditugu. Duela urte batzuk nahaste bat zen dena, jendea kotxearekin nahi zuen lekuraino sartzen bai zen, eta arazo haundiena Gorostapolo auzoan genuen. Hau erregulatzeke, udan, Aste Sainduan eta oporretan udaletxean eskatzen den baimen baten bitartez etortzen dira bisitari gehienak, eta aparkalekuarekin batera, dena ongi kontrolatu ahal izan dugu. Gainera, ordu eta er-

diko ibilbide bat markatu dugu turistendako. Herria gehiegi masifikatzea kaltegarria da herritarrendako eta baita kanpotik etortzen direnendako ere.

Kultura aldetik, nola ikusten duzu herriaren eskaintza?

Garai batean Erratzuk bere kultura elkarte zuen, eta orain saiatzen gara; bertso afariak, Gizakunde besta... baina azken urteetan motelago ibili garela erranen nuke. Baliteke nire irudipena izatea, gazteago nintzelarik gehiago parte hartzen nuelako gauza horietan, eta beharbada orain guttiago konturatzen naiz. Hala ere, saiatzen gara ahal dena egiten.

Orain inauteriak hurbil ditugula, nola antolatzen dituzue ospakizunak?

Alkatetza taldeaz gain, herrian lau *damunautiak* (danbolin nagusiak) ditugu. Lau gazte horiek aritzen dira inauteri eta bestetako antolakuntzan; eskeak, diru-bilketa, musika eta dantzaldiak antolatzea... Erratzu herri *ttikia dela aipatu duzu*. Nola ikusten duzu bere etorkizuna?

Nahiko polita. Herri batek etorkizuna izateko, bertako jendea bertan gelditu behar da, eta nik uste gazteak gelditzen ari direla. Horren erakusgarri da eskola; urtero lau-bortz haur berri sartzen dira eta horrek erran nahi du hemen gelditzearen aldeko apustua egiten dutela gazteek.

«HERRIAN IKUSTEN DITUGUN BEHARRAK ASETZEN SAIATZEN GARA»

«HERRIKO OSTATUA DA ORAIN GURE ERRONKARIK HAUNDIENA»

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com
 ARIZKUIN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com

LAPIDAK
 PANTEOIAK
 HILERRIAK
 ZAHARBERRITZEAK
 GARBIKETAK
 HARRI ZIZELKATZEA

ANELAN
 LAN BERTIKALAK
 948 031 174
info@anelan.pro

Sokekin egindako lana, andamiorik gabe.
 Egiten ditugun lanak:
 Fabaden konponketak,
 segurtasun-sistemen
 instalazioak, teilatuen eta
 azpiegituren mantentze-lanak, eta abar.

Ohariz Auzoa z/g - LEKAROZ
 T. 948 452 143 - 948 452 449
info@harriian.com www.harriian.com

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



Olaia Inziarteren kontzertua izanen da otsailaren 12an Arizkunenean. ARTXIBOTIK

Hainbat ekitaldi kultural izanen ditugu otsailean

Musika, ikuskizunak eta herrietako inauteriak izanen dira nagusi hilabete honetan bailaran

TTIPI-TTAPA

Hilabetero bezala, Baztango Kultura Zerbitzuak otsaileko eskaintza kulturalaren agenda sortu du, herritar guzien gustuko egitarauarekin:

Olaia Inziarteren kontzertua

Otsailaren 12an, igandea, Olaia Inziarrek *Lehengo Lepotikan Burua* bere lehen diskoa aurkeztuko du Elizondoko Arizkunenea Kultur etxean 18:00etan. Intimitatetik bere sustraiei eta etxeari kantatzen die artista oronoztarrak bere lanean.

Baztan Kantuz Zigan

Baztan Kantuz ekimenak herriz herriko itzuliarekin segituko du, eta Zigaren txanda izanen da otsailean. Kantatzea gustuko dutenek hilaren 19an 12:00etan herriko plazan dute hitzordua.

Solasaldi musikatua

Otsailaren 23an Mexikortxo taldearekin 'Mexikar iraultza: Pancho Villaren korridoetan' solasaldi musikatua izanen da 19:30ean Elizondoko Amezti elkartearen.

Zinema

Hilaren 24an, berriz, *Loreak belaunetan* dokumentala proiektatuko dute 19:00etan Iruritako Gizarte Bilgunean, Zinema Zikloarekin segituz. 'Zer izan nahi duzu handitan?' galdera abiapuntutzat hartuta, zazpi protagonista gazteen ahotsak biltzen ditu dokumentalak. Proiektzioaren ondotik solasaldia izanen da.

Helduendako antzerkia

Metrokoadroka Sormen Laborategiaren eskutik, *Zeozertan dabil baina ez dakit zertan* antzerkia aurkeztuko dute otsailaren 26an 18:00etan Gizarte Bilgunean. Etxe berean bizi diren hiru lagun dira antzezlaneko protagonistak, eta familiari buruzko galderak, kontraesanak eta umorezko zirtoak planteatuko dituzte.

Inauteriak

Mozorroak ateratzeko garaia da, eta Anizen eta Berroetan ez bertze, otsailean ospatuko dituzte inauteriak Baztango gainerako herrietan. Elizondoko inauterien egitaraua 36. orrian dago irakurgai.



Musikaz langunduak etxez etxe ibili ziren gazteak. MAIALEN IANTZI

Giro goxoan ospatu dituzte inauteriak Berroetan

MAIALEN IANTZI

Urtarrilean inauteriak izan ziren Berroetan. Ortziralean hasi zen besta; udazkenean jokaturako frontenis txapelketako finala jokatu zen. Maialen eta Agustin Migeltorena osaba-ilobak izan ziren irabazleak. Ondotik, afaria izan zen herriko elkartearen.

Bestari segida larunbateko gosariak eman zion. Berroetako eta Anizko gazteak elkartu eta etxez etxe ibili ziren. 27 gazte bildu ziren gosarian eta bertze zenbait bestara; aspal-diko urteetako inauteririk jendetsuenak izan ziren. Akitzeko, afaria izan zen elkartearen herriko haur, gazte eta helduekin.

Energia enpresen publikatzea eskatuko dute otsailaren 10ean Elizondon

TTIPI-TTAPA

Baztango Talde Ekosozialak antolatua, energia enpresen publikatzea aldarrikatzeko elkarretaratzea egingen dute otsailaren 10ean 19:30ean Elizondoko plazan.

Taldeak adierazi duenez, «gure antolamendu sozial eta ekonomikorako hain beharrezkoa den energiaren gogoeta egin behar dira».

Alde batetik, «zerbitzuak sortzeko oinarrizko baliabideak esku pribatuetan daude, herritarren beharrekiko negozioa egiten. Antolakuntza horrekin gutti batzuk aberasten dira, gehiengoaren kontua. Horren aitzinean, ekonomiaren sektore estrategiko guztiak publikatzea aldarrikatu behar da».

Bertze aldetik, «energia forma nagusiak kopuru mu-

gatan daude, eta berriztagarriak izaten ahal diren erregai fosilak behar izaten dira maiz. Eskura dugun energia mugatua da, baina gure antolamendu sozial eta ekonomikoa etengabe hazten da».

«Horrela, munduko bertze herrialdeak mendearen hartuz, beraien ondasunez baliatu izan gara, gerrak piztuz, gerorik gabe utziz eta ondoko belaunaldiei baliabideak kenduz. Mundu mailako antolamenduak bidezkoa izan behar du, aberatsak eta gehiegikeriak ez dira onartzen ahal. Toki batzuetan guttieta behar da, bertze tokietan gehiago izan dezaten».

Hau guztia salatzeko egingen dute elkarretaratzea, 'Ebas-ketarekin akitu, energia enpresak publikatu!' lelopean.



'Suak erreko ez balu' liburuaren aurkezpenak ireki zuek ekimena. ONDIKOL



Jendetza bildu zen Anizen Sarrionandiaren solasaldia aditzeko. (H)ILBELTZA

Giro ezin hobe izan dute Euskal Nobela Beltzaren Astea

Ilbeltzaren 23tik 29ra hainbat jarduera prestatu ditu (H)ilbeltzak eta balorazio positiboa egin dute antolatzaileek

TTIPI-TTAPA

Maitane Maritorea (H)ilbeltza elkarteko kideak adierazi duenez, «urtetik urtera gero eta jende gehiago heldu da Euskal Nobela Beltzaren astera, horren erakusgarri, aurren inoiz baino jende gehiago bildu garea ekitaldi guztietan».

Aitzineko urteetan parte hartu izan dutenek «errepi-katu» egiten dute, «eta urtero bada animatzen den jende berria, hortaz, urtetik urtera arraskasta handiagoa du (H)ilbeltzak. Sumatu dugu jendeak egutegian ilbeltzeko hondar astea markatzen duela euskal

literaturan hutsik egin behar ez diren data gisa, Euskal Herriko bazter guztietatik etorri baita jendea ekitaldietara».

Gainera, «kontuan hartuz Baztango zenbait herritan antolatzen direla ekitaldiak -aurten Arizkun, Anizen, Iruritan, Elizondon, Erratzun eta Oronozen- aukera ematen dugu bertze gisa hurbilduko ez zen jendearengana hurbildu eta Baztango xoko desberdinetara ailegatzeko».

Ekitaldi guztietan «giro ezin hobe» egon da; «izan sortzaile, antolatzaile, ikusle, entzule... denak bihurtu dira modu batera edo bertzerara (H)ilbeltzakide. Harremanak sendotzeko eta elkarrekin ekitaldi kulturalak antolatzeko presutasuna ikaragarria izan da».

Aste osoan hainbat solasaldi, aurkezpen, proiektio eta ibilbide egin ondotik, «akabaila ezin hobe» izan zen Ruper Ordorikaren kontzertuarekin, aretoa kaskezurreraino bete».

Azkenik, «(H)ilbeltza antolatzen dugun kideon partez, esker mila aunitz (H)ilbeltza egiten lagundu diguzuen guztiei!».



Erratzuko elkartean bazkaria prestatu zuten antolatzaileak. (H)ILBELTZA



Oronoztik barna ibili ziren igande goizean itzuli beltzean. (H)ILBELTZA



Ruper Ordorikaren kontzertuak borobildu zuen astea. (H)ILBELTZA

BRIKO BAZTAN, SL

Bainuontziaren lekuan
dutaontzia jarzea

Pinturak
Fatxadak
Pladurra

Egur lakadura eta bernizadura
Birgaitzeak eta obra berriak
Lur-mugimenduak

T. 608 016 052
San Andres, 66 - NARBARTE
(Sarrera Legasatik)



Urtarrilaren 28an Iruritan Otondorekin egindako batzarra. ONDIKOL

Alkateak izendatu dituzte Baztango herri guzietan

Iruritakoa zen betetzeko falta zen alkatetza bakarra, eta Rober Irigoienek hartu du kargua

TTIPI-TTAPA

Abenduan hasi zen 2023/24 agintaldirako kargu-berritze prozesua. Herri guzietan lehen-biziko edo bigarren batzarrean aukeratu zituzten alkate juratuak, Iruritan izan ezik. Hori dela eta, urtarrilaren 28an Joseba Otondo Batzar Nagusiko batzarburuak ba-

tzarrera deitu zituen iruritarrek. Bertan, Rober Irigoien Iriarte herritarra aurkeztu zen alkategai eta onartua izan zen, beraz, Pello Iriarte ordezkatu du Iruritako alkatetzan hurrengo bi urteetan. Honekin, Baztango herri guziek izendatu dituzte alkateak:

Alkateak herriz herri

Almandoz	Pello Sarratea Sanzberro
Amaiur	Ixabel Aleman Irungarai
Aniz	Iñaki Zelaieta Erasun
Arizkun	Imanol Etxeberria Antxorena
Arraioz	Aritz Alunda Pain
Azpilkueta	Juan Andres Azkarraga Iribarren
Berroeta	Carlos Garaikoetxea Elso
Elbete	Imanol Juanikotena Taberna
Elizondo	Aitor Bazterrika Zelaieta
Erratzu	Iñaki Sanzberro Goñi
Gartzain	Fernando Arraztoa Larregi
Irurita	Rober Irigoien Iriarte
Lekaroz	Ernesto Prat Urzainki
Ornoz-Mugairi	Jorge Oteiza Ugarte
Ziga	Joxean Etxeberria Osakar



El Maizal komunaz eta Venezuelako egoeraz aritu ziren Ameztin. BAZTANGO UDALA

Venezuelako El Maizal komunako ordezkarien bisita

Baztango kultura komunala eta Eztibeltza kooperatiba ezagutu zituzten eta Venezuelako egoeraz solastatu ziren

TTIPI-TTAPA

Angel Prado, Venezuelako Simon Planas udalerriko alkatea eta El Maizal komuna sozialistako buruzagia, Euskal Herrian eta Katalunian bisitaldiak egiten aritu da eta urtarilean Baztanen izan zen.

Otondo alkatearekin bildu zen Udaletxean, eta Venezuelan bultzatzen ari diren eraketa komunala eta Baztango kultura komunala izan zuten solasbide. Ondotik, Lekarozko Larraldean abiatu duten Eztibeltza kooperatiba agroekologikoaren proiektua eza-gutu zuen. Bazkalondoan bilkura irekia egin zen Ameztin elkartean, El Maizaleko proiektuaz mintzatzeko, Venezuelak bizi duen kanpo-eraso eta blokeoaz aritzeko, eta prozesu bolibartarraren egoeraz eguneratzeko.

Simon Planas eta El Maizal

Simon Planas 60.000 biztanleko eta 808 km2-ko udalerria da. Lurralde osoa komunetan antolatu dute, denera 12 komuna eta 112 kontseilu komunal. Udalerria nekazari-tzari emana da, eta ekoizpen



Joseba Otondo eta Angel Prado. UDALA

aipagarrienak artoa, azukre-kanabera eta kafea dira. Abeltzaintzan behien eta zerrien hazkuntza da nagusi. El Maizal komuna sozialistan 3.000 familia bizi dira. Ekonomia Sistema Komunala antolatu dute, ekoizpen jarduerak antolatuz. Lur komunalak aprobetxatuz, esnea, gasna eta haragia ekoizten dute. Ereiteko eta lurra mekanizatze unitateak, elikagaien biltegiak, kafea eta artoa eraldatzeko artisau industria eta gasa etxeetarako kolektiboak ez diren baratzekiak ekoizten dira eta zerriak hazten. Ekoizpen guztiak banatu eta merkaturatzen ditu Komunak.

Gradu akaberako lanen beka deialdia zabalik

Gehienez ere Baztani buruzko lau lan sarituko dituzte, 500 euroekin bakoitza

TTIPI-TTAPA

Urtero bezala, Baztango Udalak bailara ikergai duten ikasketa amaierako proiektuendako dirulaguntza deialdia zabaldu du. Otsailaren 27ra arte izanen da lan proposamenak aurkezteko epea. Gradu eta master akaberako lanak onartuko dituzte, eta aurkeztutakoen artean 500 euroko lau beka emanen dituzte.

Deialdiaren helburua «Baztango ikasleen artean Baztani eta Baztango geroari buruzko kezka eta interesa piztea eta, beraiek egin beharreko lanak edo proiektuak helburu horretarako egitea» da. Proiektu eta lanak bakoitzaren ikaske-ta arlokoak izanen dira.

Parte hartu nahi dutenek lan edo proiektuaren memoria aurkeztu beharko dute, gehienez ere lau orrikoa. Memoriak lanaren tutorearen ongi ikusia izan beharko du, eta bertan helburuak, metodologia, iturriak, oinarritzko bibliografia... zehazten ahalko dira.

Aurkeztutako memoriak eta proposamenak helburu horrekin osatutako batzordeak

baloratuko ditu: Elizondoko Lanbide Eskolako zuzendariak, Lekarozko Institutuko zuzendariak, Cederna-Garalurreko teknikariak, Baztango alkateak eta udal idazkariak. Balorazioan, arloko adituekin kontsultak egiten ahalko dituzte.

Dirulaguntzaren deialdia eta baldintza guztiak eskuragarri daude baztan.eus webgunean. Edozein zalantzetarako udal-letxera deitu edo joan daiteke.

Hamaika dirulaguntza

2016ko lehen deialditik hamai-kalaguntza eman dira: turismoa Baztanen; XVII-XVIII. mendeetako goi-mailako etxeen tipologia; mutil-dantzak eta emazte-kien parte hartzea; Baztango haur eskolaren proiektu pedagogikoa; Amairuko euskararen berezitasunak; emakume etorkinen egoera; Baztango nekazaritza XVI-XVIII. mendeetan; Baztango turismoa iraunkorra al da?; Baztango kaparetasun unibertsalaren bilakaera; Jau-regian esneki berri baten diseinua; eta autokontsumo partekaturako potentzialitate fotovoltaiakoaren azterketa.



Urriaren 12an jendetza bildu zen Elizondon plataformak deituak. TTIPI-TTAPA

Erdiz Bizirik plataformak manifestazio deialdia egin du apirilaren 22an Iruñean

TTIPI-TTAPA

'Landa eremuaren defentsan' lelopean, apirilean Iruñeko karriketara ateratzeko deia egin du Erdiz Bizirik taldeak. Mobilizazioa Iruñera mugitzeko arrazoiak azaldu dituzte; «guri dagozkigun erabakiak hartu nahi dituzte, eta beharbada, bertara joaten bagara, orain arte aditu nahi izan ez dutena adituko dute».

Leloa, berriz, «meategiak Erdizko bazkalekua erabiltzen duten laborarien ogibidea eta etorkizuna suntsituko lituzkeelako» hautatu dute. «Parajeak 476 hektarea ditu, eta horietatik 260azienda bazkatzeko leku hoberena dira. Zehazki eremu horretan egin nahi da meategia. Baztan da Nafarroa mailan lehenbiziko sektorea mantentzen ari den eskualdea, eta Erdiz gakoa da maila hori mantentzeko».

Honez gain, meategiaren ondorioak «landa eremu guztiak pairatuko lituzkeela» azaldu dute; «zenbait espezie babestu desagertuko dira, inguruko urak nahiz iturriak kutsatuko dira eta materialen garraioarengatik hautsa nahiz asotsa hedatuko dira. Horrez gain, Magnaren jarduerak eragin zuzena du herritarren osasunean: Nafarroan CO2 gehien ekoizten duten enpresen artean hirugarrena da».

Lurraren Eguna

Manifestazioaren eguna ere ez da ausaz hautatu: «Lurraren Nazioarteko Eguna da. Landa eremuaren alde kalera ateratzeko egun ezin hobea. Hortaz, manifestaziora gonbidatzen dugu landa eremua defendatu nahi duen pertsona oro. Apirilaren 22an denak Iruñera!».

Aurtengo ateraldien egutegia publikatu dute Baztango Mendigoizaleak

TTIPI-TTAPA

Aurten ere, Baztango Mendigoizaleak urte guziko ateraldien egutegia argitaratu dute. 33 ateraldi aurreikusi dituzte denera 2023rako, eta bortz egin dituzte dagoeneko.

Ateraldien egutegia eskuragarri dago taldearen webgunean

(baztangomendigoizaleak.org), eta edozein aldaketa izatekotan, Facebook orritik jakinaraziko dute. Bertzerik aipatzen ez badute, ateraldi guztiak Elizondoko plazatik abiatuko dira eta garraioa eta bazkaria duten ateraldietan izena eman beharko da aitzinetik.



Joan den urtean taldeak Itzulegira egindako ateraldia. BAZTANGO MENDIGOIZALEAK

'Maddiren trajeria' pastoralala Bergaran emanen dute

Herri horretako udalak antolatuta, martxoaren 25ean egingen dute eta hasiak dira berriz ere igandero prestatzen

MARIFA ETA KORO

Gan den udazkenean eskaini zen *Maddiren trajeria* pastoralala Zugarramurdin eta Saran, eta orain, udaberrian, berriz ere eskaintzeko aukera bat dago. Aldi honetan Xaretatik urrunxko den herri batean izan da emanaldia, Bergaran. Hango udalak eskaturik, pilotalekuan eskainiko dute ikuskizuna martxoaren 25ean.

Beraz, lau hilabeteen ondotik, hortxe hasi dira berriz ere arizaleak igandero mustreketan bertsetak, kankak, batailak, eta dantzak frexkatzen.



Pastoralala Saran.

Inauteriak

Otsailaren 18 eta 19an egingen dira inauteriak Zugarramurdin. Larunbatean gazteak mendian ibiliko dira eta igandean haurrak herrian.



Arrosariko Andre Mariren kapera. Beheitiko karrikan. MARIFA ETA KORO

Zugarramurdiko Beheitiko karrikako kapera zaintzen zuen Anamari hil da

Beheitiko karrikan den Arrosarioko Andre Mariren kapera Teltxegiko familiak zaintzen du betitik. Lorez apaindu, zola garbitu, hautsa kendu, gauaz argia piztu... herriko txoko polit bat da, eta herritarrendako toki garrantzitsua. Orain arte Anamari eta Xeberok izan dira lan hau xarmanki egiten

aritu direnak, baina zoritxarrez Xeberok bakarrik gelditu da, berriki Anamari hil zaigulako.

Mila esker orain arte egingo dako lanagatik, besarkada haundi bat Xeberori, eta kapera argia pizturik segitu dezan bai Beheitiko karrika, baita Julia, Roxario eta Anamariarentzat ere.



MARIFA ETA KORO

Minu katua Sorginen Museoa zaintzen

Azken urte honetan Sorginen Museoak badu elementu bizi bat: katu txuri-beltx bat. Berez, Tomasenea-beheitiko katua da (Minu), baina ematen du bere bigarren bizitokia bezala museoa hartu duela, eta maiz han ikusten da.

Zinegotziaren dimisioa Urdazubiko Azkar taldean

Urtarrileko azken udal batzarrean Urdazubiko Azkar taldeko zinegotzia den Silvia Olaizola bere dimisioa aurkeztu zuen bere taldekoekin izandako hainbat desadostasunengatik. Orain, hortaz, hiru zinegotzi gelditzen dira Azkar taldean.

Urdazubiko gazteak ari dira ihauteriak prestatzen

Otsailean sartzearekin batera Urdazubiko ihauteriak ailtzeko gogoz daude herritar gehienak eta herriko gazteak hasiak dira ihauterietako hiru egunak antolatzen. Egitarauaren berri erdiko gehigarrian duzue, baina proposatutako gaia *Baserria* da.

Urteko agiantzak egin ditu Sarako Herriko Kontseiluak

GANEX

Battite Laborde Sarako auzapezak, bere kontseiluarekin, agiantzak egin zituen urtarilaren 27an. Hiru urteren ondotik, 120 bat lagun bildu ziren Lur Berri gelan. Stephane Barneixe lehen auzantak eman ditu 2022an egindako lanen eta 2023an egitekoak direnen berri. Portutik Añimainerat jendea ibiltzeko bidea hiru kolpetan egingen dute eta fite hasiko dira, Portuko biribiletik Antxipiko alderaino. Eskolako haurren autobusa Portuko biribilaren ondoan geldituko da lanak finitu arte, apirilaren hondarrean. Bertze kolpea, Antxipitik Anaeroko alderaino, urrian egingen dute eta hortik Añimainerat 2024an. Sophie Garbiso, gai sozialetako auzantak, jende ainitzi laguntza ematen dietela eta, aurtun ere horrela segituko dutela jakinarazi zuen. Apezetxean lau etxebizitza sozial egingen dituzte. Patxi Bazurko Jauregi kulturako auzantak, euskara beti goiti eman nahi dutela aipatu zuen eta horretarako hartu dute Jose Cazaubon kultur enplegatu gisa. Maritxu Arizkorreta eskolako auzantak aipatu zuenez, aisialdi zentroan gero eta gehiago haur badira eta behartuak izanen dira selekzioa egitera. Carmen Errandonea laborarien auzantak laguntza ekartzeko eginahalak egiten dituztela erran zuen, «ez aspaldi sei gazte muntatu dira herrian, eta horiek ongi segitzen dute». Bukatzeko, Jean Michel Jauregi diruzain auzantak, EPFL elkartearen eskutik Kurriarte-gia 290.000 eurotan eta Etxeberria 179.000 eurotan hartuko dituztela aipatu zuen, kontuak positiboan dituztela, baina martxoan buxeta bozkatuko dutela.



**EZ NAZAZU DEITU
PLASTIKOEN EDUKIONTZIA.
ONTZIEN EDUKIONTZIA NAIZ!**

EDUKIONTZI HORIAN

PLASTIKOZKO, METALEZKO ETA
TXAPAZKO ESTALKIAK ETA TAPOIAK

FILM-PAPERA ETA ALUMINIO-PAPERA

TARRINA ETA JOGURT-ESTALKIAK

ALUMINIOZKO ETA POLIEXPANEZKO ERRETILUAK

PLASTIKOZKO ONTZIAK ETA POLTSAK

ONTZI METALIKOAK

AEROSOLAK

BRIKAK



Zalantzak badituzu, bilatu ikur hau zure ontzian.





Mattin Oronoz eta Oihan Blanco elkarretaratzean. GANEX

Etxebizitza espekulazioaren kontra elkartu dira

Egoerak kezka sortu du, herriko etxebizitzaren %25 bigarren egoitzak baitira eta horietatik laurogei bat hutsik daude

GANEX

Etxebizitza espekulazioaren aurkako elkarretaratzea egin zuten ilbeltzaren 22an Sarako plazan. Bertan bildutako berrehun bat lagunek Herriko Kontseiluari borroka horretan parte har dezan galdegin zioten. Hurrengo egunetan, bilkura bat egingen dute, zer egin behar den eztabaidatzeko.

Duela egun batzuk jakin zen bazela etxebizitza bat salgai Saran 945.000 eurotan. Itxura denez, jabeak manifestazio bat izanen zela jakin zuelarik 720.000 eurotara jautsi zuen prezioa. Kari horretarat Mattin Oronozek euskaraz eta Oihan Blancok frantsesez esplikazioak eman zituzten plazan.

«Sarako etxebizitzaren lautik bat bigarren egoitzak dira»

Adierazi zutenenez, «Saran ere, Euskal Herriko bertze herrietan bezala, bada espekulazioa, badira jadanik, etxe edo apartamentu salduak beraien prezioetik goiti, baina oraingo honek basoa gaindika eman du, ezinezkoa baita herriko gazteek eta bertze inork etxe-


bizitza erostea prezio horretan». Datuak ere eman zituzten: «Saran badira % 25 bigarren egoitzak, etxebizitzaren % 4, laurogei bat hutsik daude. Etxebizitzaren % 30 sasoiko etxebizitzak dira. Ez hori bakarrik, errenta urtero altxatzen da». Egoera hori ikusita, «agentzien metodo txarrak» gaitzetsi zituzten: «beti diru gehiago irabazi nahi. Saila hau behar litzateke gelditu, zeren ezinezkoa baita herrian bizitzea».

Fabrice etxejabeak ere nahi izan zituen bi hitz erran: bera ofizioa dela aipatu zuen eta «oraingo mementoetan etxea egiteko materialaren prezioak goiti» egin duela. «Bere etxea modu ekologikoan eta ekonomikoan» egin duela ere adierazi zuen eta «horrek gastu handia» eragiten duela. Baina ez zioten bere esplikazioak finitzen utzi. «Horrelako etxe ekologikoa eta ekonomikoa zertarako saldu eta ez bertan bizitu?» galdegin zioten plazan bildutakoek.

Etxe eder horren ikusterat ere joan ziren, baita ikusi ere. Badira bi lur salgai igerileku-ko azpiko aldean.

Fabrice Iparagirre da lezeetako zuzendari berria

Hogei urteren ondotik, François Pouyet lezeetako zuzendariak bere kargua utzi-ko duela jakinarazi du Battite Laborde auzapezak, agiantzen ondotik. Pouyetek denak eskertu ditu eta suerte ona desiratu dio Fabrice Iparagirre zuzendari berriari.



Pouyet eta Iparagirre. GANEX



Ihauterietako igandean epaituko dute Zantantzar. ARTXIBOKOA

Otsailaren 18 eta 19ko ihauterien inguruan ekitaldi aunitz antolatu dituzte

Ihauteriak hurbiltzen ari dira eta horrekin lotutako erakusketak, konferentzia, etxez etxe, tailer, ikastaro eta bertzelako ekitaldiak izanen dituzte.

Erraterako, masken eta jantzien egiteko oihak, artile, larru... bilketa antolatu du AxuriArte elkarteak, **otsailaren 15a arte**.

Dantza tailerrak (Marmutz, polka, zazpi jauziak, Lantz) ere egitekoak dituzte **otsailaren 6an eta 13an**, 19:30etik 21:00etara, Lur Berri gelan, Arnaud Araguas eta Jose Cazaubonekin, deneri idekia, dohainik. 12-16 urteko nerabeei zuzenduriko dantza eta mozorro tailerrak **otsailaren 7, 9, 14 eta 16an** egingen dituzte, 10:00etatik 12:30era, Lur Berri gelan, Jose Cazaubonekin, dohainik.

Haur/guraso sukaldaritza tailerra, berriz, **otsailaren**

16an, ortzegunean 14:30etik 16:30era egingen dute, Ephéméride jatetxean.

Maska eta mozorro tailerrak, **otsailaren 15etik 18ra** egingen dituzte Keinu gelan, AxuriArte elkartearen eskutik.

Sarako elkarte, ikastetxe eta artisten *Ihauteri* erakusketak **otsailaren 6tik 26ra** ikusgai izanen da lezeetan.

Ihauteriak, berriz, **otsailaren 18an eta 19an** ospatuko dituzte. Larunbatean Sarako gazteekin etxez etxe ibiltzeko aukera izanen da.

Igandean, 11:00etatik goiti, Ihauteriak Sarako plazan Zazpiak bat, Gaztetxe eta herritarrekin. Ondotik, Sarako Izarrak antolaturiko bazkaria.

Otsailaren 26an, igandean 16:00etan, Thierry Truffaut-ek ihauteriei buruzko konferentzia emanen du lezeetan, dohainik.



Etkez etxeko ateraldiekin hasiak dira. JL BESSONART

Ihauteriak abian dira etxez etxe eta kartierka

Amotz, Ibarrun, Karrika, Olhan eta Ergarairen ibili ondotik, otsailaren 11n Urgurin eta 18an plazan izanen dute amaiera

JL BESSONART

Emeki emeki, negu beltz honetatik ateratzeko ospakizunak abian dira, ihauteriekin. Senpereko Zakuzaharrak elkarteak (Lesakarrerri harturiko izena) bere usaiko ateraldiak hasiak ditu, kantu, dantza, eta alaitasuna eskainiz herriko auzoetan. Herritarrek, berriz, ez ahortzi harrera ezin hobearegitea, arraultze eta xingarra eskasean, edozoin janari eta edari ongi etorriak dira, denek partekatze gisan.

Etkez etxe eta kartierka Amotz, Ibarrun, Karrika, Olhan eta Ergarairen ibiliak dira ja-

danik, aldiz otsailaren 11n, larunbat honetan, Urgurin izanen dira.

Otsailaren 18an, Ihauterien amaiera izanen dute Senpereko plazan, SanPantzar-en epaiketa, omeleta lehiaketa, bazkaria eta hainbat kontzerturekin. Honela, 12:15ean aperitifia izanen da Xupz taldearekin. 13:30ean bazkaria Guktaldearekin. Bazkalondan ere musika izanen da Andoni Oilokiegi abeslariarekin (18:00) eta Rakatapunk (20:00), McOnak (22:30) eta gauerditik aitzinera Doli Soinu Sistem taldeekin.



JL BESSONART

Ate idekitzeak eta brebetako diplomak

Arretxea kolegioan eta San Josepe eskolan iragan dira ate idekitzeak urtarrilaren 28an. Eskola elebidun horien aurkezpenak izan dira: tokiak eta gelak bisitatu, erakasleak ezagutu eta lehen izen emaitzak iraileko sartzeari buruz. 2022ko Brebeta diplomak banatuak zaizkie 68 ikasleri.

Patrick Bernard 'Amazonia' zine-konferentzian

Biziki aberatsa izan da ikus-entzuleendako, gure bizi molde kontsumista hankaz gora ezartzen baitu *Amazonia* dokumentalak eta Patrick Bernard hizlariak. Bere bizitza guzian, munduan diren leinu edo tribu anitzetan murgildurik egon da Bernard, bereziki Amazonian.



JL BESSONART

Mediku laborategi berria ideki dute Ibarbidea karrikan

Ibarbidea karrikan, Dufaute-giko garaje ohian dago medikuntza analisi edo azterketak egiten dituen laborategia. Orain arte eta gehienetan, Donibanejo joan-jina egin behar zen, aldiz hemendik landa herrian bertan baitezpadako urrats hori egiten ahalko da.



Kontraleihoak | Leihoak aluminio eta PVC
Itxidurak | Berandak | Toldoak
Barandak | Persianak

T. 00 34 948 630 962 - H. 31780 BERA
info@irekileihoak.com
www.irekileihoak.com





Beti Gazteko 640 kiloko gizonetakoak eta 540 kiloko emakumeak Araban Euskal Herriko txapelak jantzi ondotik.

Munduko sokatira txapelketan izanen da Beti Gazte

Euskal Herriko txapelketan 540 eta 640 kiloko txapelak irabazi ondotik, nazioartekoan Euskal Herriko ordezkari ere izanen da

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko zortzinakako sokatira txapelketak bere bidea egiten segitzen du eta urtarri-laren 28an Pobesen (Araba) bi kategoriatako txapelak erabaki ziren: gizonezkoen 640 kilokoa eta emakumeen 540 kilokoa. Bietan Lesakako Beti Gazte suertatu zen txapeldun eta, honenbertzez, Ipar Irlandan jokatu den Munduko txapelketan Euskal Herria ordezkatzeko aukera ere izanen dute lesakarrak.

Gizonezkoen 640 kiloko txapelketaren finalean Beti Gazte tiraldi guztiak irabazi zituen. Gaztedi txapeldunorde izan zen eta Napurrak hiru garren. Ondotik sailkatu ziren Zuraide A, Amaiur eta Zuraide B. Beti Gazteko zortzikotean Karmelo Mitxelena, Ander Mitxelena, Joxe Angel Mitxelena, Oskar Telletxea, Beñar-


do Iantzi, Beñat Ordoki, Unai Gurrutxaga eta Gerardo Telletxea aritu ziren, Paxkual Taberna entrenatzaile eta Julen Palenzuela laguntzaile zutela.

Emakumezkoen 540 kiloko txapelketan, berriz, azken jardunaldira hamaikana puntuarekin berdinduak ailegatu ziren Beti Gazte eta Ibarra, baina ongi nagusitu ziren lesakarrak txapela janzteko. Ibarrek eta Gaztedik osatu zuten podiuma, Badaioz laugarren izan zen, Amaiur bosgarren eta Abadiño seigarren. Beti Gazteko zortzikote txapeldun

peldunean Aitziber Goienetxe, Udane Arbelaitz, Ane Gurrutxaga, Irantzu Goienetxe, Ainhoa Etzegarai, Karmele Pikabea, Ainhoa Ubiria eta Maria Iantzi aritu ziren, Maddalen Lopez entrenatzaile zutela.

Munduko txapelketa Ipar Irlandan martxoaren 7tik 11ra Oraindik kategoriatan nagusietako lau pisutako (otsailaren 18an Berangon jokatu dute gizonezkoen 600 kiloko finala, hilaren 25ean Laukizen emakumezkoen 500 kiloko finala eta gizonezkoen 560 kiloko txapelketa eta martxoaren 5ean Ibarra txapelketa mistoa) eta junior eta 23 urtez beheko txapelketak erabakitzeak dira. Euskal Herriko txapelketa bukatu ondotik, Munduko goma gaineko sokatira txapelketa Ipar Irlandako Parkgate herrian jokatu da. Orain arte zalantzak izan badituzte ere, Beti Gazteko sokatira taldeak bertan lehitzeko erabakia hartu du, bai klub arteko txapelketan, baita nazioartekoan ere. Klub artekoan, gizonezkoen 560 eta 600 kiloko kategorian, emakumeen 500 eta 540 kiloko kategorian eta txapelketa mistoan (580 kilo) aritzekoa da.

IPAR IRLANDAN JOKATUKO DUTE MUNDUKO TXAPELKETA



Etzegarai Nafarroako txapeldun iaz.

Euskal Herriko lokotx-biltze txapelketak otsailaren 19an

TTIPI-TTAPA

Euskal Herriko lokotx-biltze txapelketa jokatu da otsailaren 19an, igandean 11:30ean hasita Bizkaian, Mungiako Jose Antonio Agirre kiroldegian. Gizonezkoen eta emakumezkoen txapelak jokoan izanen dira eta bietan izanen dira eskualdeko kirolariak. Emakumeen txapelketan, joan den urtean Nafarroako txapeldun izan zen Ainhoa Etzegarai beratarra ariko da, Ainhoa Iraizoz, Amaia Mendinueta, Amaia Jimenez eta Iraide Gezuragarekin batera. Gizonezkoen artean, berriz, Berroetako Asier Gamio eta Sunbillako Eneko Herrerekin batera, Patrik Saitua, Aritz Martin, Aritz Iturribarria, Jon Vegas, Jon Larrañaga eta Iraitz Ferreira ariko dira. Bietan berrogeita hamarna lokotx bildu behar dituzte.

Lasto-botatzen ere

Jaialdi berean, Euskal Herriko lasto-botatze txapelketa ere jokatu da, eskualdeko ordezkariak gabe. Juan Carlos Lopez, Eloi Salterain, Mikel Agirre eta Jose Mari Bustinza ariko dira, 12 kiloko fardoa, sarde baten laguntzarekin, barra horizontal baten gainetik pasatuz, ahalik eta altuerarik handienera.

Malerrekako eskuz binakakoaren finalak hilaren 18an

Errekek antolatutako 21. txapelketan zortzi kategorietako azken partidak jokatu dituzte Ezkurra pilotalekuan

TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Doneztebeko Erreka elkarteak antolatutako eskuz binakako 21. pilota txapelketako finalak otsailaren 18an, larunbatean 09:00etan hasita jokatu dituzte Ezkurra pilotalekuan. Hau idazterakoan, benjamin eta alebin mailako finalistak erabakiak ziren: Benjaminetan, Goñi eta Zubieta (Bortziriak), Oberenako Mauleon eta Riparen kontra ariko dira eta alebinetan, Telletxea eta Igoa (Bortziriak), Lagunak-eko Arrieta eta Etxegararen kontra.

Elite eta senior mailako finalerdiak otsailaren 1ean jokatzekoak zituzten. Eliten, Oian Canabal igantziarra (Oberena) eta Cuairan (Erreka), Goizuetako Beñat Apeztexea (Erreka) eta Mundarroko Lizeagaren kontra eta Zugaraldeko Ugaitz Elizalde itu-



Pilotari tikiak lehian.

rendarra eta Irurita (Oberena), Oberenako Oskoz eta Lazkozen kontra aritzekoak ziren.

Senior mailan, berriz, Paz Zigandako Lakabe eta Peñalver, Mikelarena (Buruzgain) eta Oberenako Unax Apeztegia elizondoarraren kontra eta Oberenako Oier Ariztegi lekaroztarra eta Lapkeko Erle, Eneko Olaizola eta Odriozolaren kontra. Infantil, kadete eta jubenilen finalerdiak jokatzekoak zituzten otsailaren 5ean.



UTZITAKOA

Julen Goia lesakarra xakean bikain

Xakean bikain aritzen segitzen du Julen Goia Mitxelena lesakarrak. Sei urterekin, jokatzeko dituen txapelketetan maila ederra erakusten du. Irunen jokaturako Eguberrietako xake txapelketan bigarren izan zen eta Azpeitiko xake txapelketan garaile. Azpeitiko hamasei urtez beheitikoei zuzendua zen.



Olano, Pellejero eta Mindegia Azpeitiko kanporaketa ariko dira larunbatean.

Asier Pellejero, Julen Olano eta Patxi Mindegia II. Euskal Duatloian ariko dira

TTIPI-TTAPA

Eskualdeko hiru kirolarik parte hartuko dute aurten bigarren aldiz jokatu den Euskal Duatloian: Asier Pellejero are-soarrak, Julen Olano leitzarrak eta Patxi Mindegia zubietarrak. Hirurak otsailaren 11n Azpeitian egingen duten lehenbiziko kanporaketan ariko dira eta hirurak lehenbiziko aldiz ariko dira.

Proba otsailaren 11n, larunbatean 17:30ean, Azpeitiko zezen plazan jokatu dute eta kirolariek etzanda paratutako 45 ontzako bi enbor moztu, bi kilometro lasterka egin

eta zutikako 45eko bertze bi enbor moztu beharko dituzte.

Joan den urtean antolatu zuten lehenbiziko aldiz Euskal Duatloia, eta aldi hartan, Ugaitz Mugertza mutrikuarrak irabazi zuen. Bera izan zen etzanda paratutako 45 ontzako lau enbor ebakitzen, lau kilometro egiten eta zutik paratutako 45eko bertze lau enbor moztzen bizkorrena. Lehenbiziko edizio hartan, ordea, ez zen eskualdeko inor aurkeztu.

Aldi honetan Mugertzak ez du parte hartuko. Hortaz, II. Euskal Duatloiak txapeldun berria izanen du.



EGUR SPORT

Urrezko Aizkolariak Leitzan

XXIII. Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketa Eusko Label Sariko jardunaldia jokatu zuten ilbeltzaren 29an Leitzako Amazabal pilotalekuan. Lesioaren ondotik, Iker Vicente berriz ere lehian izan zen eta Jon Rekondo leitzarrarekin irabazi egin zieten Zigako Joxean Etxeberria eta Txapartegiri



MIEL M. ELOSEGI IRURTIAK UTZITAKOA

LEITZA '40 ordu' filmaren proiektzioa

Herrian filmaren grabazioaren 25. urteurrena.
Herri Aretoan, otsailaren 11n, 19:00etan.

PROIEKTZIOAK

LEITZA
'40 ordu' filmaren proiektzioa
Herri Aretoan, otsailaren 11n,
19:00etan.

Zinema
Herri Aretoan, otsailaren 18an
eta 19an, 16:30ean 'Grufaloe'
eta 19:00etan 'Karpeta Urdinak'.

IRURITA
'Loreak belauetan'
dokumentalaren emanaldia
Gizarte Bilgunean, otsailaren
24an, 19:00etan.

MUSIKA

BERA
Harat taldearen kontzertua
Katakun, otsailaren 10ean,
22:30ean.

Musika eskolaren
inauterietako kontzertua
Kultur etxean, otsailaren 15ean,
18:00etan.

ELIZONDO
Olaia Inziarteren kontzertua
Arizkunenean, otsailaren 12an,
18:00etan.

ARANTZA
Meditazio kontzertua
Eskolako gimnasioan, otsailaren
18an, 17:00etan.

ZIGA
Baztan Kantuz
Plazan, otsailaren 19an,
12:00etan.

IKUSKIZUNAK

LEITZA
'Lehendakari gaia' antzezlan
Txalo Produktzioak taldearekin.
Herri Aretoan, otsailaren 12an,
19:00etan.

IRURITA
'Zeozertan dabil baina ez
dakit zertan' antzezlan
Metrokoadroka Sormen
Laborategiarekin.
Gizarte Bilgunean, otsailaren
26an, 18:00etan.

SOLASLADIAK

DONEZTEBE
'Riomundo' liburua
aurkezpena
Jon Maiaren eskutik.
Liburutegian, otsailaren 16an,
19:00etan.

LEITZA
Nafarroako Torturatuen
Sarearen aurkezpena
Herri Aretoan, otsailaren 17an,
19:00etan.

ELIZONDO
'Mexikar iraultza: Pancho
Villaren korridoetan' solasaldi
musikatua
Mexikortxo taldearekin.
Amezti elkartearen, otsailaren
23an, 19:30ean.

BERTZELAKOAK

LESAKA
Merkatu Ttikia
Beheko plazan, otsailaren
25ean, 10:00etan.

ELIZONDO
Energia enpresen
publikatzea eskatzeko
elkarretaratzea
Plazan, otsailaren 10ean,
19:30ean.

GOIZUETA
Espainiako pilota
txapelketaren kanporaketa
Herriko frontoian, otsailaren
11n, 18:00etan.

BERA
Bertako ekoizleen merkatua
Beralandetan, otsailaren 11n,
10:30etik 13:30era.

Gure Txokoa elkartearen mus
txapelketa
Iamotenean, otsailaren 18an,
16:00etan.

«Trinketean bakarrik egotean ikasten dugu emozioak kontrolatzen»

MANEX ETXEBERRI PACHECO SARAKO PILOTARIA



16 urteko saratar gaztea da Manex Etxeberri Pacheco, «bi arreba ditut, Julene eta Laida». Angeluko Cantau lizeora joaten da, eta zurgin lanbidea ikasten ari da bertan. Zaletasun anitzeko mutila da; «mendian ibiltzea eta lasterka egitea gustuko dut, eta anitz maite dut bertsoak entzutea». Baina, batez ere, pilota du afizio.

Lehenbiziko pilotakadak

Sei urte zituela hasi zen pilotan jokatzeko, «lehenbiziko joko garbin aritzen nintzen, eta gero esku-huskan hasi nintzen». Hasieran «nire otto-ekin eta aitarekin» joaten zen pilotan aritzera, baina gero Sarako pilota eskolan sartu zen, «eta anitz maitatu nuen kirol bezala. Geroztik jokatzeko segitu dut».

Hala ere, «entrenamendu gutti» egiten dituela aitortu du; «asteazkenetan ordu batez entrenatzen naiz, eta larunbatetan partida izaten dut, baina partidarik ez dudalarik ere entrenamendua izaten dut». Honez gain, «astelehen eta ostegunetan fisikoa lantzen dut ordubetez».

Txapelketetara jauzia

«Zazpi edo zortzi urte» zituela hasi zen Etxeberri lehenbiziko txapelketetan parte hartzen, eta geroztik hainbat pilotaleku eta trin-

ketetan aritu izan da Sarako Izarra pilota taldearekin.

Berriki, Frantziako eskuz binakako trinkete txapelketan parte hartu du Eñaut Zozaiarekin batera, baita emaitza ona lortu ere: txapeldunordeak izan dira, Arrangoitzen jokaturako finalean 40-32 gelditu ondotik bikote irararraren kontra.

Horrelako finala jokatu izana «esperientzia bikaina» dela dio Etxeberri, «anitzetan finalerdietan galdu izan dugulako». Finala ikustera «jende anitz» hurbiltzen da trinketera, «eta horrek giroa ematen du. Biziki ederra da horrelako giro batean pilotan aritzea».

Ametsa bete nahian

Pilotari ona izateko, «anitz entrenatu behar da fisikoki ongi egoteko, baina gehienbat buruak du eragiten. Sakrifizioak egin behar dira, bestara gutti atera eta denboraren gehiengoan pilotan kontzentratuz».

Hau segituz, «pilotaz bizi-tzea» du ametsa; «aukera baldin badut, Hegoaldean nahiagoko nuke aritu, hemen ezin baita pilotaz bizi». Hau «pilotari guzien ametsa» dela dio, «baina badakit zaila dela».

Aurten buruz buruko partidak jokatzeko hasi berri da Etxeberri, eta banaka edo binaka jokatzeko aukeraterakoan, «banaka» aritzea du nahiago. «Trinkete batean bakarrik izatea maite dut. Hor ikasten dugu gure emozioak kontrolatzen. Galdu edo irabazi, zure falta edo zuri esker izanen da».

«PILOTARI ONA IZATEKO BURUAK ERAGITEN DU GEHIENBAT»

«MAITE DUT HAURREI PILOTAN ARITZEN IRAKASTEA»

Honez gain, frontoiak baino, trinketeak ditu nahiago, «pareta anitz baitituzte, eta joko gehiago egiten ahal da horrekin. Puntua fiteago egiten da eta jokoa biziagoa da». Frontoiaren jokoa, aldiz, «kontrakoa da: partida batek bi ordu baino gehiago irauten ahal ditu, eta pazientzia behar da».

Ttikienei erakusten

Sarako trinketean herriko haurrak entrenatzen hasi da aurten. «Maite dut haurrei gauza berriak erakustea, eta saiatzen naiz ahulenak eta azkarragoak direnak nahastu, bakoitzak dituen gaitasunak ikusteko. Esperientzia bikaina izaten ari da eta anitz ikasten ari naiz, batez ere nola irakatsi».

Eskualdeko pilotarien artean «maila ona» ikusten du Etxeberri Iparraldean. Hegoaldean, aitortu duenez, «ez dakit batere nolakoa den maila». Hala ere, pilotaren munduan Jokin Altuna da bere erreferentziatzeko jokalari; «pilotari biziki ona eta bizia da. Bera bezalako jokalari izateko gogoia dut. Ilusio handia egiten dit bera aritzen ikusten dudalarik».

Etorkizunera begira

Etorkizunean «pilotarekin zerbait egiteko» gogo du Etxeberri. «Pilotaz bizi-tzea lortzen ez badut, zurgintzan arituko naiz, baina kirolarekin zerikusia duen ofizio bat izatea gustatuko litzaidake. Gainera, gustuko dut haurrak entrenatzea eta nola hobetzen duten ikustea».

Azkenik, eskerrak eman nahi izan dizkie «nire familiakoei, beti hor baitira nire partidetan, baita nire pilotako bikotekide Eñauti eta nire bi entrenatzaileei ere, Tito eta Patrick. Baina bereziki nire arreba esker-tu nahi ditut, alimaleko sustengua ematen baitidate».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI



OIZ. 300m²ko bi bizitzako etxea salgai, 342m²ko partzelarekin. 5 logela eta 44,8m²ko garajea. Bizitzeko prest. Aukera polita. Prezioa 325.000 euro. ☎687 63 27 37 (Eli).



OIZ. 70m²ko apartamentua herriko etxe baten beheko solairuan. Eraberitua eta altzariz hornitua, bizitzera sartzeko prest. Bi gela, egongela tximiniarekin, sukaldea eta trasteleku txiki bat. Prezioa 95.500 euro. ☎687 63 27 37 (Eli).

ERRENTAN EMATEKO

LESAKA. Pertsona batentzako logela errentan emateko. ☎678 85 50 56.

ERRENTAN HARTZEKO

ELIZONDOn edo **INGURUAN.** Lanean ari den neska batek pisua errentan hartu nahi du. ☎686 16 77 46.

GARAJEAK/LOKALAK

SALGAI

LEITZA. Garajea salgai. ☎619 85 44 90.

ERRENTAN EMATEKO

BERA. Auzoa ostatu-jatetxea errentan emateko. Terrazarekin. ☎605 86 43 55.



IRAGARKIA JARTZEKO:



948 63 54 58



www.erran.eus



744 48 43 61



info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da

ARGAZKIAREKIN jarri nahi izanez gero **12 euro**

Iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta

ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeen erantzukizunik

LANA

ESKAINITZAK

LESAKA. Fruta dendan pertsona bat behar dute. Bidali curriculumak *ki-frut@gmail.com* helbidera.

LESAKA. Iturbena kafetegian zerbitzaria behar dute langileen oporraldietan aritzeko eta errefortzurako. Esperientzia izatea kontuan hartuko dute. ☎620 70 09 64 (Arratsaldez deitu).

IGANTZI. Irrisarri Land-en asteburuetan aritzeko aktibitateetarako monitoreak behar dute (tirolinak, zaldiak, ibilbide gidatuak...) . Martxotik azarora arte aritzeko. Esperientzia eta kotxeko baimena izatea kontuan hartuko dute. Interesatuak curriculumak bidali: *gestion@irrisarriand.com*.

IGANTZI. Irrisarri Land-en aktibitateetarako monitoreak behar dute astegunez lan egiteko (tirolinak, zaldiak, ibilbide gidatuak, hainbat adin talderen kudeaketa...) . Martxotik azarora arte aritzeko. Euskaraz jakitea eta kotxeko baimena izatea kontuan hartuko dute. Interesatuak curriculumak bidali: *gestion@irrisarriand.com*.

IGANTZI. Irrisarri Land-en ostaturako zerbitzari bila ari dira. Martxotik azarora arte aritzeko. Euskara jakitea, esperientzia eta kotxeko baimena izatea kontuan hartuko dute. Interesatuak curriculumak bidali: *rrhh@irrisarriand.com*.

IGANTZI. Irrisarri Land-en sukaldari eta parrilan aritzeko pertsona baten bila ari dira. Martxotik azarora arte aritzeko. Esperientzia eta kotxeko baimena izatea kontuan

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,31 €
- 1.koa 5,19 €
- 2.koa 5,19 €

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,42 €
- 1.koa 5,28 €
- 2.koa 5,17 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00 €
- Idixkoak 150,00 €

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00 €
- Idixkoak 140,00 €

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,82/5,12 €
- Zaldi-behorrak 2,52/2,69

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,70/8,80 €
- 8-10 kilokoak: 6,80/7,50 €

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 84 €

Zerri gizona 1,718 €

Zerramak 1,140€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua libeltzaren 20tik 27ra bitarteko prezioak)

hartuko dute. Interesatuak curriculumak bidali: *rrhh@irrisarriand.com*.

IGANTZI. Irrisarri Land-en parkeko alojamentuetan (aterpea, hotela eta bordak) garbitzaileak behar dituzte. Martxotik azarora arte aritzeko. Kotxeko baimena izatea kontuan hartuko dute. Interesatuak curriculumak bidali: *nekanemariezkurrena1@gmail.com*.

DANTXARINEA. Mas por menos dendan urte guzirako eta lanaldi osoan aritzeko jendea behar dute (kontratu luzerako aukera). Frantseza jakitea kontuan hartuko dute. ☎687 73 92 40.

ZERBITZUAK

DENETARIK




Baratzeko lurrari edo beste edozein lurrei buelta emateko lanak egiten dira motokultorekin. ☎650 39 03 94.

DENETARIK

SALGAI



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.



Komoda eta ispilua salgai. Komodaren neurria: 87 cm-ko altuera, 111 cm-ko zabalera eta 50 cm-ko sakonera. Ispilua: 75 cm-ko altue-

ra eta 100 cm-ko zabalera. ☎637 11 59 31.



Etxeko su egurra salgai. Garraio zerbitzuarekin, etxeraino eramanen dizugu egurra. Deitu konpromisorik gabe. ☎629 45 14 26.

ANIMALIAK

OPARITZEKO

ERRATZU. Bi zakurkume opari emateko, Border Collie eta Mastin arrazen nahasketa. ☎629 00 57 64.



Border Collie arrazako zakurkumeak salgai. Atta eta ama lanean dakitenak. ☎616 10 90 50.

MOTORRAK

SALGAI



Volkswagen California salgai, 2005. urtekoa. 225.000 km. Oso egoera onean. ☎636 87 09 36.



Autoa salgai, egoera onean. Prezioa 4.800 euro. ☎690 05 09 03.

URTEBETETZEAK



Arantzako **Kattalin Ordoki Hualdek** 7 urte bete ditu otsailaren 1ean. Zorionak atta, ama eta batez ere zure anaia Xubanen partez.



Elgorriagako **Anne Leatxe Olazarrek** urte bat beteko du otsailaren 18an. Aunitz urtez *printxexi!* Muxu goxo pila Elgorriagako familia guztiaren partetik!



Goizuetako **Eilak** 10 urte bete zituen ilbeltzaren 31n eta Haitzek, bere lehen-gusuak, urtea egin du otsailaren 7an. Zorionak eta musuak familiaren partetik.

Aunitz urtez!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak TTIPI-TTAPAN!

Internetez <http://erran.eus/zorionagurrak> helbidean sartuta; TTIPI-TTAPAREN **bulegora** etorrita, **postaz** argazkia eta testua helbide honetara bidalita: Koskontako bidea, 7-1-31770 LESAKA edo **Whatsappez** 744 48 43 61 telefonora idatzita.

Ordaintzeko: 5 € argazki ttikia eta 10 € handia. Bulegoan eskudirutan edo ERRAN.EUS/TPV/ORDAINKETA webgunean sartuta: kreditu txartelarekin, transferentzia eaginez edo Bizum bidez.

FELIXAUTOTAXI
Felix Mena Barberena

Gama altuko autoak
Afarroan gaude eta estatu mailan zein Frantzia eta Portugalen barna ibiltzen gara.

- Aireportuetara joan-etorriak
- Ezkontzak
- Laneko bidaiak
- Ospitaleetara joan-etorria
- Ibilbideak aukeran
- Aholkularitza
- Puntualitatea
- Harreman zuzena
- Esperientziadun gidariak
- Txartel bidezko ordainketa
- Aurrekontua pertsonalizatua

626 851 956

www.felixautotaxi.com

felix@felixautotaxi.com

KULTURKARI
Diseinu grafikoak | Publikazioak
www.kulturkari.com

Enpresentzako materiala
Txartelak, gutun-azalak, orriak, talonarioak, karpetak, zigiluak...

Hainbat euskarri
Era guztietako formatuak eskaintzen dizkizugu zure enpresa bistaratzeko

URTEURRENA

Karmen KARRIKABURU KARRIKABURU

Rosario KARRIKABURU MAIA

2022ko otsailaren 6an eta 12an
I. URTEURRENA
Betiko gure artean
ETXEKOAK

URTEURRENA

Junkal ITURRIA IPARRAGIRRE

Arantzan, 2022ko otsailaren 12an,
52 urte zituela
I. URTEURRENA

*Umirez eta alaitsu
egoten ginen elkarrekin,
eta oroitzapen ahaztezin horiek
beti geldituko dira gurekin.*

ZURE FAMILIA

HILBERRIAK

- **Georges Larrosse**, Sarakoa, urtarrilaren 15ean, 90 urte zituela.
- **Mertxe Zabalozuazola Alustiza**, Lesakakoa, urtarrilaren 17an, 96 urte zituela.
- **Severiano Bertiz Albiasu**, Lesakakoa, urtarrilaren 19an, 86 urte zituela.
- **Xole Iturbide Etxenike**, Erratzukoa, urtarrilaren 20an, 87 urte zituela.
- **Mª Pilar Alzuguren Esteberena**, Berakoa, urtarrilaren 20an, 91 urte zituela.
- **Rosa Carmen Azkarraga Irigoien**, Iruritikoa, urtarrilaren 23an, 91 urte zituela.
- **Mª Carmen Erce Etxenike**, Arizkungoa, urtarrilaren 23an, 96 urte zituela.
- **Angeles Magirena Goienetxe**, Amaiurkoa, urtarrilaren 24an, 95 urte zituela.
- **Mª Teresa Goia Goienetxe**, Igantzikoa, urtarrilaren 25ean, 49 urte zituela.
- **Inaxi Irazu Zumeta**, Lesakakoa, urtarrilaren 25ean, 93 urte zituela.
- **Salvadora Irisarri Telletxea**, Etxalarkoa, urtarrilaren 25ean, 86 urte zituela.
- **Meliton Legazkue Bidart**, Iturengoa, urtarrilaren 27an, 94 urte zituela.
- **Marisol Gubia Oieregi**, Doneztebekoa, urtarrilaren 28an, 79 urte zituela.
- **Jose Maria Elizalde Mariezkurrena**, Eratsungoa, urtarrilaren 28an, 88 urte zituela.
- **Jose Mª Alsua Telletxea**, Goizuetakoa, urtarrilaren 30ean, 77 urte zituela.

URTEURRENA

Juan ETXEBERRIA ETXEBERT

Elizondan, 2021eko otsailaren 26an, 74 urte zituela
II. URTEURRENA

*Zu ikusi ez arren
zaitugu gogoan
zu ikutu ez arren
zaitugu alboan
zure itzala izango dugu
beti gure artean.*

ETXEKOAK

BB
BAZTAN BIDASOA
Onaketa Zerbitzua

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERA San Jose Beilatokia
MALERREKA: DONEZTEBEn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka

IRACHE
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Inufea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

IZARRA
HERRI, ZURE ONDOAN
ANIMA, A FAMILIA

Gure burra,
gure jendea,
gure sustraiak

TANATORIOAK
• ELIZONDO • BERA • DONEZTEBE
• ARANTZA • IGANTZI


24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

HITZ GEZIDUNAK

	♦ Izena	Gabezia	Larrusazleko ikanda	Reo	Dendaren jabea
	Batzartuta dagoena	Zuaitz gaiztoa	Kamera	Klarionak	Dago
	Emakume izena			Non atzizkia	
	PL, zulaizka mota			Aharlaren emea	
♦ Deitura	Maiera, modua	Ez ama			500
Itunkigaria	Musika nota	Onddo bizkarroi			1
Galdetzale bat		Jardun	Anno Domini		Kontso-nantea
Internet Protokoloa		Puska	2		Detektatzaile mota
	Lehera eta azkena	Kokel mota			
	Mendebal-dian, zen	Bi bokai			
Arkua			Bekal mehea	Alaizta anti-komunista	
Ura garbitze-ko enakin			Amas ezak hil	Bizia galdu	
				Hidrogenoa	Kontso-nantea
				Nuri atzizkia	Musika nota
					Modu atzizkia
Gloin izena		Purifikatzen erabiltzen			
Musika nota		1000			
	Kamiel gidari				

♦ Bertsolari saratarra

GOITIBEHERA



Goiti eta beheiti letra bat gubidiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Nafarroako hiriburuko auzoa. [2] Eliz kantaria. [3] Ainhua, Sara, Urdazubi eta Zugarramurdiko herriek osatutako elkarte. [4] Nafarroako ibaia, Zangozaldean. [5] Antze, erti. [6] Laborarien lanabes. [7] Bortzirietako udalerria. [8] Irri. [9] Gizonezko batentzat, emakumezko senidea. [10] Nazioa, sorteria. [11] Elbarritasunen bat duen pertsona.

ERANTZUNAK




PLAZAN BAZAN

MARIPURTZIL

PELLOZIRI



MARGOTU



Marrakkoak: Garbaine Ubeda (Alurri)

INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



IRUDI ENGAINAGARRIAK

Zati hauen artetik
erdiak (4) irudi handitik
hartuta daude eta
beste erdiak ez.
Bereiz itzazu.
Bide batez, margotu
ezazu irudi nagusia.



SUDOKUA




		Z	E		
E	2			I	A
	R			E	
	Z			R	
R	A			Z	E
	E	I	R		

Zer dugu sudoku taularen
gainean? Bada, 2 azeri.
Hain zuzen, erantzun horrek
dituen hizkiak baliatu beharko
dituzu sudokua osatzeko
(2, A, Z, E, R eta I).

BAKOITZARI BEREĀ

Lotu azeri bakoitzari bere benetako itzala.



Ttipi Txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSU-TRUK
-%80 ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Kaskontako bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61
info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

822 zenbakiko
irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Ana Almandoz Sagastibeltza | URDAZUBI
Onddo ta punto - Kamiseta bat
M^a Carmen Iturbide Irisarri | ETXALAR
Martiko- Lote bat
Mikel Altzuguren Gorria | BERA
Zugarramurdiko Lezeak - Sarrera bat
Tomas Lozano Barrios | ARESO
BKZ Abentura- Sarrera bat
Juana Aleman | ORONOZ-MUGAIRI
Kimetz - Lote bat
Ana Irigoien Arretxea | DONEZTEBE
Izar Park - Sarrera bat
Jon de la Cruz Etxegarai | LASARTE-ORIA
Ibaizabal - Bi liburu
M^a Jose Andiaarena Erasun | SALDIAS

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com



Bi sarrera

BUATXABAL
www.buatxabal.com



Kamiseta bat

SALTING IRUÑA
www.saltngcenters.com



Bi sarrera

EZKEXA
www.ezkexa.com



Kamiseta bat

ARKUPE
www.arkupegozotegia.com



Lote bat

OKILLE TAILERRA
okilletailerra.blogspot.com



Eguzkilore bat

IZAR PARK
www.galaxypark.eus



Sarrera bat

**MU
SI
KA**



DVD bat

Katxiporreta
www.katxiporreta.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.ibaizabal.com



Eliza karrika, 18 - Doneztebe